Saritutakoak: A: 1. Jone Igartua "Nire bizitza"
2. Manex Bengoa "Koldo Eleizalde"
B:1. Leire Ugalde, Eider Moncayola, Ariana Sasieta "Animali artean"
2. Asier Muñoz eta Iñaki Olabarria "Ikastolako bakeroak"
D: Julen Otaegi eta Marina Retolaza "Zuhaitz zahar baten istorioa"

XXI. Koldo Mitxelena literatur saria

Herria:	Donostia
Antolatzailea:	Donostiako udala, Euskararen udal patronatoa, Donostiako ikastetxeak
Mailak:	B maila: 8-10 urte C maila: 10-12 urte D maila: 12-14 urte E maila: 14-16 urte F maila: 16-18 urte
Sarituak:	B kategoria: Iker Erguin "Haiti" C kategoria: Unai Azpiroz "Maialen Lujanbio" D kategoria: Aitor Iraola "Nire doluminak" E kategoria: Maddi Labaka "365 egun" E kategoria: Xabier Ayarza-Marien "Maitemindu batenak" F kategoria: Ane Labaka "Agurra"

XVII. Lasarte-Oriako bertsopaper lehiaketa

Herria:	Lasarte-Oria
Antolatzailea:	Ttakun kultur elkarteko bertsogintza taldea, Lasarte-Oriako udala. Euskara batzordea
Mailak:	Bakarra
Sarituak:	Iñigo Otaegi, Aroa Sotomayor, Nere Diez, Yeray Jaenes

XIX.. Lazkao Txiki bertsopaper lehiaketa

Herria:	Ordizia
Antolatzailea:	Argi-Berri elkartea
Mailak:	A: 13 urte artekoentzat B: 14-18 urtebitartekoentzat C: 1990an edo aurretik jaiotakoak
Sarituak:	A: 1. Leire Akizu 2.Paul Iruretagoiena 3. Aratz Irazustabarrena B: 1. Saririk eman gabe 2. Maialen Akizu 3. Amaia Urbieta

C: 1. Karmele Mitxelena
2. Iñigo Legorburu
3. Aitor Albistur

Leioako Bertso-Paper Lehiaketa

Herria:	Leioa
Antolatzailea:	Leioako udala. Euskara zerbitzua
Mailak:	A maila B maila C maila
Sarituak:	A maila: hutsik B maila:1.: Ainhoa Bilbao 2. eta 3. sariak: hutsik C maila: Askartza Claret ikastetxea - Lehen hezkuntzako 6. a taldea

XXVIII. Lexoti bertsopaper lehiaketa

Herria:	Oiartzun
Antolatzailea:	Haurtzaro ikastola
Mailak:	A: LH 6. maila B: DBH 1. maila D: DBH 3. maila
Sarituak:	A. Maddi Ibarguren: "Informea-notak jaso dituzu eta zure bizitzako lehenengo kalabaza bertan ikusi duzu" B. Iraitz Mateo: "Bizikleta lapurtu didate" C. Itsaso Uitzi: "Goizean ohetik jeiki eta ispiluari begira nago"

XXIV. Nafarroko eskolarteko bertsolari txapelketa (idatzia)

Herria: Nafarroa
Antolatzailea: Nafarroako Bertsozale Elkartea
Mailak: A maila: LH 3. eta 4.
B maila: LH 5. eta 6.
C maila: DBH 1. eta 2.
D maila: DBH 3. eta 4.
Sarituak: A maila: 1. Oier Ariztegi
2. Oier Larretxea
3. Urko Gorriti
B maila: 1. Paulo Ramos
2. Joanes Ilarregi
3. Beñat Altzelai
C maila: 1. Ainhoa Zabaleta
2. Beatriz Maritorena
3. Xabat Matxikote
D maila: 1. Haizea Beruete
2. Ainara Etxabide
3. Eider Azkoaga

VIII. Neguko bertsopaper lehiaketa

Herria: Beasain
Antolatzailea: Arrano kultur elkartea, Bertsoaren Beasaingo lagunak
Mailak: A maila: 2010an 18 urte baino gutxiago beteko dituztenak
B maila: 2010an 18 urte edo gehiago beteko dituztenak
Sarituak: A:1. Amaia Iturriotz "Larunbatean lausoa"
1. Eneritz Eizmendi "Betiko zirudiena desagerturik"
B: 1. Alaia Martin "Nota Bat"
Goierritar onena: Gema Urteaga "Betiko zirudiena desagerturik"

XVII. San Andres bertsopaper lehiaketa

Herria: Eibar
Antolatzailea: ... eta Kitto! Euskara taldea
Mailak: A: Lehen hezkuntza
B: DBH

D: 16 urte gorakoak
Sarituak: A: 1. Mikel Rodriguez
2. Irati Larruskain
B:1. Aitor Albistur
2. Jesus Mari Gisasola "Trunboi"

XI. San Antontxu bertsopaper lehiaketa

Herria: Mungia
Antolatzailea: Mungiako Taket Bertsolaritza Alkartea
Mailak: A: Gazteak (18 urte arte)
B: Helduak (18 urtetik gora)
Sarituak: A:1. Aitor Etchechuri-Servier "Sasi bertsolari bat BEC-en"
2. Maitane Jaio "Minbizia zorigaiztoko laguna"
3. Jon Alberdi "Munduari bira 80 egunetan"
B:1. Aitor Albistur "Alea jacta est"
2. Iñigo Legorburu "Hizketan ahaztu zaigu"
3. Julian Albistur "Euskaltzaindiak 90 urte bete ditu"

XIX. Villabonako bertso eta ipuin lehiaketa

Herria: Villabona
Antolatzailea: Villabona udaleko euskara-hezkuntza-irakaskuntza batzordea
Mailak: A maila: LH-ko 2. zikloa
B maila: LH-ko 3. zikloa
D maila: DBH-ko 1. zikloa
E maila: DBH-ko 2. zikloa
Sarituak: A: 1. Alazne Galan "Umeen eskubideak"
2. Ekhi Merketegi "Motua"
3. Maddalen Ugalde "Munduko natura"
B: 1. Garazi Otegi "Kartzelan"
2. Garazi Urkola "Udara neguaren aurka"
3. Manex Irazusta "Txindoki"
D: 1. Ane Geresta "Feminismoaren alde"
2. Martin Lizardi "Usoa"
3. Leire Olazabal "Mundua"
E:1. Haritz Mujika "Maitasunari jarritako bertsoak"
2. Ainhoa Olano "Nesketan egin? Ezinezkoa!"
3. Maddi Otaegi "Hernanira parrandara"

XXII. Urretxu eta Zumarragako eskolarteko bertsopaper lehiaketa

Herria: Urretxu-Zumarraga
Antolatzailea: Urretxuko eta Zumarragako udalak
Mailak: A: LH-ko 5. eta 6. mailak
B: DBH-ko 1.eta 2. mailak
D: DBH-ko 3. eta 4. mailak
Sarituak: A: 1. Julen Azpeitia
2. Nerea Arratibel
3. Mario Garcia
B: 1. Jon Mendizabal Aranburu
2. Maialen Akizu Bidegain
3. Leire Akizu Bidegain
D: 1. Beñat Torres Lete

XIX. Xabier Munibe Bertso-paper Lehiaketa

Herria: Azkoitia
Antolatzailea: Udaberri eta Indarlan guraso elkartea
Mailak: A maila: DHB lehen zikloa
B maila: DHB bigarren zikloa
Sarituak: A: 1. Julen Iparragirre "Erreala"
2. Aitor Sevier "Ez dago gorantza begiratzerik"
3. Itxaso Alberdi eta Oihana Larrañaga "Azken auto istripuak"
4. Lur Goenaga eta Zigor Zubeldia "Azkoitia ezagutzen"
B: 1. Unai Izagirre "Haitiko lurrikara"
Azkoitiarren sari berezia: Ander Benitez "Nire gela berria"

XXII. Zapirain anaiak bertsopaper lehiaketa

Herria: Errenteria
Antolatzailea: Lau Haizetara. Xenpelar bertso eskola
Mailak: Bakarra
Sarituak: 1. Ane Labaka "Ametsen lengoaian"
2. Aitor Albistur "Bizi artean hil"
3. Nikolas Zendoia "Txoriak erruki"

BAT-BATEKO
BERTSO HAUTATUAK

OÑATI (2010-01-05)

Bertsolariak: M. Lujanbio, A. Egaña, B. Gaztelumendi, U. Alberdi, A. Arzallus eta A. Mendiluze.

Gai-emailea: Egoitz Aizpuru.

Errege egunaren bezperan urtero egiten duten jaialdia. Gauean izan zen, Zubikoa kiroldegian, eta entzule asko bildu ziren, zazpiehun lagunetik gora. Oñatiko bertso eskolako lau kidek -Eneko Ibabe, Gorka Bolinaga, Aitor Urizar eta Beñat Gerreiro- bertso, txokolate tableta eta liburu bana opari egin zieten bertsolariei.

A. Arzallus-A. Mendiluze ♫

Gaia: Urte hasierarekin batera dieta egiten hasi zarete; orain, jaten duzuenari kontu handiz begiratzen diozue. Berriaren harpidedunen asteroko zozketan sekulako bazkaria tokatu zaizue Arzakenean; justu oraintxe, jana zaintzen hasi zaretenean.

Neurria: Zortziko handia
Doinua: *Eguna pasa nekean eta / Andre txarraren bentajak*

A. Arzallus:
Ni behin baskulan jarri nintzen ta
ene zenbat desengaino!
Pentsatu nuen "Derrepentean
jaitsi behar dut beheraino".
Arzaken dena plater txikia
ta minuskuloa da ño!
Iruditzen zait dieta hoberik
ez dagola hori baino. (bis)

A. Mendiluze: Dietan jartzea behin erabaki
ta hau da hauxe kasoa!
Tokatu zaigun sariagatik
dieta baten frakasoa.
Dena omen da plater txikia
hori da ba arazoa:
denak direla plater txikiak
baina ogia goxoa. (bis)

A. Arzallus: Ez zaitezela orain erori
zu ogi-mami eztitan
ogirik ezin bailiteke jan
horren leku garestitan.
Gero faktura pasako dute
numeroak eguzkitan
bai kilo batzuk galduko ditut
gainera zentzu guztitan. (bis)

A. Mendiluze: Ordaindu eurek egingo dute
faktura ez dator txarrera
baina zalantza haundi xamar bat
daukat neure arabera:
bazkari on bat tokatu zaigu
zeinen errua ote da?
Zergatikan ez zendun eskatu
La Perlarako sarrera? (bis)

A. Arzallus: Nere lagunak beti kopeta
lagunak beti azala
ba arrazoia emango dizut
pentsatu nuen bezala:
Arzaken beti *foix petit micuit*
beti ipintzen du hala
ta demostratu egin nahi nizun
frantsesez badakidala. (bis)

A. Mendiluze: Ene laguna hori zalantzan
ez det nik jarri sekula
ta azentua atera al dezu
neri egiteko burla?
Konturatu naiz zuk ahoskatzen
oso ondo dakizula
ta problema da ahoskatu ez
ahoratuko dezula. (bis)

A. Arzallus: Beraz ahora sartu nezake
hala agindu dezu zuk
baina hala ere lehenengo egin
beharko dira tratu batzuk:
larogei kilo ia ehun kilo
ere sumatzen dizkizut
azkar argaltzen ez bazerade
frantsesez esango dizut. (bis)

A. Mendiluze: Esan nahi dezun hizkuntzan baina
ez naiz mudatzen kolorez.
Hala ta guzti gauzak hotzean
pentsa ditzagun faborez.
Joan gaitezen bai Arzak hortara
dieta armairuan gordez
izango dira urte gehiago
igual sari gehiago ez. (bis)

A. Arzallus: Guazen ba hurrengo astean biak
har dezagun bertan zita
agian Belen Estebanek'e
hara egiten du bisita
eta gu biak han presentatu
dieta guztiak ahantzita
baina hori bai ezin gera joan
mendiko botak jantzita! (bis)

A. Mendiluze: Mendiko botak ezin jantzia
esateko korajea!
Han ere ez degu izango noski
letxua ta potajea.
Lasai! Dotore egingo degu
Arzakerako biajea
baldin berriro kabitzen bazait
nere bodako trajea. (bis)

M. Lujanbio-A. Egaña

Gaia: Bikotea izango zarete. Zuen arazo handiena izaten da hilaren bukaerara iristea, ekonomikoki estu zabiltzatelako banketxe baten hipoteka dela eta. Gaur, etxera gutun bat iritsi zaizue, hipoteka daukazuen bankuko gutuna; 2010 zoriontsua opa dizue.

Neurria: Zortziko handia
Doinua: *Adixkidia Andoaindikan*

M. Lujanbio: Imajinatu ditzaket euren
irri zabal eta aho
haginak luza-luza eginda
txanponei trago ta trago.
Guretzat ona izango danik
ez det pentsatzen akabo!
Baina eurak bai egiten gabiltz
gero ta zoriontsuago.

A. Egaña: Ene maitea postal txiki bat
hemen degu parez pare
"Zoriontsua" hitza jartzen du
ta gogorra da hala're.
Ia urtea pasatzen degun
belauniko jarri gabe
euren besotan jausi ginan ta
euren eskuetan gaude.

M. Lujanbio: Euren eskutan gu jarri ginan
ta proposamenaz fio
ta beraiek guk paga dezagun
besteik ez dute desio.
Markoan jarri dezagun eta
txintxilikatu serio
gure zenbakik gorritu ahala
letrak jausiko zaizkio.

A. Egaña: Hemendik eta handik aurreztu
egin degu mila saio
baina ez digu ezerk kuadratzen
ta zer egin behar zaio.
Interesa ta hipoteka da
gure esperantza-leiho
Euriborrari beiratzen diot
ia zuri baino gehio!

M. Lujanbio: Ta hipotekak bikotearen
gainbehera bere ordaina.
Nere senarra haserre dabil
nik ezin hartu tamaina
zoratzen da ta asmatzen dabil
zer esan, ni nola engaina.
Maitea nik'e ulertzen zaitut
ia Euriborra aina.

A. Egaña: Alde hortatik ziri txiki bat
sartu didazu *puñeta*!
Neronek ere urte berrian
egina det gogoeta:
jetsi dezaket nere gastua
ta igo gure errenta
erretzeari utzi ezkero
neu egongo naiz erreta.

M. Lujanbio: Eta gainera pururik gabe
zuk ez baitezu etsiko
bere horretan jarrai dezagun
hobe nere iritziko
bizitza *austero* bat ein behar degu
oso espantu gutxiko
Gobernuaren injekziorik
guri ez zaigu iritsiko.

A. Egaña: Ez da iritsiko ez neurri haundi
ezta ere neurri txikian
guk geuk asmatu beharko degu
neurri xuxen egokian.
Alaitasuna ta maitasuna
zaindu geure bekokian
eta postala sar dezatela
kabitzen zaien tokian.

Arabako helduen bertso eskola bat.

Argazkilaria: Xabier Aginaga
Iturria: XDZ

ABADIÑO (2010-01-29)

Bertsolariak: M. Lujanbio eta J. Maia.

Gai-emailea: Beñat Gaztelurrutia.

Abadiñoko Gaztetxean egin ohi duten bertso-afaria. Afalondoan izan zen saioa; zati bat librean egin zuten eta beste bat mahaiaren bueltan bildutakoek -gehienak hango bertso-eskolako kideak- proposatutako gaiekin.

J. Maia-M. Lujanbio ♫

Gaia: Gai batek honela dio: "Bikotea izan zarete minutu batez bakarrik"; eta horregaz lotuta beste gai bat bertsotan egin dezazuen: "Bata tabakoa izango da eta bestea liatzeko papera".

Neurria: Zortziko handia
Doinua: *Loreak udan ihintza bezela I*

J. Maia:
Tabakoa naiz belar *rubio*a
nere izan eta pisu
zure gustoko naizela ere
zuk aspaldi badakizu.
Bildu nazazu zure besotan
zure baitan har nazazu
eta bi ezpain bero artean
eman diezagutela su.

M. Lujanbio: Nere ondoan ikusi zaitut
hortxe mantelan gainean
beti hain gertu beti hain urrun
beti hain aldamenean.
Etorri! Nere izara zuritan
hartuko zaitut barnean
nere kola ere blai egiten da
zu biltzen zaitudanean.

J. Maia: *Bokilla*rikan ez dugu behar
traba baitegu zeharo
biak nahastuta listu batean
gerora ta beroago
baina destinu petrala degu
kontraesan bat arraro:
zenbat ta gehio berotzen geran
heriotza hurbilago.

M. Lujanbio: Sua badoa atzerantz eta
gu bioi bizitza kendu
*bokilla*rikan ez dagoela
ezpainetara zuzendu
hautsa botata hautsa botata
gehiago ezin mantendu
gure maitasun hain sutu honek
minutu bat irauten du.

J. Maia: Baina gu beti ez gera egoten
halako bakardadean
minutu baten bizitza oso bat
pasatzen baita airean.
Hara harritxo bat nun sartu dan
gure arteko planean!
Gure burua nahasi egiten da
trio bihurtzen denean.

M. Lujanbio: Hirugarren bat etorri da ta
hau da nahasmen itzela!
Gauza jakina bi direnetan
hiru izaten direla.
Gu libre gabiltz norbere aldetik
tabakoa ta papela
ez paketeko zigarro estandar
*matrimonial*ak bezela!

J. Maia: Pena da baina gure aukera
zita ezin egin bi aldiz
behin txispa piztu ta hor joaten gera
gure sugar eta diz-diz.
Winston nauzu ni Jon Maia Winston
nere aita Phillip Morris
aprobetxatu nazazu orain
ez naiz etorriko berriz.

M. Lujanbio: Tabako *rubio* guztiek esan
ohi didate beretsua
hainbeste izen hain izan gutxi
hori da nere kexua.
Uste nuena hain sukar bero
izango zela sexua
hemen norbaitek ez du tiratzen
ta itzali da gure sua.

DONOSTIA (2010-01-30)

Bertsolariak: A. Arzallus, X. Silveira, U. Alberdi, J. Sorozabal, J. Maia, I. Gurrutxaga, I. Elortza, M. Lujanbio, P. Etxeberria, T. Garmendia eta I. Zubeldia.

Gai-emailea: Unai Elizasu.

Jorge Oteizaren hustasunaren inguruko gogoeta unibertsal ezagunak ardatz harturik osatu zuten Bertso Eguneko ekitaldi nagusia, *Hustubetehustu* izenburupean. Donostiako Kursaaleko kubo handian izan zen, 1.700 lagun inguru entzuten zirela. Andoni Egañak azaldu zuen bertsoaldi bakoitzaren atariko testuingurua.

A. Egaña: Jorge Oteizak askotan aipatzen zuen zenbaterainoko mina zuen euskaraz ez zekielako. Bere arbasoek ba omen zekiten, baina ez zioten transmititu. Min horrekin biziko zen eta min horrekin hilko zen. Imajinatu: joan zen mendearen hasieran euskaraz ez zekien mutil koskor bakarra izango zen Orion.

M. Lujanbio

Gaia: Esku artean duzun hori da gure hizkuntza[1].

Neurria: Hamarreko handia
Doinua: *Lurraren pean sar nindaiteke*

Ur txorrota bat bada hizkuntza
zenbat tanta da hitzeko?
Zenbat hitz dira tonu ezberdin
ta esanahi anitzeko?
Gaitz erdi ontzi bat baldin bagenu
tanta galduak biltzeko!
Eskuetatik joaten denak
arriskua du hiltzeko.
Hala're hitzak ez ziren sortu
eskutan edukitzeko. (bis)

Hizkuntzarentzat museo bat da
oso etorkizun hitsa
basamortua izan liteke
ontzia edo kaliza.
Hitza ahotik ahora doa
haizea joaten den gisa
lau haizetara ugarituko
ta zabalduko balitza
busti dezala ur horrek lurra
ta erne dezala hitza. (bis)

Beste askok ere ez du ikasi
Jorge Oteizan gisara
ez diet jartzen barkamenaren
ta aitzakien izara.
Hurbil zaitezte gure ondora
zuen gogoz bizi gara
ura hizkuntza, hizkuntza ura
parekotasuna hara:
gure hizkuntza ura da eta
ura berriz bizitza da. (bis)

(1) Unai Elizasuk pitxer bat ur hartu eta Maialenen eskuetara bota zuen.

BAIONA (2010-02-13)

Bertsolariak: A. Sarriegi, M. Lujanbio, U. Iturriaga, A. Egaña, A. Arzallus, J. Maia, A. Mendiluze eta S. Colina.

Gai-emailea: Joana Itzaina.

Sorgin-auziak oroitzeko eta gezurrez zikindu lapurtar emazteen omena zuritzeko antolaturiko saioa. Baionako Antzokian izan zen, arratsaldean.

S. Colina-M. Lujanbio

Gaia: Zu, Sustrai, itsasoa izanen zara, eta zu, Maialen, lurra. Zer duzue elkarri esateko?

Neurria: Zortziko handia
Doinua: *Haurtxo txikia negarrez dago I*

M. Lujanbio: Elkarrengandik beti hain gertu
ta beti urrun zeharo
bat izan nahi ta bi zati gara
zein baino zein zehatzago
bazoaz eta bazatoz baina
aspaldian dudan nago
zuretzat nahi ote dezun ja
gero eta lur gehiago.

S. Colina: Zu zaude lasai etorri heinean
egiten dut-eta buelta
ordea lurra ikusten zaitut
etxez goraino beteta.
Horrexegatik galerna baten
harrotu ohi naiz tarteka
martxa honetan nere gainean
eraikiko dute-eta!

M. Lujanbio: Lurra erabat zulatu naute
ze etorkizun ze patu...
Txalet txikiak egin dituzte
zenbait eraikuntza altu
denek nahi baitute zuri beha
ta itsasoa maitatu
inork ez du nahi itsasora joan
eta lurra begiratu.

S. Colina: Nahiz itsasoa ta lurra diren
bat bestean errelebo
ta batu nahian gehienak mintzo
diren guztiz ahobero
zer iruditzen igoko banintz
ta ez banintz jeitsiko gero?
Atzerritarrik ba al legoke
hondartzarik ez balego?

M. Lujanbio: Euren azalak beltz-beltz eitea
gizakiaren eredu
hondartzarikan ez balego ai
bat asmatzeko erregu...
Uda garaian gainezka nago
jendeak joan hobe du
aldiz udazken eta negutan
bakar-bakarrik gaude gu.

S. Colina: Bakardadea betetzeari
behar genioke ekin
baina portuei begira jarri
eta ez dakit zer egin.
Mundu honetan dena da jada
diru, errenta, etekin
lehen arrantzontziz betetzen ziren
orain berriz yateekin.

A. Arzallus ♫

Gaia: Badakizu gaur jendeak beste su mota baten inguruan dantzan ibiltzen ari direla eta Inauteriak ospatzen direla hemen. Zer leporatzen diozu zanpantzarri aurten?

Neurria: Hamarreko handia
Doinua: *Lurraren pean sar nindaiteke*

Ai ene gure Euskal Herriak
ze pisu eta ze zama!
Nik leporatzen diot lagunak
urrutira eramana
nik leporatzen diot hainbeste
gezur arraro errana
eta euskera desagertzea
gure karriketan barna
eta euskeraz ez dakitenei
ez erakutsi izana. (bis)

Nahiz bera ez den ez diputatu
edo ez den alkatea
nola bere gain eroritzen den
urte osoko kaltea
euskerak zuen gainbeherakada
da guretzat atakea
ta leporatzen diot ai ene
Iparralde zahar maitea
hari euskera kentzea eta
lauburu bat ematea. (bis)

Leporatzen dut herriko plazan
euskal dantzetan biltzea
leporatzen dut gure ikurrina
folklorera umiltzea
leporatzen dut "*Force basque*" jarri
ta jendea hurbiltzea
leporatzen dut frantsesa izan
kontzientziaren haizea
ta hala ere hemen jendea
euskalduna sentitzea. (bis)

ANDOAIN (2010-02-19)

Bertsolariak: A. Mendiluze, A.M. Peñagarikano, B. Gaztelumendi, S. Colina, A. Sarriegi eta I. Alustiza.

Gai-emailea: Joxe Oiartzabal.

Duela zenbait urte hasi ziren Sahararen aldeko jaialdia egiten Andoainen. Bastero Kulturgunean izan zen, igande eguerdian.

Nafarroako Eskolarteko Bertsolari Txapelketa.

Iturria: XDZ

A. Mendiluze ♫

Gaia: Duela zenbait urte, herriko gazte batzuen ekimenez eta Larramendi Kultur Bazkunak babesturik, berriz ere martxan jarri zuten bertso-eskola Andoainen. *Aiurri*ko[2] kazetaria zara, eta kronika bat egin behar duzu bertso-eskolaren gainean.

Neurria: Hamaseiko berdina, 8 puntuz eta 8 silabaz
Doinua: *Baserrian jaio nintzan / Habanera*

Azkena eman zutela
hainbeste urte igaro
dagoeneko ezin zen
agian hori itxaro
baina jendea bertsoak
kutsatua du zeharo
ta zenbaitek gogo hori
eraman nahi du harago.
Herrian bertso-eskola
izan zelako lehenago
gero ere izateko
eman da pauso gehiago.
Galdutzat eman zutenei
nahiz iruditu arraro
noizbait martxan egon zena
berriz ere martxan dago.

Hori da zaletasun ta
gogoaren ondorena
bertsoak herrian daukan
adierazle onena.
Batzuen zaletasuna
gosea eta kemena
hori da taldea berriz
abiarazi duena.
Beraz zerbait emango du
urte batzutan barrena
oraingoz ondo hartzen du
ilusioz datorrena
egitekotan ausartu
egin behar baita aurrena
ta ausartzen den guztiak
badauka gonbidapena.

Oraingo bertso-eskolak
izan zenari segida
zaleak ez daitezela
horren faltan erretira.
Berriz gogoa heldu da
noizbait egon zen tokira
berriz ere nahi diote
lehengo gurdiari tira.
Ojala fruitu berriak
hortik sortuko balira!
Asmo hortan daude behintzat
hauek aurrera begira.
Gaur notizia da soilik
baina onena hori da:
bihar-etziko *portadak*
hortik etorriko dira.

(2) *Aiurri* Andoain eta Urnietako herri aldizkaria da. 2004tik astero kaleratzen da. Buruntzaldea eta Beterriko beste herri batzuetako informazioa jasotzen du.

LEZO (2010-02-20)

Bertsolariak: B. Gaztelumendi, J. M. Irazu, S. Colina eta A. Arzallus.

Gai-emailea: Saroi Jauregi.

Lezoko Gezala aretoa bertsozalez bete zen, eta oso giro polita izan zuten bertsolariek kanturako. Lezoko bertso-eskolako ikasleek ere parte hartu zuten saioaren une batean, eta ederki jo zieten adarra lau bertsolariei.

B. Gaztelumendi-J. M. Irazu-S. Colina-A. Arzallus

Gaia: Adituen arabera, hamabost egunez behin hizkuntzaren bat galtzen omen da munduan, eta gure hizkuntza ere ez omen dago erabat salbu.

Neurria: Zortziko handia
Doinua: *Elizan sartu ziradenian I*

A. Arzallus:

Beraz Indian agonian ta
gu're berdintsu gabiltza
ihartzen doa hizkuntz ezkurrak
sortzen dituen haritza
baina nahiz eta pena haundia
dugun itzaltzea hitza
hutsa litzake bat hil aldiko
beste bat sortzen balitza!

S. Colina: Enbor beraren adar baitira
zaharra eta gaztea
hiru baldintza behar ditugu
salbatzeko *desastre*a:
lehenbiziko umeak egin
ta bigarrena heztea
ta hirugarrena hezkuntza hortan
euskeraz irakastea.

J. M. Irazu: Gurea ere ez dala salbo
horrela ikusten det nik
baino hala're zergatik gabiltz
negarrai hauspo emanik?
Lehen lerrora begiratuta
egia garbi esanik
nola pentsatu euskera ere
belaxe hil behar danik[3]?

B. Gaztelumendi: Baina bidea erakusten du
hainbeste hizkuntza hautsik
ta baldintza bat soilik daukanez
edozein hizkuntza bizik
euskeraz jarri behar da triste
pentsakor edota pozik
ez desagertzen ari delako
behar degulako baizik.

A. Arzallus: Hizkuntza bat da urteetako
harremanen eragina
ta memoria kolektibo bat
ilusioa ta mina.
Biziduna da ta geu bezela
behin sortuko zen jakina
baina pertsonak bezela ez da
gero hiltzeko egina.

(3) Gaztetxo multzo bat zegoen lehen lerroan eserita.

S. Colina: Hizkuntza bat da leiho zabal bat
mundu osoa duna zai
nahiz ta gurea apurka galtzen
dijoan garairik garai
egoerari buelta ematen
asmatu leike nolanahi
bai terrenoa galdu liteke
baina konkistatu ere bai.

J. M. Irazu: Milaka urteetan iraun duena
ez beti plaza askean
geuretik sortzen geurea emanez
ta ez besteri eskean.
Aurrera ere segiko degu
bide beretik eustean
ta arriskua etorriko da
duda egiten hastean.

B. Gaztelumendi: Baina zalantzak sortu ohi dira
kontra badago haizea
bi haundi izan ondoan eta
zail da txikira biltzea.
Bi astetik behin gertatzen bada
hizkuntza baten hiltzea
soluzio bat bakarra dago:
egunero erabiltzea.

A. Arzallus: Eta hara zer gauza dituen
betiko erabilerak:
orain *kutreak* ta *guaiak* dira
lehen laiotz ta eguterak.
Nahiz batzuk esan gorde beharko
direla lehengo manerak
egunero hilez eta berpiztuz
bizi behar du euskerak.

S. Colina: Lehen piztu eta itzali zena
orain dira *off* eta *on*.
Halan ta guztiz lehengoai egin
behar diogu jaramon.
Egun batean sentitzekotan
euskera bete zorion
Patxi Lopezek noiz ikasiko
ezin gintezke zai egon.

J. M. Irazu: Iturgaitzek'e ikasi zuen
nahiko estu eta larri
Patxi Lopez'e gure sailera
beharko da erakarri.
Bertsoak behintzat eutsiko dio
arimaren zati horri.
Inoiz erderaz hasten bagera
ez entzutera etorri.

B. Gaztelumendi: Ikastoletan ikasten dena
bakarrik ez da euskera
euskera baita egiten dena
tabernan belarri ertzera.
Hizkera aldatu arren luzatu
dezagun erabilera
gu elkartzeko gai izan dadin
hemendik ehun urtera.

USURBIL (2010-02-21)

Bertsolariak: A. Agirreazaldegi, A. Arzallus, A. Egaña eta M. Amuriza.

Gai-emailea: Inaxio Usarralde.

Gauean izan zen, eta kultur etxeko Sutegi aretoa erabat bete zen bertsolariak entzuteko; guztira, ehun eta berrogeita hamarren bat lagun.

A. Agirreazaldegi, A. Arzallus, A. Egaña, M. Amuriza

Gaia: Duela urtebete jarri zuten martxan Usurbilen atez ateko zabor-bilketa sistema, errausketari aurre egite aldera. Urtebete igaro da, eta datorren igandean horren gaineko herri galdeketa egingo da, sistema honekin jarraitu edo lehengora bueltatu erabakitzeko. Kanpotik nola ikusi gaituzue usurbildarrok?

Neurria: Zortziko handia
Doinua: *Zazpi ahizparen gai den oihala*

A. Agirreazaldegi: Behar zenituzten azterketak
ondo eginikan aurrez
ipinitako espektatibak
gaindituak dira errez
kanpotarrontzat eredugarri
izan da Usurbil berez
zeuentzako nahi ez duzuena
Zubietantzat ere ez.

A. Arzallus: Gaur urtebete beiratzen nuen
nik ezjakintasun haundiz
behin martxan jarri zenutenean
umorez eta pikardiz
lehen datuak entzundakoan
harrotasun finez, egiz
ta urtebete pasa ta gero
begiratzen det inbidiz.

A. Egaña: Nik pentsatzen det zuen sistema
urrats bat dala nabarmen
ta herri kontsulta bigarrengoa
lehenengoaren ondoren.
Nik teknikoki ezer ez dakit
garbi aitortzen det hemen.
Hala're senak erakusten dit
arrazoia zeinek duen.

M. Amuriza: Herri kontsultan aztertu behar
litzake ondo atzea
bazter batean jarri beharko
duzue orain gurutzea.
Galdetu gabe nahi duten hoiei
erraustegia jartzea
ez litzaieke gaizki etorriko
ideiak birziklatzea.

A. Agirreazaldegi: Etxez etxeko bilketa beraz
arrakastatsu da jada
geure buruan erantzuleak
izan'e geroni gara.
Kontsultan hori ateratzea
nik hala nahi nuke hara
urrats on oro zabaltzen baita
inguruko herritara.

A. Arzallus: Ea gerora ere zabaltzen den
zabaldu den gisan aurten
bizitza ez baita gurea soilik
baizik geroko iraupen
ta gu ohituta gaudenak oso
gora ezetz erantzuten
eskerrik asko erakustearren
ze mundu nahiko genukeen.

A. Egaña: Atez ateko sistemarekin
joan dan urtean barrena
baina badakit beste iritzi
desberdinen bat badena.
Holakoetan herri kontsulta
irtenbide zintzoena
agintariek gai askorekin
egin behar luketena.

M. Amuriza: Herri kontsulta gai guztietan
egiterik gaur balego
gauzak horrela egon beharra
ezin genuke espero.
Zaborra bildu gura duzue
egunero-egunero
edozein gauza konpontzen baita
garbi jokatu ezkero.

A. Agirreazaldegi-A. Egaña ♫

Gaia: Berriro ere ilusioa piztu da Euskal Herrian. Kanpora eta kanpokoei hainbeste begira egon gabe, oraingoan bai, asmatuko al dugu?

Neurria: Zortzikoa, handiaren moldekoa, 4 puntuz
Doinua: *Sorlekua utziz geroz*

A. Egaña:

Zenbaitentzat berria da
beste zenbaitentzat zaharra
batzuntzat hala besteentzat
ez liteke izan txarra.
Nahiz *agorero* eta ezkorrak
hor dabiltzan barra-barra
gu euskaldunoi esperantza da
geratzen zaigun indarra.

A. Agirreazaldegi:

Egizkoa izango den
sekula ez da jakiten
esperantzaren indarra
borborka dut irakiten
seguru nago gaitezkeela
zulo honetatik irten
asmatu ezkero kanpoko gezi
zorrotzei ez kasu egiten.

A. Egaña:

Gezi tiratzaile hoiek
suma genitzake estu
euskal gizartea bada
horren heldu horren prestu.
Etorkizuna orain jarri da
gizarte zibilan esku
nere iritziz prozesu honek
atzera bueltarik ez du.

A. Agirreazaldegi: Saiakera bat, bi, hiru
eta laugarrena bueltan
baina eroso ez al gaude
gu azken hamarkadetan
etxean edo antzokietan
eserita *silloi*etan?
Herriko plazan bildu beharko da
igande arratsaldeetan.

A. Egaña: Eta gizartea ehundu
bileratikan harago
elkarrekin egin hainbat
lan, festagune ta trago
burua beti amets eginez
baina lurrean bi zango.
Gu oso baikor ai gera baina
errexa ez da izango.

A. Agirreazaldegi: "Konponbidea nahi dugu"
nahiz maiz hala egin hitza
krisian ikusten ditut
gizartea, herrigintza.
Zai egon gabe geuk egitea
hori da lehen premisa
herri bat izan nahi baldin badeu
joka'zagun herri gisa.

GERNIKA (2010-02-28)

Bertsolariak: U. Iturriaga, S. Colina, A. Sarriegi, A. Arzallus, J. Maia eta A. Mendiluze.

Gai-emailea: Josu Goikoetxea.

*Busturialdeko Hitza*ren alde antolaturiko jaialdia. Gernikako Jai Alai pilotalekuan izan zen, igande arratsaldean. Bostehun entzuletik gora elkartu ziren, eta saio polita atera zen.

U. Iturriaga-S. Colina ♫

Gaia: Azaleko berbetatik harago joan behar duzuen gai horietako bat da hau. Zu, Unai, izango zara Euskal Herriko negua, luzaroan bizi izan dugun negua, eta zu, Sustrai, izango zara ate-joka dabilen udaberria. Baina kontuz! Harroegi ikusten duzu udaberria.

Neurria: Zortziko handia
Doinua: *Haurtxo txikia negarrez dago I*

U. Iturriaga:
Negu haundirik baldin badago
neu naz handia handitan
geratzeko etorri izan naz
ez naz etorten bisitan.
Zure poz hori azaldu aurretik
pentsatu eizu birritan
lehen be negutik udazkenera
pasatu gara sarritan.

S. Colina: Egia da bai negu gorria
izan da azken bolada
baina hegotik soma nezake
epeldu gaitun ufada.
Zu irenstera nator negua
lehoi bat banintz gisara
oraingoan bai pasako gara
udaberritik udara.

U. Iturriaga: Ai udabarri ez ete zagoz
*realidade*tik kanpo?
Negu hotz honi ezingo jako
gainetik erraz ein salto.
Gainera lagun pilo bat dodaz
hemen ta hemendik kanpo
hemen negua dan bitartean
Madrilen uda dalako.

S. Colina: Baina Madrilen ez dago ezer
ez dago esan beharrik
hemen klima aldaketa dator
badator aro ederrik.
Gaurtik aurrera ez du egingo
ez izotzik ez elurrik
momentu hontan hoztu gaitzake
goizeko ihintzak bakarrik.

U. Iturriaga: Udaberria beti ei dabil
poesiarantza jotzen
gero martxoa heldu ta urtero
izaten da beti motzen.
Neguak hemen dau bizileku
etxekoen zein arrotzen
zuk *txiribita* asko buruan
baina ez dozu berotzen.

S. Colina: Nahiz badakidan diztira duen
oro ez dugula urre
ene negua udaberriaz
ez zaite jarri haserre.
Denon artean landu dezagun
daukaguna aurrez aurre
eta San Juanek esango dute
nor berotu ta zer erre.

S. Colina

Gaia: Kolore ezberdinetako lauki txikiz osatutako kubo bat eman dio Josu Goikoetxeak Sustrairi, Kubrick-en kubo bat, alegia, eta "Horrela hartu genuen mundua" esan dio, kolore bereko laukiak elkarren ondoan jarrita; baina gero dena nahastu du, eta "Horrela utzi dugu mundua" azaldu dio[4].

Neurria: Hamarreko handia
Doinua: *Hil da Canovas fuera Canovas*

Minutu baten egin liteke
mendeetako balantzea
gutxi batzuen zoriona ta
gehiengoaren trantzea.
Zer da mundua ez baldin bada
zulo gainean partxea?
Nahastu dituzte ezker-eskubi
aurrea eta atzea
batzuentzako jolasa baita
mundua gobernatzea.

Ta Etxe Zurian ebazten dute
noiz hasi eta noiz buka
zer izango den berezia ta
zer izango den arrunta
nun egingo den pake bidea
nun gerra ta nun burruka
nun debekatu erretzea ta
nun debekatu zurruta
ta bitartean gu beti erdian
ta beti harrapatuta.

Nahasmen hontatik salbatzen dira
hitza eta maitasuna
botereari aurre egiteko
gizakion gaitasuna.
Horrela nahasten segi ezkero
beltza da etorkizuna
ordea ez du ez zertan izan
dena gris dena lizuna
aberasgarri izan liteke
kolore aniztasuna.

(4) Kuboa eskuetan kantatu zuen Colinak.

IGORRE (2010-03-19)

Bertsolariak: A. Arzallus, On. Enbeita, S. Colina, U. Iturriaga, A. Egaña eta J. Maia.

Gai-emailea: Iñaki Iturriotz.

Arratiako bertso-eskolak utero antolatzen duen jaialdia. Arratsaldeko zazpietan izan zen, laurehunen bat lagun entzuten zirela.

On. Enbeita-U. Iturriaga ♫

Gaia: Igorreko kanta batek honela dio: "Aramotzetik Garamendira/ tximista baten antzean/ miru zurie hegazka doa /oilandatsuen atzean". Onintza, horrelaxe ibiltzen zen Unai ere garai batean zure atzetik.

Neurria: Lauko handia
Doinua: *Aramotzetik Garamendira*

On. Enbeita: Ene atzetik ibili ei zinen
ene Unaitsu parkatu!
Ez dakit zelan ez nintzen hortaz
sekula be konturatu.

U. Iturriaga: Aramotzetik Garamendira
tximista baten antzean
ta oin bakarrik geratzen jate
erreturie atzean.

On. Enbeita: Baina zu zelan ibilten zinen
ai Unai nere atzean!
Mosu askorik ezin da hartu
aurrean parau ezean.

U. Iturriaga: Zu beranduko proposamenak
egiten zabiz gaur hemen
onartu egin behar dot Onintza
orduan itsu nengoen.

On. Enbeita: Bueno baina igual gaur be berriro
biok itsutuko gara
saio ostean uste dot danak
doazela Hendaiara[5].

U. Iturriaga: Pasatakoak berreskuratu
guran zabiz Iturriaga
Aramotzetik Garamendira
joan ta bueltetan bazara.

On. Enbeita: Bizitzak buelta asko emoten dauz
ta eskean neu azkenean
igual zeozer egin geinke gaur
sasoi zaharren izenean.

U. Iturriaga: Sasoi zaharra da joan dalako
ezer ez da betikoa.
Belaunikatu ta kantaudazu
Maritxu iturrikoa.

On. Enbeita: Ez hainbeste ez baina bai igual
niri dana parkatzeko
zikinkeri bat egingo deutsut
zure *kana* bakotxeko.

U. Iturriaga: Proposamenak harrapatu nau
hori izan da zartada
kana bakotxa zikinkeri bat
kriston txarrikeria da.

---

(5) Saioko beste lau bertsolariek Igorreko bertso saioaren ondoren egun horretan bertan beste saio bat zuten Hendaian.

On. Enbeita: Leku berera joan nahi neban
baina nik metaforagaz
zeuk pe zeozer esan nahi zendun
belauniko jartzeagaz.

U. Iturriaga: Metaforarik ez zegoan hor
ta ez saiatu alferrik
Onintza trenak pasetan dira
bizitzan baten bakarrik.

On. Enbeita: Baina herri hau Unai sekula
ez danez izan ohikoa
beste trentxo bat omen jatorku
abiadura handikoa.

U. Iturriaga: Gura dozuna da esperantza
berreskuratu barriro
niri gehiago gustatu izan jat
beti astiro-astiro.

On. Enbeita: Bueno astiro hasiko gara
ta martxan-martxan pentsatu
eta azkenean egingo dozu
lehengo guztia gaur ahaztu.

U. Iturriaga: Gurea hemen amaituko da
modu hontan azkenean
ilobei kontau behar deutsezu
amamatxo zarenean.

LESAKA (2010-03-20)

Nafarroako txapeldunaren agurra

J. Soto

Neurria: Bederatzikoa, handiaren moldekoa, 5 puntuz
Doinua: *Saltarina da txepetxa eta*

Maite nautenen baimenarekin
nere txapela berari
garapenaren aroan sarri
mespretxatu izan denari
euskal kultura benetan zer den
erakutsi didanari
bertsolaritza eguneroko
jaki izan duenari
euskal baserritarrari.

TOLOSA (2010-03-28)

Bertsolariak: U. Alberdi, A. Arzallus, S. Colina, A. Egaña, U. Iturriaga, J. Maia, A. Mendiluze eta A. Sarriegi.

Gai-emailea: Amaia Agirre.

Tolosaldea Saharrarekin gobernuz kanpoko erakundeak azken urteotan urtero antolatzen duen jaialdia. Beotibar pilotalekuan izan zen, arratsaldeko seietan. Entzule asko bildu zen, eta saio polita atera zen.

A. Egaña-J. Maia-U. Iturriaga-A. Mendiluze

Gaia: Saharara janaria, arropa, eskolarako materiala eta osasun laguntza bidaltzen da Euskal Herritik ere. Saharako haurrak etxean hartzeko aukera dugu urtero. Zuek inoiz bidali al duzue ezer? Umerik hartu al duzue etxean? Zuen elkartasuna noraino iritsi da? Barru-barrutik kantatzeko eskatuko dizuet.

Neurria: Zortziko handia
Doinua: *Haurtxo txikia negarrez dago I*

U. Iturriaga: Eskatzen duzu ez eukitzeko
gehiago ahobizarrik
elkartasuna laino bat baita
izaten bada alperrik.
Nik neureak onartuko ditut
inoiz ez dut hartu haurrik
bidali ditut hiru-lau bertso
ta janaria bakarrik.

A. Egaña: Etxetik kanpo ikusten baitet
sarritan nere burua
haur saharar bat ekartze hori
ez zen nere helburua
maratoian'e ez det sufritu
dunetako apurua
baina gutxinez irakurri det
Bikilaren liburua.

A. Mendiluze: Supermerkatu bateko kaxan
zeozer utziko nuen
izena ere eskeini izan det
izana loturik omen
bertsoak ere beraien alde
adibidea gaur hemen
baina sekula ez det asmatu
hori asko edo gutxi den.

J. Maia: Zer ginateke gu gizakiok
horrela pentsatu ezik?
Hamaika aldiz kantatu izan det
gainera kantatu pozik.
Nahiz ez dakidan bidali dudan
inoiz Saharara gauzik
elkartasuna ez da keinu bat
bizi jarrera bat baizik.

U. Iturriaga: Nigatik ez da asko gizendu
saharatarren kolkoa
beste batzuk bai bi kamioi bialdu
eta dantzatu mokoa
alde batean negozioak
gero garbantzo potoa...
Nik salatzen dut sozialisten
aurpegi biko jokoa.

A. Egaña: Saharar haur bat ezagutu nun
nik Zarauzko ikastolan
gure semean lagun egin zen
sortzen ziguten nahiko lan
Sidi joan zen ez dakit dagon
kanpamentuan, kartzelan...
Bere argazkirik ez da faltako
gure semean logelan.

A. Mendiluze: Zer eman degun zer egin degun
zertan zerrenda segidan?
Nik ere haur bat, Halihena, det
nere gogoaren jiran
ikasle ona nuen eskolan
baina gutxina hori han.
Nola azaldu zer eman nion
ta berak zer eman zidan?

J. Maia: Euskal herritarra naizelako
hurbil dakusat Sahara
begiratzen det *zapatismo*ra
begira Palestinara
begiratzen det Irlandara ta
begiratzen det Kubara
gurean alde begiratuta
haien alde jartzen gara.

A. Egaña-A. Mendiluze ♫

Gaia: Bi emakume zarete, bi ama. Zuen semeak Parisko kartzela batean preso dauzkazue. Hendaiako tren geltokian egin duzue topo gaur ere. Hilero bezala gauez egingo duzue bidaia. Hamar ordu trenean. Ordubeteko bisita egin eta atzera beste hamar ordu. Zu, Aitor, etsitzen hasita zaude, nekatzen hasita, urte asko dira. Eta Andonik hala esan dizu: "Zoriontasuna ez da nahi dugun guztia egitea. Egiten dugun guztia nahi izatea baizik".

Neurria: Zortziko handia
Doinua: *Goizean goizik jeiki ninduzun I*

A. Mendiluze: Aspaldi hontan triste bizi naiz
ez naiz alegratzeko gai
astero-astero trena ta Paris
ditudalako nere zai.
Egiten dena nahi izatea
zoriona hori da bai
hori da koxka nik ez dudala
beti bidai hau egin nahi.

A. Egaña: Neretzat ere lehen bisita
iritsi zen ezustean
semea preso eta gainera
urrunean erbestean.
Emakumea kopeta hori
alai zazu tupustean!
Gure semeek etsiko dute
gu etsita ikustean.

A. Mendiluze: Baina semeak nahi genituzke
animoz eta adorez
ni horregatik joaten natzaio
nere sentipenak gordez
irrifar batez sartzen naiz beti
egia azaldu ordez
ta bueltan beti duda bat dakart:
konturatu den edo ez.

A. Egaña: Segi zaiogun hilabetero
egiten dugun planari!
Ez ote gera sentimentutan
triste gabiltzan ama bi?
Zigor gisara ez zazu hartu
hau ez al da nahiko sari?
Beste bide bat zabaldu zaio
gure amatasunari.

A. Mendiluze: Beste bide bat beste bi bide
sei, zortzi, hamar, hamalau...
baina tartean nere semeak
Parisko kartzelan dirau.
Bisitan noa maite det eta
ta mundu *raro*a da hau:
ni noa bera animatzera
ta berak animatzen nau.

A. Egaña: Alde bietan behar indarra
alperrik goaz bestela.
Hara iluntzen hasi du eta
hara lehenengo tunela!
Etzan pixka bat lokartu zaitez
nahiz bagoia den logela
eta ametsak egin itzazu
gure semeek bezela.

A. Mendiluze: Beti egiten det amets bat baina
ez det ikusten betea
zuri berdina gertatze al zaizu
ai bidaikide maitea?
Horrela bada nik behar nuen
justu hori esatea.
Mila esker eta barka tarteka
hain ahula izatea.

A. Egaña: Ahulaldia da guztion dohai
ta ez zaitez zu aztora
semeagatik egin behar dena
egiten dut ta gustora.
Zureak hogei urte kondena
nereak hogeitik gora
gu duda-mudan hasi ezkero
seguru nor egongo da?

U. Alberdi ♫

Gaia: Aurreko batean, telebistan, *Bi Errepidean* programan, saharar emakume bat ikusi genuen hizketan gizonezkoen futbol talde bat entrenatzen, eta galdera bati hala erantzun zion: "Hemen gizon-emakumeak parekoak gara. Niri ez zait batere kostatzen gizonezkoei aginduak ematea". Gizonezko askok han denbora asko igarotzen dute kanpoan, eta emakumeak dira kanpamentuak eta eguneroko bizitza aurrera ateratzen dutenak. Ia dena emakumeak egiten du han. Uxue, Saharako emakume baten etorkizunak zer doinu, zer usain, zer kolore duela iruditzen zaizu?

Neurria: Hamarreko handia
Doinua: *Gure aurreko guraso zaharrak*

Nere begiak bidaia baten
bidaliz hemendik hara
“Pareko gara” entzute hutsak
nahiz egiten didan traba
“Pareko gara” entzuteakin
nola aspertu naizen jada
nahiz atzamarra zuzentzen dugun
gu hemen libre al gara?
Gure kartzela *transparente*a
izan arren kartzela da.

Baina halere sinetsi nahi dut
guztion mundu berrian
nahiz ta askotan galdera pila
lotu nire eztarrian
nik sinisten dut Sahara aldeko
emakumeen irrian
berdin Saharan basamortuan
ta berdin Euskal Herrian
bi koloretan sinetsi nahi dut
morean eta gorrian.

Patriarkatua zabala da-ta
sakona bezain zorrotza
baina kartzela apur dezakeen
arma ona da bihotza.
Belarritara maiz iritsi zait
emakume haien hotsa
irrintzietan nahasten dira
mina, indarra ta poza.
Irrintzi haiek gureei batuz
altxa dezagun ahotsa.

ZUMAIA (2010-04-09)

Bertsolariak: J. Maia, M. Lujanbio, A. Arzallus, A. Egaña, M. Amuriza eta J. Soto.

Gai-emailea: Unai Elizasu.

San Telmo jaien hasieran egin ohi duten bertso-saioa. Aita Mari zineman izan zen, gaueko hamar eta erdietan. Aretoa beterik eta giro polita.

A. Egaña-M. Amuriza ♫

Gaia: Lan zail bat eman behar dizuet, eta doinua ere proposatu behar dizuet: "Itsaso hori dago zatarra / nire oihua eta negarra / untzi bat horra nun azaltzen den/ nik behar nuen izarra" . Ez zarete marinelak, ez zaudete itsasoan, baina zein da zuek behar edo nahi duzuen izar hori?

Neurria: Hamaikakoa, handiaren moldekoa, 8 puntuz
Doinua: *Itsaso hori dago zatarra*

A. Egaña:

Ze gizajoa ta ze pastela
erdi beldurti erdi ustela
nere izarra saiatu arren
ez nuen aurkitu bela! (bis)
Galdutako marinela
nenbilelarik horrela
aurkitu nuen batela
gogoratzen naiz Errege Egunez
hogei urte nituela
ba al dakizu nere izarra
zure aita izan zela. (bis)

M. Amuriza: Andoni hori da hain pozgarria
ta beraz tori nere irria
baina badago beste kontu bat
gaur egun aipagarria: (bis)
dauka osasun larria
ta nahiz ez izan barria
halaxe doa herria
beraz badakit nolakoa den
astro horren jatorria
zeruan aske eta dirdiraz
dagoen izar gorria. (bis)

A. Egaña: Zure izarra zure desira
izar gorriak duen dizdira
oker ez banaiz bost punta ditu
zenbatu ezkero guztira. (bis)
Gaztea zarenez tira
hala bota dezu di-da
baina bizitzan satira:
zure adinean ni ere negon
izar horrixe begira
baina adinez bat zahartu ahala
laino asko sortzen dira. (bis)

M. Amuriza: Ez zara hori duen bakarra
lainoa, kea eta abarra.
Neurtu behar da bizitzan zehar
lortu beharreko indarra. (bis)
Eguzkia, kazkabarra
ta elurra barra-barra
datoz baina ez da txarra
hemen norberak aukeratzen du
loratzen duen adarra.
Laino horiei putz egin eta
piztu dezagun izarra! (bis)

A. Egaña: Beraz zerua nahi dezun pare
hodeiak ihes umil ta bare
gaztetasunan utopiaren
ondorioa da hau're. (bis)
Lehen denak zeraren alde
gizabanako ta talde
eskakeatu ta alde.
Garai bateko belaunaldiko
gizon-andereak gaude
nekaturikan putz egiteko
ia arnasikan gabe. (bis)

M. Amuriza: Baina egin behar didazu kasu
nahiz eta dauden hainbeste kasu
urteen joanak egiten dula
horrenbeste enbarazu (bis)
denok goaz pausuz pausu
orain kolpe orain muxu
neu ere hementxe naukazu
eta zurekin batera aurrera
putz egin nahi nuke usu
utzi puruak erretzeari
eta ikusiko duzu! (bis)

A. Egaña: Zuk zer esango egon naiz adi
zure burmuina ez dabil nagi
hala're ez zazu potolokeri
haundiegirikan jalgi. (bis)
Sentimentu fin bat hari
lehen iraultza kantari
orain gehienek "Tarari!"
ondo bizitzen ohitzea baita
etsipenaren atari.
Neri sinisten ez badidazu
galdetu zeure aitari
nere lehen izarrari.

M. Amuriza: Zuk ez daukazu aita ahantzia
ta bai badauka hark garrantzia
nik miresten dut zuen bidea
ta zuen elegantzia (bis)
zuen hizkuntza jantzia
ta ibilbide ez hertsia:
bidea ez dago itxia.
Lortu nahi bada gure izarra
eta independentzi
ez daude sobran ez gure indarra
ta ez zuen esperientzia. (bis)

J. Soto-M. Amuriza ♫

Gaia: San Telmotan geratu zarete biok, parrandan; eta badakizue halako gauak nola izaten diren: zerbeza bat, bi, hiru, lau... Hasieran bi metrora eta gero bi zentimetrora bukatu duzue, hondarretan etzan, elkar besarkatu, goxo-goxo; beno, goxo-goxo ez, Julio ohartu baita, bere garaiera dela-eta, behatz puntak bustitzen ari zaizkiola. Marea igotzen ari da, baina ez dio Mireni ezer esan nahi, bestela...

Neurria: Zortziko txikia
Doinua: *Kantatzera nijoa*

J. Soto: Badut berotik eta
badaukat gogotik
egoera hau amesten
nuen lehenagotik.
Goazen pixka-pixka bat
atzera hemendik
ilargia hobeto
ikusten da hortik. (bis)

M. Amuriza: Ilargia ikusten da
dirdiraz beteta
baina egin dezagun
beherantzako buelta
bertso-saioan ere
gertatu da eta
ni izango naiz naufrago
ta zu koltxoneta[6]. (bis)

J. Soto: Koltxoneta *pintxatu*
egin zen tamalez
txinar kalitatea
exkaxa da berez
busti gaitezen Miren
pixka bat mesedez
ta ahal badin bada ez
itsasoko urez. (bis)

M. Amuriza: Pixkat freskatzen hasi
gintezke nigatik
baina horren errexa
ez dela badakit
umeltasun bat dator
gerri ingurutik
baina uste dut ez dela
olatuengatik. (bis)

J. Soto: Busti zaizu kanpoa
ta busti barrena
zure sexu gosea
ez baita herrena
"Ez ez olatua ez"
esaten duena
olatu onena da
maitasunarena. (bis)

(6) Aurreko bertsoaldiari egiten dio aipamena. Egañak eta Amurizak naufragoaren doinuan egin zuten.

M. Amuriza: Olatuek ez dute
gaur falta indarrik
eta hara non gauden
zu ta ni bakarrik
tira jantzi ezazu
atera barnetik
Nafarroako txapeldun
ez zara alperrik! (bis)

J. Soto: Ahaztu zazu bertsoa
ta ahaztu txapela
deskonzentratu egin
behar naiz bestela.
Oinak ukitu dizkit
amestu bezela
baina uste dut behatzez
nahastu zarela. (bis)

M. Amuriza: Behatzen bila hasi
ta aurkitu makila
alper-alperrik egin
dugu kontu pila.
Ene! Presaka nabil
adio mutila
aita bost minutuan
dator nire bila. (bis)

ZEGAMA (2010-04-11)

Bertsolariak: U. Iturriaga, A. Mendiluze, A. Egaña, A. Arzallus, I. Zubeldia, A. Sarriegi, S. Colina eta M. Lujanbio.

Gai-emailea: Unai Elizasu.

Aspaldidanik antolatzen dute Zegaman bertso-jaialdia, azken urteotan erlezainen egunaren barnean egiten dutena. Pilotalekuan izan zen, arratsaldeko sei eta erdietan.

A. Egaña-U. Iturriaga ♫

Gaia: Bikotea zarete. Logelan zaudete biok, eta sumatu duzue erle bat dabilela bueltaka. Ez diozue kasu handirik egin, baina esnatu zaretenean, Unai ziztadaz beterik dago, eta Andonik ez du bat bera ere.

Neurria: Zortziko txikia
Doinua: *Dama gazte xarmant bat*

A. Egaña: Erle horrek hartu du
bere gozatua
eztena ai *kariño*!
zuri luzatua
neregandikan neukan
errex uxatua
ez zun bukatu nahiko
alkoholizatua. (bis)

U. Iturriaga: Ba nirekin aritu
da behintzat gogotik
orain ez zaidazu heldu
hain gogor lepotik
ta ez eztena jarri
ondotik albotik
ze beste erleren bat
badabil ba hortik. (bis)

A. Egaña: Nik lehendik neukan maila
ezin det mantendu
hainbeste *lubrikante*
hainbeste ukendu!
Erlea ordezko det
nahi det nabarmendu
nik ezin dedan hori
berak egiten du. (bis)

U. Iturriaga: Beraz erle hori da
ai zure laguna
nor ta ni izorratzeko
bidali duzuna.
Nahiz ta zaztadak eman
zeukan maitasuna
eta gainera ez zan
zu bezain astuna. (bis)

A. Egaña: Gainera eskertzen det
bere eginahala
zerbitu egin zaitu
nola edo hala
erlea portatu da
behar zen bezala
nik beti esan dizut
lore bat zerala. (bis)

U. Iturriaga: Ta orain horren goxo
halako berbakin
hori entzun ta nire
odolak irakin
ni lore bat nintzela
banekien jakin
eta haundi hazi naiz
zure ximaurrakin. (bis)

A. Egaña: Ez izan horren asto
ez izan hain kirten!
Zu bero omen zaude
ba ni irakiten
formula lehengoa da
sartu eta irten
saiatuko al gera
eztia egiten? (bis)

U. Iturriaga: Begira nik ez dizut
ez desio txarrik
baina aspaldi naukazu
gogaitu xamarrik.
Bi eztia egiten
gabiltza alperrik
kapaza zara eta
egizu bakarrik! (bis)

MENDEXA (2010-04-17)

Bertsolariak: J. Uria, I. Zubeldia, A. Mendiluze, S. Colina, A. Arzallus eta M. Lujanbio.

Gai-emailea: Asier Txakartegi.

S. Colina-J. Uria

Gaia: Andre-gizonak zarete. Zuen semea ez da itzuli etxera, eskolatik irten eta gero. Gau guztia lo egin barik pasatu duzue. Arratsaldean aurkitu dute, borda batean gaua pasatuta. Umea ondo dago, baina gaua heldu da, ohean sartu zarete, baina ezin duzue lorik egin.

Neurria: Zortziko handia
Doinua: *Elizan sartu ziradenian I*

S. Colina: Hamaikak jota ohera sartu
eguneroko bezela
hurrengo goiza nahi ordurako
iristen zaigu bestela.
Laztana ezin dut begirik bildu
malkoz eta mela-mela
seguru nago alde egin badu
nere kulpa izan dela.

J. Uria: Alde egin zuen ta ibili zen
beste etxeetan bitarte
zorionean ez zuen jaso
hark ez min eta ez kalte.
Zure errua dela eta ez dela
esaten zabiltz jo ta ke
zure burua ez jo erruduntzat
berak ezer esan arte.

S. Colina: Barka laztana baina ez daukat
zertan utzi ardurarik
Neure errua izan da dena
hortan ez daukat dudarik.
Agian zerbait esango digu
sinisten duzu jadanik
ze pasako da ez baldin badu
esateko konfiantzarik?

J. Uria: Orain artean sentitu gara
gure neurrian errudun
gaua pasatu zuen bakarrik
hotz, triste ta horren ilun.
Konfiantzarik ez ote duen
galdezka zabiltza lagun
baina ez dakit guk galdetzeko
konfiantzarik daukagun.

S. Colina: Neronek behintzat ez dut izango
hori eskatzeko gibela!
Zuk badakizu harremanean
betitik motza naizela.
Bere gelara noa korrika
ia tximista bezela
konprobatu nahi bainuke bertan
lotan goxo ari dela.

J. Uria: Bai joan zaitez ta arakatu
goitik beheraino logela
gure semea galtzeko dugu
eta arrisku itzela.
Ekar ezazu gure ohera
ta jar gaitezen horrela
txikitan lo egin ezin zuenean
egiten genuen bezela.

MALLABIA (2010-04-18)

Bertsolariak: M. Lujanbio, M. Amuriza, B. Ugartetxea, A. Egaña, J. Agirre eta A. Arzallus.

Gai-emailea: Asier Ibaibarriaga.

Mallabiko Orreattio Euskara Elkarteak, udaberrian, urtero antolatzen duen jaialdia. Arratsaldean izan zen, pilotalekuan, eta harmailak ia bete egin ziren.

J. Agirre-B. Ugartetxea ♫

Gaia: Zuk, Joxe, aspaldiko uste bat badaukazu, adinean aurrera zoaz, eta zure baserria zeinek hartu. Seme bakarra daukazu, Beñat, eta honek baserria hartu ordez, landetxea edo landa turismoa egin nahi du zuen baserrian.

Neurria: Zortziko handia
Doinua: *Uso zuri bat inguratu zait*

J. Agirre:
Pentsatzen nuen gure etxea
zela pikotara juna
gauza horrekin sentitzen nuen
holako estuasuna.
Beraz orain zu azaldu zera
zerbait egin nahi dezuna
ia ba hortik eskuratzen dan
biontzat etorkizuna.

B. Ugartetxea: Aita mesedez nere esanei
jarri eiezu arreta!
Ideia oso bikaina daukat
neure barruan gordeta:
hau landetxe bat bihurtu behar dut
kamarerekin beteta
zure semiak zerorrek baino
herren gehiago du-eta!

J. Agirre: Beraz etxean bi kojo gaude
jaunak hau da komeria!
Baina semeak jarri nahi luke
oso martxa dotoria
kamarerak'e hartu nahi ditu
hartu nahi kategoria
haiei begira gastauko zaio
semeari memoria.

B. Ugartetxea: Pasatuko da neska gaztiei
begiratzeko bolada
eta seguru golpeik jo gabe
diru mordoa atara.
Dena ez da ona ez da erreza
fallo bat badauka hara:
aita erderaz apur bat behintzat
ikasten hasi behar zara.

J. Agirre: Lehenago ikasi ez dedanean
orain ez dut ikasiko
baina dirua irabaztea
hori biontzat graziko.
Kamarerari xirri egiten
aitona ez da hasiko
baina pixka bat begiratzia
ez dezu galeraziko.

B. Ugartetxea: Zuk begiekin kamarereri
egin nahi diezu segira
ta zure irriz helduko dira
seguruenik ilargira
baina asuntoa ondo joan dadin
badaukat bere *mobida*:
aste barruan be domeketako
erropak jantzi behar dira.

J. Agirre: Beraz aurretik eman didazu
nei nola ibili nota
narrats xamarra ote naizen ni
al naukazu begiz jota?
Nahi dezun bide klasea hartu
ez dizut egingo kontra
zerbait asmatu beharra dago
krisis gogorra dago-ta!

B. Ugartetxea: Bide erraza izango da hau
diru pixka bat lortzeko
baldin izaten bazara aita
semearen esaneko
ondo joan dadin trukotxo batzuk
baititu honek tarteko
koloni pixkat bota beharko da
simaur usaina kentzeko.

A. Arzallus ♫

Gaia: Jakin nahiko nuke zer dabilkizun orain esku artean; zertan zabiltza?

Neurria: Hamarreko handia
Doinua: *Gure aurreko guraso zaharrak*

Lehen egunkari ta kazetetan
ibilia izkribatzen
telebistan'e esperientzi bat
auto txuri bat gidatzen
"Eta orain Amets zer egiten duk
ez duanean kantatzen?"
esku artean aspaldi ez zait
gauza haundirik pilatzen
nunbait galdu nun eta hor nabil
neure burua bilatzen.

Joxe bezela ni zortzietan
esnatzen naiz gehienean
ohea egin eta jantziak
lotu ohiaren gainean
etxea ere ondo txukundu
ardura bat azkenean
ta bazkaria prest izaten dut
Olatz iristen denean
etxea dena jasota eta
burua desordenean.

Eta halaxe dijoa nere
denbora egun eta gau
lanean zertan pasa orduak
egunean bi, hiru, lau...
Lasaitasuna badut pixka bat
horixe dut bizi arau
asteburutan nola umorez
behar izaten den kantau
lan haundirikan ez det egingo
berak bilatzen ez banau.

LEIOA (2010-04-21)

Bertsolariak: A. Arzallus, B. Gaztelumendi, A. Egaña, X. Paya eta M. Lujanbio.

Gai-emailea: Joxerra Garzia.

EHUk Leioan duen campuseko areto nagusian izan zen, eguerdian. Arte Ederretako ikasleek prestatu zuten oholtza, eta aretoa bete egin zen bertsolariak entzuteko.

X. Paya ♫

Gaia: Entzuna diat, baina ez zakiat egia den: Xabi Payak izan dezakeen etsai bakarra Xabi Paya da.

Neurria: Zortziko handia
Doinua: *Donostiako hiru damatxo III / Bertso berriak jartzera noa*

"Xabi Payaren etsai da Xabi"
a zelako debatea!
Zein erraza den besten *pelo*tik
halakoak esatea!
Nik ezberdina izan nahi nuke
baina hor dator kaltea
beti ezinezkoa delako
beste norbait izatea.

Ta zergatik ez beste norbaiten
izaera nik atxiki?
Egin dezadan Xabi handia
bertsoz bertso mila zati[7].
Baina horrela ezin dut izan
antzezle eta basati
ni handiegia naiz ta ezin
neike izan Lazkao Txiki.

Bale orduan hartu dezadan
nire biziko erronka
bada gizon bat hain basatia
bertsoan sortzen du *bronka*[8].
Baina hor ere ez nago eroso
beti ez naiz Mañukorta
nahiz zuen barrea eragiteko
ez zaidan asko inporta.

Izan ninteke Lizaso edo
bestela Lopategi Jon[9]
mila pertsona dauzkat barruan
eta geldi ezin egon
baina Xabier Fidel Paya naiz
egin dizut lehen jaramon.
Nahi nauenak onar nazala ta
beste guztiei hor konpon!

(7) Lazkao Txikiren ahotsa imitatuz kantatu zituen lehen puntu biak.

(8) Mañukortaren kantaera imitatu zuen lehen bi puntuetan.

(9) Lizasoren eta Lopategiren ahotsa imitatuz kantatu zuen lehen puntua.

OIARTZUN (2010-04-23)

Bertsolariak: A. Martin, A. Goikoetxea, Arkaitz Oiartzabal Xamoa, A. Errazkin, J. Mitxelena eta H. Casabal

Gai-emailea: Oroitz Azurmendi.

Oiartzungo bertso txapelketa jokatu zen Girizia Elkartean. Arkaitz Goikoetxeak eta Alaia Martinek buruz burukoan sortu zuten bertsoaldi bat jaso dugu hemen.

A. Goikoetxea-A. Martin

Gaia: Gerra zibilean hil zuten zuen aitona. Gaur, hainbeste urteren ostean, bera eta beste zenbait lagun lurperatu zituzten lekua aurkitu eta beraien gorpuak ateratzen ari dira. Amona ere aurrean duzue, malkoei ezin eutsita.

Neurria: Zortzikoa, berdinaren moldekoa, 6 puntuz.
Doinua: *Aresoarren bandera / Aizak hi mutil mainontzi*

A. Goikoetxea: Astuna izan da katea
astunagoa kaltea
errexa dugu esaten baina
zaila jasatea.
Amonaren aldartea
aurpegi malkoz betea
gaur heldu zaio hainbeste urtetan
falta zun bakea. (bis)

A. Martin: Hilen zerrenda lodia
mila hil ta eroria
zulo hau bihur liteke minen
gure hilobia.
Nahiz erail historia
bilatzen dugu ongia
hil ez ziguten gauza bakarra
baita memoria. (bis)

A. Goikoetxea: Amona ez zegon lasai
ez zen aguantatzeko gai
ta haren hitzak adieraztea
besterik ez dut nahi:
"Ene zenbat denbora zai!
Eta ailegatu da bai!"
Hala esan du: " Gaurtik aurrera
hil naiteke lasai!". (bis)

A. Martin: Joan zen gure artetik
bizitzaren ametsetik
baina bizirik mantendu dugu
denboran gainetik.
Amonai beira hemendik
argi ikus dezaket nik:
amona hobi hontan egon da
aitona hil zenetik. (bis)

A. Goikoetxea: Gure amonaren antsia
bizitza lutoz jantzia
errespetua adierazteak
badu garrantzia.
Aurrera doa bizia
eskutan dugun guzia
gure lana da hor ereitea
aitonan hazia. (bis)

A. Martin: Bazuen nahiko bertute
umiltasunaren truke
bere borrokan abiatu zen
badakigu guk'e.
Nahiz pasatu hainbat urte
pasa mila min, ezuste
seme-alabek beren ametsak
beteko dituzte. (bis)

AZPEITIA (2010-04-23)

Bertsolariak: M. Lujanbio, S. Colina, A. Egaña, S. Lizaso, J. Uranga eta H. Etxeberria "Ministro".

Gai-emailea: Nekane Zinkunegi.

Euskal preso politikoek bizi duten egoera salatzeko eta euren eskubideak aldarrikatzeko antolaturiko saioa. Izarraitz pilotalekuan izan zen, gaueko hamar eta erdietan. Entzule asko elkartu zen.

A. Egaña-Ministro

Gaia: Zu, Andoni, gehiegi busti gabe eta poesia eginez, entzuleak liluratzen dakien bertsolari bat izango zara. Ministro, berriz, astakeriak esanda eta edozeini buruz hitz eginda, entzuleak lehertzen dituena. Defendatu ezazue bakoitzak bere jarrera.

Neurria: Zortziko handia
Doinua: *Zuk badakizu gure txikia*

A. Egaña: Gazte garaian mingain zorrotza
edozeinentzat amu zen
gero heldu ta neu hasi nintzan
idei ta hitzak mamitzen
konsignarikan sekula ere
ez zait barruan mamutzen
eta hartara urteak joanda
sekula ez naiz damutzen.

Ministro: Ta ni naukazu poesiakin
orain bastante erreta
azken finean hoi deu gauz huts bat
hitz politekin beteta
berotasunez igurtzi lehelehen
salda goxoaz fereka
ta hoi zer degu ba? Azken finean
oilaskoa labin erreta.

A. Egaña: Edozer gauza botatzen dezu
hau, hori eta halako
eskua sarri-sarri mugituz
hitza kamutsa delako
zirkoan alde zaude zu baina
bi ejenplu eman beharko:
zirkoei esker mantendu ziren
erromatarrak ta Franco.

Ministro: Zure bertsoa ene Andoni
beti da horren polita
jende guztia liluratuaz
tablau batean jarrita
baina hemen garbi esan behar da
ein behar bada politika
pentsatzen dena garbi esan zazu
txorakeriak utzita!

A. Egaña: Mingain zorrotza ez duna bada
ahoberoa hainbeste
nahiz esan argi zuzenak badun
gugan horrenbeste ospe
poderedunek poetak maite
gaituztenikan ez uste
maiz pailazoak askoz errexo
asimilatzen dituzte.

Ministro: Arrazoi dezu berriro ere
ze pailazada itzela!
Zuri ere asko gustatzen zaizu
orduan zirkoan epela.
Elur malutak beheraka datoz
buruan kotoia bezela
eta horrekin esan nahi degu
ba ia kalbo gaudela.

J. Uranga ♫

Gaia: Gaur, hainbat aldiz aipatu dugun bezala, bihar izango dugu eskualdeko ekimen garrantzitsu hau, *Pausoz Pauso* Azkoititik Zarautza, bi urtez behin egiten duguna, euskal preso politikoei elkartasuna adierazi eta etxean nahi ditugula eskatzeko. Baina urteotako bilakaera kontuan izanda, sakabanaketa, isolamendua, *Parot* doktrinaren aplikazioa, eta senideek nahiz lagunek jasan behar izan dituzten miaketak, badirudi aurrera egin beharrean atzerapausoak ematen ari garela.

Neurria: Hamarreko handia
Doinua: *Lurraren pean sar nindaiteke*

Beti aurrera beti aurrera
aurrera egin behar dela
baina aspaldian gure artean
giroa hain da goibela.
Euskal Herrian jaiotzen danak
Espainian ez bezela
institutotik atera orduko
zai izaten du kartzela
ta nere ustez okerrena da
ohitu egin garela. (bis)

Gaurko borroka alperrik dugu
erdibidean uztea
lehengoa askoz hobea ez zela
hori da nire ustea
baina gizarte hau ez da nonbait
lehengoa bezain askea
berriz fededun bihurtzen ari
al da euskaldun gaztea?
Masaileko bat hartu orduko
jartzen diogu bestea. (bis)

Buelta ta buelta ari da hemen
errepresio gurpila
maite ditugu gure presoak
hainbeste ez Guardia Zibila.
Biderik bide pausorik pauso
askatasunaren bila
Azkoitin hasi ta Zarautzera
egingo den pauso pila
amnistiaren alde egiten den
urrats bat izan dadila! (bis)

Gasteizko bertso saio berezi bat.

Argazkilaria: Xabier Aginaga
Iturria: XDZ

BASAURI (2010-05-07)

Bertsolariak: U. Iturriaga, J. Maia, S. Colina, A. Egaña, M. Lujanbio eta A. Arzallus.

Gai-emailea: Arkaitz Estiballes.

Hirurehunen bat lagun elkartu ziren Basauriko Sozial antzokian bertsolariak entzutera. Ilunabar euritsua kanpoan, bertso giro beroa barruan. Saio polita atera zen.

A. Arzallus

Gaia: Gu baino pobreagoak diren leku askotan ibili zara munduan barrena. Bidaia horietan argazkiak atera dituzu, eta argazkietan ume guztiak irribarretsu agertzen dira. Gure ingurura begiratu eta ume gutxi ikusten dituzu irribarrez.

Neurria: Hamarreko handia
Doinua: *Lurraren pean sar nindaiteke*

Mundu ilunean beti irripar
begi beltz begi urdina
nahiz eta bere bizitza izan
gogorra bezain gordina
ta hemen berriz malenkonia
eta irripar ezina
guk badaukagu *playstation*a
autoa edo *piercing*a
nahi dugun dena dugu eskutan
baina kontzientzian mina. (bis)

Nahi dugun dena lapurtu dugu
guk mendeetan Amerikan
gu garen dena ostua dator
Asian eta Afrikan.
Nahiz errukia bilatzen dugun
naturaren sarraskitan
zer gertatzen da irriparrik ez
egiteko argazkitan?
Lurrikara bat sentitzen dugu
gure zapaten azpitan. (bis)

Hau baino leku pobreagotan
luzatu ditut zangoak
hala esan dit gai-jartzailean
agindu edo bandoak
ta esplikatzen ahalegindu naiz
hango ta hemengoagoak
hango ta hemengo diferentziak
amildegi arragoak
ta konklusio garbi bat dago:
ez dira pobreagoak. (bis)

U. Iturriaga-J. Maia ♫

Gaia: Jon, etxean, sukaldea eta komuna konpondu behar zenituen, eta krisia dela-eta pixka bat aurrezteko, egin ahal zenuen txarrena egin zenuen: zure koinatuari esan obra egiteko. Obrak hiru asteedo iraun behar zuen, baina pasatu dira hilabete bi, eta lasai ikusten duzu.

Neurria: Zortziko txikia
Doinua: *Dama gazte xarmant bat*

U. Iturriaga: Eguna joaten jat
bazkaltzen ta siestan
gero obra zelan egin
egoten naz kezkan.
Hau partea da zelan
obra soil bat ez dan
zain nago ia berak
zer esaten deustan. (bis)

J. Maia: Ia zer esaten dun
baina obra murritz
begira ta begira
orduetan zabiltz
zure etxean pozik
egingo nuke pix
zure arreba nere
andrea ez balitz! (bis)

U. Iturriaga: Bi hilabetegatik
zabiz komerian
eta ni hor pentsatzen
hain obra handian.
Horra proposamen bat
ausarta agian:
taza jarriko baneu
sukalde erdian... (bis)

J. Maia: Sukaldean erdian
ez dago gaizki han
ta zuk segi pentsatzen
denbora astian
baina pentsatzen dezun
denbora guztian
jarri eskua nere
ipurdi azpian. (bis)

U. Iturriaga: Toki egokienean
jarri azentua
zure abildadea
ta zure kontua!
Ondo botatakoa
hau da momentua
orain badakit zelan
egin zementua! (bis)

J. Maia: Iluminatu zaigu
koinatu aztia
nola eraikitzen den
goia zein azpia.
Lehenago egin zuten
kauenlaostia
Ramsesen piramide
konjunto guztia! (bis)

AZKOITIA (2010-05-08)

Bertsolariak: E. Artetxe, J. Soto, A. Egaña, J. Uria, A. Sarriegi eta U. Agirre.

Gai-emailea: Mailu Irizar.

Duela hilabete batzuk lurrikara gogor batek astindu zuen Haiti. Harrezkero egoera larrian eta premia gorrian bizi dira haitiarrak, lehenaz gain. Haiei laguntza helarazteko asmoz, bertso-jaialdia antolatu zuen Erniarraitz Bertsozale Elkarteak. Baztartxo antzokian izan zen, arratsaldeko sei eta erdietan.

J. Soto-A. Sarriegi

Gaia: Askotan entzun dugu diruak ez duela zoriontasunik ematen, batez ere besteen poltsikoetan dagoenean. Orain, krisi garaian gauden honetan, zer uste duzue ematen eta kentzen duela diruak.

Neurria: Zortziko txikia
Doinua: *Nere senarrarekin I*

A. Sarriegi: Lehen ta orain mutil
berdinak ginen gu
lehengo bizi maila
baitegu mantendu
diruak betidanik
hori egiten du:
lasaitasuna eman
eta loa kendu. (bis)

J. Soto: Loa galtze omen da
diruaren truke
hori egia denik
Juliok ez du uste.
Banu zuk aina diru
zuk aina entzute
holako erloju bat
erosiko nuke. (bis)

A. Sarriegi: Ta aizu erloju hau da
erregalatua
eta zaharragoekin
hobetu tratua.
Badet lanpostu bat ta
badet kontratua
eta ni sentitzen naiz
pribilegiatua. (bis)

J. Soto: Noizbait ni ere izango
ote naiz zu aina?
Bizitzari hartuko
al diot tamaina?
Sosa zoriona da
zorion bikaina
bestela begiratu
Andoni Egaña. (bis)

A. Sarriegi: Zoritxarreko asko
nago ikusita
munduan nahi luketen
dena edukita
baina kuriosoa da
gazte hauen pinta
beti negarrez eta
Ternuaz jantzita. (bis)

J. Soto: Ezin ninteke jantzi
oholtzan itsusi
amak eman zidan hau
galtza eta guzi
ta hala esaten zuen
ez zun arrazoi gutxi:
“Oparitutakoai
hortzik ez ikusi”. (bis)

A. Sarriegi: Beti xoxaren kejan
hau da hau trastea!
Baina ezagutzen det
oraingo gaztea:
ikasten bukatuta
berriz ikastea
ez al zendun hobea
lanean hastea? (bis)

J. Soto: Bizitza ez nuke nahi
horrela eskastu
zertan esku politak
sardeakin laztu?
Lan kontua beharko
nuke nik ahaztu
lan eginda ez baita
inor aberastu. (bis)

A. Sarriegi: Esan dezunarekin
ni jarri naiz adi
ta berriz berresten det
hain dago nabari:
sardeari iheska
zabiltza kantari
ta txapela eskeini
baserritarrari. (bis)

J. Soto: Ta baserritar denak
eskeintzakin alai
baserritarra nola
agertzen den nun-nahi.
Hemen dudan txanpona
naiz ikusteko gai
jarraitu beharko dut
kukua entzun zai. (bis)

ZIZURKIL (2010-05-15)

Bertsolariak: A. Arzallus, U. Iturriaga, U. Alberdi, X. Paya, J. Maia eta A. Agirre.

Gai-emaileak: Xabier Amuriza eta Anjel Mari Peñagarikano.

Pedro Mari Otañoren heriotzaren mendeurrenean antolaturiko ekitaldieta-ko bat. Zirkurkilgo pilotalekuan izan zen, arratsaldean, eta berrehunen bat lagun inguratu ziren saioa entzutera. Anjel Mari Peñagarikanok Pedro Mari Otañoren bertsoak kantatu zituen, eta horien harira Xabier Amurizak jarritako gaiei erantzun zieten bertsolariek.

J. Maia-A. Agirre ♫

Gaia: Otañoren bertsorik ospetsuenetakoak *Aita-semeak* izenekoak dira; "Lagundurikan danoi / gugatik hil zanak" hasten da eta honelaxe amaitzen da sorta: "Iritsi da ordua / joan bihar dezuna / badakizuna aita-amak / hemen dauzkazuna / ez dezazula ahaztu / gaur neri entzuna / hitz baterako hau da / eskatzen zaizuna: / izan zaitez nonahi ta / beti euskalduna". Jon eta Amaia, gurasoak zarete, eta zuen semea edo alaba agurtu behar duzue honako hiru kasu desberdinetan.

1.- Zuen alaba bakarrak moja joatea erabaki du.

Neurria: Hamarreko txikia
Doinua: *Lagundurikan danoi I*

J. Maia: Komenturaino zoaz
ene ze balantza!
Nunbait izango dezu
barruan arantza
erabakiak ondo
pentsatzean datza
ez ote dezu eukiko
nunbait'e zalantza?
Damutuko zerala
badet esperantza.

A. Agirre: Monja doala esan du
neska pinpirinak
ai ze ateraldiak
etxeko sorginak!
Nik nola ezkutatu
barreneko minak?
Aintzat hartuz jainkoak
ta ama birjinak
ikusten badituzu
eman eskuminak.

2.- Zuen semea Irakera doa kazetari.

Neurria: Hamarreko txikia
Doinua: *Mundu hau uzten bazun*

J. Maia: Irak aldera zoaz
zure odisean
herio ta beldurra
dira konplize han
polboraren usaia
han dabil haizean.
Nahiz lanean ibili
denbora luzean
ez du ezer balio
itzuli ezean.

A. Agirre: Nunbait ausarta zera
ez zera koldarra
erakargarri zaizu
gerraren indarra
ta nik onartu behar
hau da zoritxarra!
Hauxe da desioa
desio bakarra
ez dedila izan zure
azken titularra.

3.- Zuen alaba Everestera doa espedizio batean.

Neurria: Hamarreko txikia
Doinua: *Lagundurikan danoi I*

J. Maia: Everestera zoaz
ta badet beldurra
zortzi milakoena
a ze iruzurra!
Han zuritu liteke
edonoiz muturra
ta ez zaite itsutu
ta izan zuhurra
berriz itzultzea da
egizko gailurra.

Neurria: Zortziko handia
Doinua: *Haurtxo txikia negarrez dago I*

A. Agirre: Zortzi milako gailurra dezu
zure jomuga ta meta
baina zerua zein gertu dagon
ere ez da berriketa!
Zure bizitza ez arriskatu
ta osorik egin buelta
elur zuria destinu beltza
bihurtu daiteke eta.

LEKEITIO (2010-05-21)

Bertsolariak: S. Colina, A. Egaña, A. Arzallus, X. Galletebeitia, A. Arrizubieta eta M. Amuriza.

Gai-emailea: Natxi Aranburu.

Iparraldeko Haizeak jaialdiaren barruan antolaturiko saioa. Lekeitioko Konpainiaren elizan izan zen, gaueko hamar eta erdietan; hirurehunen bat entzule.

S. Colina-A. Egaña ♫

Gaia: Puntutan egiteko bi baldintza: hiru minutu gutxienez eta bost minutu gehienez.

Neurria: Zortziko txikia
Doinua: *Mendiko umea naiz*

S. Colina: Ni Andoni bizi naiz
erlojurik gabe
A. Egaña: ta ni komunioan
eginaren jabe
S. Colina: ezagun ditut beraz
eliz ta altare
A. Egaña: minutu ta orduak
alperrikan daude.

A. Egaña: Erlojua ahaztuta
behar degu bizi
S. Colina: batzuetan mantso ta
besteetan bizi
A. Egaña: ordua bigarren ta
geroni lehenbizi
S. Colina: bestela're joaten da
denbora ihesi.

S. Colina: Inoiz egon al zara
orduaren menpe?
A. Egaña: Sarritan ibili naiz
ordurik bat'e be. (Ez)
S. Colina: Izan ere dauzkazu
haizeak dexente
A. Egaña: baina oraindik nere
buru zahar hau tente!

A. Egaña: Ta relojua ez zait
deika hasi neri
S. Colina: zorioneko zara
ta halaxe segi!
A. Egaña: Bizitzeko nik ez det
presarik ageri
S. Colina: batzuk gehiegi dute
ta zuk gutxiegi.

S. Colina: Astelehenean ez du
ezerk jotzen eta
A. Egaña: sarri pentsatu ohi det
"*Kauen la puñeta*!"
S. Colina: orduan eiten dezu
ohian erdi buelta
A. Egaña: ta hobe erlojua
baineran gordeta.

A. Egaña: Eta bainera bete
urez toperaino
S. Colina: hortxe egon zintezke
zu iluntzeraino
A. Egaña: bizitza nahiago det
relojua baino
S. Colina: nik nahio erlojua
itotzea baino.

S. Colina: Aurkituko bazintut
baineran itota
A. Egaña: bedeinkaziotxo bat
gutxienez bota
S. Colina: apaiza etortzerik
ez baitizut opa
A. Egaña: likidoa whiski bada
ez dio inporta.

A. Egaña: Noizbait hil behar degu
nolabait ere bai
S. Colina: zu behintzat hilko zara
ordu gabe lasai
A. Egaña: elizan hiltzerikan
horixe ez det nahi
S. Colina: hortxe dago jendea
entierrorako zai.

S. Colina: Izan ere hor zaude
hilaren tokian
A. Egaña: ba zu kolorez zaude
modu egokian
S. Colina: linboa dela jarri
baitet bekokian
A. Egaña: bost minutu joan dira
gu bion kaltian.

A. Egaña: Ez dira bost joanak
hiru ziran juxtu
S. Colina: beste bi dauzkagula
egin dut apustu
A. Egaña: gu alperrak gera ta
ene ze disgustu!
S. Colina: Honi obeditzeak
zentzurikan ez du.

S. Colina: Andoni nahi duguna
egin behar dugu
A. Egaña: hortan saiatzen gera
belarri ta buru
S. Colina: izan ere graziak
babesten gaitu gu
A. Egaña: eta holako juezak
sobrante ditugu.

A. Egaña: Minutu batzun menpe
ezin ibili-ta
S. Colina: neri ez zait iruditu
taktika polita
A. Egaña: guk beti izan degu
sermoilari pinta.
S. Colina: Beraz hobe isildu
eta eserita.

DONOSTIA (2010-05-23)

Bertsolariak: A. Arzallus, J. Maia, J. Agirre, A. Sarriegi, M. Amuriza, B. Gaztelumendi eta S. Colina.

Gai-emailea: Unai Gaztelumendi.

Auzipetuta dauden 18 donostiar gazteri babesa eta animoak emateko antolaturiko saioa. Antiguako pilotalekuan izan zen, igande arratsaldeko seietan. Bostehun lagun inguru elkartu ziren, aulki bat bera ere ez zen hutsik geratu.

B. Gaztelumendi

Gaia: Beñat, Donostiako gazte auzipetuetako bat izango zara. Bi urte eman zenituen kartzelan, eta orain dela hilabete gutxi askatu zintuzten, hamabi mila euroko bermea ordainduta. Gaur epaiketa eguna da, eta etxean zaude motxila prestatzen.

Neurria: Hamabiko handia
Doinua: *Abokatuak deitu berri dit*

Batzuentzako gutxi izan zen
baina neretzat bi urte
benetan urte gehiegi dira
denok hala degu uste.
Lagunek ta nik denbora gehio
batera egon nahi genuke
ta gurasoek ere etxean
horrenbeste buruhauste!
España aldetik ahal den neurrian
gogor erantzuten dute
ematen degun gutxiagatik
dena kendu nahi digute. (bis)

Egin nahi nuen karrera eta
asteburuko zinema
kuadrillarekin eskursiora
sarri menditan barrena
edo festetan gozatu asmo
nuen giro ederrena
edo larunbat arratsaldeak
hemen tabernaz taberna
edo lagunek gertatu eta
esan behar didatena...
Motxila hontan ez da kabitzen
kendu nahi didaten dena. (bis)

Zer sartu ta zer kanpora utzi
koartoan ze azterketa!
Amak begien atzean ditu
bere malkoak gordeta
ta aita berriz sukalde ertzean
dago nerbioz beteta.
Halere kitto honenbestean
betea daukat maleta.
Agur lagunak ta gurasoak
orain egingo det buelta
itxaropena behintzat sartu det
besterik ez degu-eta! (bis)

SORALUZE (2010-06-11)

Bertsolariak: A. Arzallus, A. Egaña, J. Maia eta M. Lujanbio.

Gai-emailea: Unai Elizasu.

Euskal Jaiak zirela-eta antolatutako saioa. Zineman izan zen, gaueko hamar eta erdietan, berrehun bat lagun entzuten. Hamar urte ziren Soraluzen bertso-jaialdirik egiten ez zela, eta benetan polita atera zen.

A. Egaña-J. Maia ♫

Gaia: Hauek dira larunbat gauero herriko taberna guztiak ixten dituztenak. Tabernak itxi, elkarri bizkarretik heldu, eta "Mendian gora" kantatuz joaten dira mendian dagoen beren etxera.

Neurria: Zortzikoa, berdinaren moldekoa, 6 puntuz
Doinua: *Mendian gora haritza*

J. Maia: Utzi degu enparantza
ta hartu degu norantza
zure itzalai hartzen diot nik
mamu baten antza.
Goazen aldapa gorantza
bilintxi eta balantxa
bart arratsaldez aldapa zahar hau
ez al zan beherantza?

A. Egaña: Orain *pota* orain txisa
larunbateroko gisa
atzo beherantza baina gaur gorantz
daukagu pendiza
kristo eginda gabiltza
arnasestuka nor mintza?
Taberna goian jarriko nuke
Jainkoa banintza! (bis)

J. Maia: Aldapari atakean
ez gaude sasoi fuertean
hobe Don Simon hartuta gerau
bagina parkean!
Paparra bete-betean
kantuan edo *kante*an
Duo Plaentxi gera gu baina
bertsio merkean. (bis)

A. Egaña: Nik balantzaka kojua
Josek marrua, ujua
zoritxarrean gaur sentitzen naiz
benetan lur jua.
Lehen duoa ze lujua!
Orain ni txintxo nijua
bera altutik hasi da baina
bajutik dijua. (bis)

J. Maia: Ez markes eta ez konde
gu gera kaleko jende
ostiraletan bukatzen degu
ardoaren mende.
Hasi naiz "*Ándele ande*
allá en el rancho grande"
eta tipuak esan ez dit ba
"*¿ Dónde está dónde?*". (bis)

A. Egaña: Nik daukat moxkor tankera
mozkortua dago bera
behetikan gora nekez goaz gu
aisa joan behera.
Goizeko seirak aldera
iritsi Karakatera
joan eta joan etxe paretik
pasa egin gera. (bis)

M. Lujanbio ♫

Gaia: *Emakumeen topagunea* izeneko ekimen bat sortu da aste honetan, eta esaldi bat nabarmendu da beste guztien gainetik: “Asko dago egiteko”.

Neurria: Hamarreko handia
Doinua: *Hil da Canovas fuera Canovas*

Gure obrako lanabes eta
gure lanerako peto
kalera gatoz ta pronto gaude
ahal denean jarduteko.
Emakumeen bizipenei
begirada bat hasteko
iraganeko ekintzaileei
goresmen ta errespeto
asko egina dagoelako
dago asko egiteko.

Gure bidean sartu zaitezte
sekula ez da berandu
ahalik lagun gehien batzera
nola abitzen geran gu.
Bidean bada nahiko zailtasun
nahiko traba nahiko gandu.
Gauzak dexente hobetu dira
hortaz eiten gera kargu
baina aurrera jo nahi duenak
konformagaitza behar du.

Emakumeak badu arrazoirik
buruaz horma jotzeko
ta gizarteak badu nahikoa
emazteei aitortzeko.
Gu batzen gara gure arazotan
ta pozetan sakontzeko
ilusioa eta lana da
gizarte oso bat ontzeko
eta borrokan ai bagera da
gutxinekoa lortzeko.

HERNANI (EREÑOTZU) (2010-06-13)

Bertsolariak: M. Lujanbio, M. Amuriza, J. Maia, A. Egaña, A. Sarriegi eta J. Agirre.

Gai-emailea: Aritz Zerain.

San Antonio jaietan urtero izaten den saioa. Igandean izan zen, arratsaldeko 7etan. Ohi bezala, plaza bete egin zen. Handik kilometro gutxira, Reala partida erabakigarria jokatzen ari zen, eta saio osoan zehar leku nabarmena hartu zuen futbolak. Izan ere, Realaren partida jarraitzeko irrati bat eman zion Aritz Zerainek Andoni Egañari, honek, zerbait gertatuz gero, bertso bidez konta zezan.

M. Lujanbio

Gaia: Hilabete pasatxo da Hernanin zabor-bilketa sistema berria, atez atekoa, jarri zutela. Zer moduz moldatu zara?

Neurria: Hamarreko handia
Doinua: *Hil da Canovas fuera Canovas*

Lehen prentsan ta behebarrutan
ze kritika ze atake!
Askok etsirik ez zun hartu nahi
dena geldiarazi arte
baina azkenean ta zorionez
hasi ginen atez ate
baretu eta normaldu gera
gaur ze patxara ze pake!
Askoren esku-keinutxo batek
herri bat alda dezake.

Orain zaborra pilatzen degu
guk ere zuen modura
bi kubo marroi badauzkagu ta
organikoak barrura
ta plastikoak ta errefusak
nahiz batzutan egin duda
indartsu eta pozik hasi det
berria den abentura
lana txikia dulako eta
haundia berriz onura.

Denentzat ez zen atsegin izan
ez zen hain ona harrera
segurtasuna galtzea baitzen
abitutako karrera
ez zitekeen beti bezela
dena bota kontainerrera
ohitura aldatze horrek beldurra
eman zigun baina keba!
Bideak gauza ederrak dauzka
ausartzen baldin bagera.

M. Lujanbio-J. Maia

Gaia: Maialenek ere badarama urte dezente San Antonioko bertso-jaialdi honetara etorriz, eta urtero ohitura du San Antoniori bisitatxo bat egitekoa eta kandelak piztekoa. Aurten ere horixe egin du, baina San Antoniok, Jonek, kezka dezente badu: urtero datorkio eta ez du aurrerapen handirik ikusten. Gaur galdezka hasi zaio.

Neurria: Zortziko txikia
Doinua: *Kantatzera nijoa*

J. Maia: Beti etortzen zera
aurpegi tristea
aurten ere etortzea
ez da albistea
ezin al dezu bete
urteko eskea?
Edo bizio bat al da
kandela piztea? (bis)

M. Lujanbio: Urtero etorri naiz
zugana gaur arte
bihotzeko kontuek
galduta naukate
ez pentsatu ligatzen
ez dedanik bat'e
baino kandelak aina
irauten didate. (bis)

J. Maia: Hori zure errua
izango da noski
ligea izan dezu
lau, bost, sei zein zazpi
kandelak'e trukoak
batzuk badakizki
jarri afari goxo bat
kandela ta guzti. (bis)

M. Lujanbio: Kandeladun afaia
ze-nolako plana!
Baino santuarekin
daukat nik afana
tranpa ote litzake
Antonio laztana
kandela bat jartzea
itzaltze ez dana? (bis)

J. Maia: Nola galdetu dezun
hain modu eztian
ez dizut erantzungo
era garestian:
ligatu nahi badezu
zuk gaba guztian
jarri zaitez kalean
farola azpian. (bis)

M. Lujanbio: Hainbeste estrategi
truko eta mezu
inoiz *exito*rik ez
ta ni beti kexu.
Begira nengoela
gaizki ez zaude zu
azkenean zeorrek
jetsi beharko dezu! (bis)

J. Maia: Baina zure besotaz
ez naiz asko fiyo
zuk hala nahi badezu
ze erremediyo!
Ni jeisteak agian
ez dizu baliyo
ni jetsi ta bestia
ezin bada iyo. (bis)

M. Lujanbio: San Antonio ere
amante epela
nik ez det bilatuko
lagunik ez bela!
Esaten da bertsotan
txukuna naizela
baina hortan ez nuke nahi
Txirrita bezela. (bis)

J. Maia: Txirrita ez zan heldu
hortan urrutira
ta beste Lujanbiok
ondoren segida
adio Madalena
amante, *querida*!
Jarraitu *sin pecado*
baina *concebida*. (bis)

M. Lujanbio: Hain zuzen ere negon
horretxen desiran
baina ez det kunplitzen
zure jira-biran.
Konpetentzira noa
abailan, segidan
eta ia San Juanek
ze ematen didan! (bis)

Arabako taldekako txapelketa.

Argazkilaria: Xabier Aginaga
Iturria: XDZ

ANDOAIN (2010-06-24)

Bertsolariak: A.M. Peñagarikano, I. Apalategi, A. Mendiluze, S. Lizaso, U. Muñoa eta A. Lizarralde.

Gai-emailea: Naroa Sasieta.

San Juanetan aspaldidanik antolatzen dute bertso-jaialdia Andoainen. Goiko plazan izan zen, arratsaldean; jende asko elkartu zen plazan. Bertsolarien aurretik, herri-kirol ikuskizuna izan zen.

I. Apalategi-A. Mendiluze

Gaia: Ama-alabak zarete. Iñaki alabak askotan eskatu diozu Aitor amari aita sala dezala. Gaur ere, etxera sartu eta ama ikusita ezin beste ezer esan.

Neurria: Zortziko handia
Doinua: *Hamaika aldiz daukazu lehendik*

I. Apalategi: Etxera heldu ta panorama
antzekoa degu usu
ta ubelduak lepotik gora
doazkizu pausuz pausu
ertzainengana joan ama ta
denuntzi bat jarri zazu
edo bestela ubeldu batek
salatu behar zaitu zu.

A. Mendiluze: Ubeldu batek salatuko nau
sekretuak erakutsi
bainan halere ezin salatu
nahiz ez izan duda gutxi
urte politak ere izan dira
ta hoiei nahi diet eutsi
bizitza erdi bat ezin daiteke
atzera hain errez utzi.

I. Apalategi: Bizi erdian hasera hortan
dena zijoan xuabe
baina gaur egun ez da gelditzen
lehen horrenbeste umore.
Nahiz ta kolpea jasaten dezun
zaratarik egin gabe
egunez ezer ez esatera
beharturikan ez zaude.

A. Mendiluze: Ez egia da isiltasuna
neure kabuz nuen hauta
nahiz eta jakin eguneroko
zigorra ez dela mauka
bere ezina deskargatzen du
bere andrearen aurka
ondorioa jasotzen det nik
arazoa berak dauka.

I. Apalategi: Lehenengo aldiz aipatu zizun
ez zuela egin nahita
baina geroztik ia gauero
antzeratsu dabil aita
ta zuk ertzainei esan ezean
nik beharko diet aipa
golpeak batek jasoagatik
mina gu biona baita.

A. Mendiluze: Beraz zedorrek ere sufritzen
dezu nerekin batera
ta nahi zenduke hain egoera
tamalgarritik atera.
Aitaren esku utzi dezagun
ta aldatuko ote da?
Goazen gu biok aitari azken
aukera bat ematera.

A.M. Peñagarikano-S. Lizaso

Gaia: Hainbeste urte daramatzate elkarrekin bertsotan, matrimonio kutsua ere hartzen diot nik bikote honi. Seguru ikusten dizkiozuela elkarri maniak eta xelebrekeriak.

Neurria: Zortziko handia
Doinua: *Kantore berri xarmant batzuek*

A.M. Peñagarikano:

Sebastian ta ni urte askotan
eta astero-astero
oso jatorra zala uste nuen
besterik ez nun espero
ordu txikitan zakar jartzen da
ta muturra bero-bero
honek txanpaina latz edaten du
bestek pagatu ezkero. (bis)

S. Lizaso:

Egia da bai bolara baten
biok parrandan gauero
eskerrak orain ez geran biok
lehengo ohituren bezero.
Honek nigatik esan du baina
bera muturretik bero
eta kontua eskatzen zuen
baina ordaindu ta gero. (bis)

A.M. Peñagarikano:

Badakizute gertatzen dira
hain zelebrezko kasuak
horrelakorik ez nun espero
neri egitia maisuak
honen bertsoak omen dira ba
eder eta mamitsuak
leku askoan kantatzen ditu
Uztapideren bertsuak. (bis)

S. Lizaso: Haurtxo nintzala ikasi haiek
inoiz datoz memorira
baina neuretik ere badakit
nik lortzen neure dizdira
eta gauza bat esan beharko
albokoari begira:
zureak ere botako nitun
hain onak izan balira. (bis)

A.M. Peñagarikano: Ni bezelaxe bertsotarako
honek laguna Egaña
baina aspalditik ezagutzen det
ezin nazake engaina
gaia jarrita etortzen bada
soltatu ohi du mingaina
ta ez bazaio ezer etortzen
"*Benga* hasi hadi Peña!". (bis)

S. Lizaso: Beti bertsotan hasterakoan
ezinak du erasaten
norberetzako ez da erreza
egoera hori jasaten
ta entzuleak bertsoaren zai
asko sufri ez dezaten
abila da ta Peña hasten da
txorakeriak esaten. (bis)

A.M. Peñagarikano: Hau bezelako tranposo asko
dabil gaurko egunian
nik Sebastian ezagutu det
jardunian-jardunian
Andoni Egaña aukeratzen du
saio onaren harmonian
ta Apalategi bialdu ohi du
debaldekoa danian. (bis)

S. Lizaso: Diruan kezkak kontzientzia
oraindik ez dit ikuitu
horregatikan neri aukerak
inoiz ez zaizkit urritu.
Peñari dena barkatzen diot
ez baitu hainbat delitu
aspaldi galdu zuen burua
oraindik ez du aurkitu. (bis)

A.M. Peñagarikano: Ni bezelaxe bizkar gainean
berroita hamabi urte
eta gezurra esateko're
zenbat dohai ta bertute!
Nere buruan kontu horiek
orain entzun dituzute
honek burua galtzen badigu
laister aurkituko dute. (bis)

S. Lizaso: Beti izan det buru haundia
barruan zerbait aparta
alper-alperrik ateratzen du
horrenbeste zalaparta.
Aspalditikan zedukan Peñak
gero izango zuen planta
haurretan astronauta izan nahi zun
ta ez zaio asko falta. (bis)

USURBIL (2010-07-03)

Bertsolariak: I. Zubeldia, J. Maia, A. Arzallus, I. Elortza B. Gaztelumendi eta J. Uria.

Gai-jartzailea: Bota Punttuba Bertso Eskola.
Gai-emailea: Imanol Arabaolaza.

Santa Isabel jaietan antolaturiko jaialdia. Pilotalekuan izan zen, larunbat gauean.

I. Elortza-A. Arzallus

Gaia: Zu, Igor, legeak lege, *jilaba* buruan duzula azaldu zara gaur eskolara, eta gelako sarreran Amets, eskolako zuzendaria, daukazu.

Neurria: Zortziko handia
Doinua: *Hamaika aldiz daukazu lehendik*

A. Arzallus: Zapiarekin etorri zara
etxetik eskolara arte
baina aldaketak gertatu dira
legea dela bitarte.
Kentzeko esan behar dizut bai
nahiz izan zuretzat kalte
nik ez nuke nahi baina neri ere
agindu egiten didate.

I. Elortza: Itxura denez geure zapira
mugatu ohi da problema
problema ez da hementxe ere
gaur mendean dagoena
eta diozu zuk ein duzula
goragotik diotena.
Beraz mozorro festa bat baino
ez dugu arazo dena.

A. Arzallus: Legea beti hala izan da
eta zer azken finean?
Zuk zapi hori hor zeneraman
sudurpean ezpainean
badakit ezin dudala esan
"Biak gauden berdinean"
baina zapia ezin dut jarri
neure begien gainean.

I. Elortza: Gure herrian ta hemen ere
guztia dago aldrebes
emakumea menpeko bat da
tartean mila interes
gurean dira teologoak
eta hemen hainbat juez
beti besteek erabaki ta
emakumeak behin ere ez.

A. Arzallus: Hala izaten da nahiz eta kontra
egin guk ahal dugun maizen
zuk badakizu eskumenetan
ni noraino heltzen naizen.
Erantzi zazu eta klasera
segiozu apal, zuzen
eta ikasi ahal duzun gehien
legeak alda daitezen.

I. Elortza: Ta azkenengo arrazoi hori
genduen tartaren ginda
zu omen zaude legegileei
gaur aurre egin ezinda.
Eman didazun kontseju hori
ere niretzat gaur min da
ezin baduzu zuk aurre egin
zeuk horrenbeste jakinda.

IRUÑEA (2010-07-13)

Bertsolariak:J. Maia, U. Alberdi, E, Arozena, E. Lazkoz, A. Egaña eta S. Alkaiza.

Gai-emailea: Alaitz Rekondo.

San Fermin jaietan antolaturiko jaialdia.

E. Arozena

Gaia: Nafarroako errege izandako Albretarren ondorengoa omen zara, eta zuk diozu gaur egun Nafarroako Erreinuko erregea izan beharko zenukeela.

Neurria: Zazpikoa, handiaren moldekoa, 4 puntuz
Doinua: *Uso xuria errazu A*

Hastera noa jarduna
ni Albret deitura duna
nauzue zuen laguna.
Lehen aldia izan zen eta
agian etorkizuna
bere buruan sinisten duen
Nafarroko Erresuma. (bis)

Ez nago burutik jota
egin nahi nuke borroka
memori ezaren kontra.
Onar zazue nere erregetza
onartu nere erronka
Bordoidarrena baino okerrago
behintzat ez da izango-ta! (bis)

Maiuskulaz hainbat hizki
uxatuak mila pizti
izan baitugu ja aski.
Dena bihurtu behar dut polita
aberastasun eguzki
ta erresuma bat izango dugu
selekzio eta guzti. (bis)

Arabako Eskolarteko Txapelketa.

Iturria: XDZ

ALEGIA (2010-07-15)

Bertsolariak: M. Lujanbio, A. Mendiluze, J.M. Irazu eta U. Agirre.

Gai-emailea: Iker Iriarte.

Karmen jaietan urtero antolatzen duten jaialdia. Kultur etxean izan zen, gaueko hamar eta erdietan; ehun eta hogeiren bat ikusle. Lau bertsolariak Hernaniko bertso-eskolan ibiliak zirela nabaritu zen erreferentzietan, elkarren ezagutzan, aukeratutako doinuetan, erritmoan eta abarretan.

M. Lujanbio-A. Mendiluze-J.M. Irazu-U. Agirre ♫

Gaia: *Egunkaria auzia*, 18/98, mila epaiketa; eta gaur hasi da Udalbiltzaren aurkakoa ere. Amaiera batek beste hasiera bat dakar beti. Ikusten al da honen guztiaren amaierarik?

Neurria: Zortziko handia
Doinua: *Haurtxo txikia negarrez dago I*

M. Lujanbio:
Alperrik dira lekukotasun
froga argi nahiz testigu
herrigintza beti geratzen da
Estatuaren gatibu
ta toga beltzak eskuin eskuan
mailu haundi bat beti du
txingurri-lanean jarraitzea
guri hori dagokigu.

A. Mendiluze: Udalbiltzaren epaiketa da
*Egunkaria*rena lehen
badakizue hitza delitu
eta dena ETA omen
eurek nahi duten hori lortu arte
jarraitu nahi dute hemen
ia ez dakit bukaera bat
ikustea komeni den.

J.M. Irazu: Madrileraino zertan zuzendu
justiziaren eskea?
Handikan nekez etorriko da
Euskal Herri bat askea
Sakonagotik jardun behar da
hori da nere ustea
bukaerarik izango ez duen
hasiera bat hastea.

U. Agirre: Nahiz ta gu jartzen saiatzen geran
Madrilentzako neurria
buruai buelta eman diogu
nola moztu izurria.
Lehen esperantza banuan baino
aspaldi daukat urria
lehen Maialenek zion zer geran:
mailua ta txingurria.

M. Lujanbio: Ta bai euskera bai udalgintza
hemen dena ETA omen
zabala eta herrikoiena
hala egin gendun arren.
Udalbiltza da gure bidean
ejenplu eder dena den
bestei baimen eske ari gabe
geronek sortu genuen.

A. Mendiluze: Ta animatzen gaituzte berriz
halako zenbait irudik
litekeela sinisten degu
elkarrengana bildurik.
Goiko mailuak golpea dakar
ez du beste helbururik.
Beraz ez egon gora begira
baina ez makurtu bururik.

J.M. Irazu: Enegarrengo epaiketa da
Audientziaren forma
hainbat familik eta pertsonek
nolako ezinegona!
Pixka batean joan-etorrian
Madrilera hara-hona
guzti-guztiek jaso bezate
gure elkartasun berona!

U. Agirre: Udabiltzakin zertan aritu
egoera makillatzen?
Ari zaizkigu gerua belzten
ta nahigabia pilatzen.
Nahiz badakidan ez dela erreza
bi puntak korapilatzen
danak ein behar degu ahalegina
bide berriak bilatzen.

AIA (2010-07-24)

Bertsolariak: S. Lizaso, A. Egaña, A.M. Peñagarikano, M. Lujanbio eta A. Arzallus.

Gai-emailea: Unai Manterola.

Santio jaietan urtero antolatzen duten saioa. Santio Errekako pilotalekuan izan zen, eta bostehun lagun inguru elkartu ziren bertsolariak entzutera. Saioa hamarretan hasiko zela iragarri zuten hedabideetan, eta jenderik gehiena ordurako inguratu zen. Hala ere, saioa ez zen hamar eta erdiak arte hasi.

S. Lizaso-A. Egaña-A.M. Peñagarikano-M. Lujanbio-A. Arzallus

Gaia: Niri normalean ez zait gustatzen ofizioa eta afizioa nahastea, eta nik gaiak jartzen ditudanean, normalean eliza konturik-eta ez da izaten, baina disimuluan sartzen dira apaizarekin hemendik edo handik, eta hau pentsatu dut: hasieran jarriko diet gai bat, sar daitezela nirekin nahi duten dena, eta gero ni libre izango naiz eta gaiei erantzun diezaietela. Seminarioan jende gutxi dagoela-eta deialdi bat egin dute, eta bost hauek agertu dira curriculuma eskuan dutela, seminarioan sartzeko[10].

Neurria: Zortziko handia
Doinua: *Kantore berri xarmant batzuek*

(10) Gai-emailea, Unai Manterola, Orioko apaiza da.

A. Arzallus: Arantzazura abiatuta
iritsi egin naiz hala
curriculuma aurkeztu behar
luzea eta zabala
plantan nabarmen ikus liteke
ixtua edo argala
lagunek beti esan didate
praile itxura dedala. (bis)

M. Lujanbio: Hau da intsentsu usaia eta
hemengo santu ta lustre!
Elizak baino emakumerik
ez du hartzen urtez urte
neronek ere apaiztarako
gogoik dedanik ez uste
baino Elizai kontra eiteatik
hori're egingo nuke! (bis)

A.M. Peñagarikano: Batxilergoa egin nuen nik
zeinen titulo mardula!
Ta hogeita hamar urte bitarte
zirri egin gabe sekula
soldauskan ere izan nintzan ta
gogoz izan dezagula
hainbeste ostia hartu zuenak
ematen jakingo dula! (bis)

A. Egaña: Ezaugarri hauek ditut ta entzun
aizu apaiz etxekuak:
filologo naiz eta dakizkit
latin ta gainontzekuak
ilea mozten lanik ez daukat
juxtu-juxtu atzekuak
sandaliak ere ekarri ditut
fraileenen antzekuak. (bis)

S. Lizaso: Mingain ona dut eta bizkorra
hau baldintza printzipala
han edo hemen ibilia naiz
hizlari on bat bezala
ta umetatik sentitu nuen
fede beroan itzala
nik komunio txikia egin nun
mutil haundia nintzala. (bis)

A. Arzallus: Ba nik jakintza urria daukat
nahiz izan mutil galanta
itxuraz soilik salba ninteke
besteetan sartzen det hanka
baina osaba bat badet obispo
Hego Amerikara joanta
nik ere berdin egin nahi nuke
hura ondo bizi da-ta. (bis)

M. Lujanbio: Nik Arte Ederrak ikasi nuen
ta Eliza juxtu hori da
romanikoa ta gotikoa
renazentistan harira
gaur eguneko Elizak berriz
Tira! Tira! Tira! Tira!
Itxura danez beste obretako
sobrakin egiten dira. (bis)

A.M. Peñagarikano: Beste hau ere aurkeztuko det
abadetzat har nazaten
monagilloa izan bainintzan
Albiztur edo nonbaiten
saiatzen ginan *binajera*tik
ardo goxoa edaten
ta apaizari kentzen diona
ez da tontoa izaten. (bis)

A. Egaña: Saiatua naiz ta grinatsua
itsu puntua det nerez
horrexegatik bertsolaritzan
badet hainbeste palmares
maratoietan, ikasketetan
beti aritu naiz fedez
neretzat dena fedea baita
bueno erlijioak ez. (bis)

S. Lizaso: Semoiak eta bedeinkapenak
ez naute asko kezkatzen
asmatuko det pekatarien
aurrean lasai azaltzen
eta ni baino hoberik inor
denikan ez det pentsatzen
lehengo pekatu denak egiten
eta berriak asmatzen. (bis)

A.M. Peñagarikano-S. Lizaso

Gaia: Herri bereko bi aitona zarete zuek. Jubilatu zinetenetik urte askotan egon zarete herriko plazan, banku banatan eserita, baina elkarrekin hitz egin gabe. Obra egin dute herriko plazan, banku bakarra dago orain, eta elkarren aldamenean eserita zaudete.

Neurria: Zortziko handia
Doinua: *Kantore berri xarmant batzuek*

S. Lizaso: Bi aulkitatik bat ta berrira
guk egin degun txangoa.
Hala ta guztiz jokabidea
ni aldatzera ez noa
erabakitan beti izan naiz
zuzena bezain irmoa
nahiz ta aulkia berria degun
intentzioa lehengoa. (bis)

A.M. Peñagarikano: Urte askotan ez hitz ein arren
asko ez dio ajola
alde batera neri irakiten
orain jartzen zait odola
banku bakarra lehen bezelaxe
isil-isilik hau hola
esan daiteke nere ondoan
zaku patata dagola. (bis)

S. Lizaso: Sarri askotan ez da erraza
eraso denak jasaten
zure ondoan egote hori
ez zen erraza izaten
kokoteraino egin ninduzun
ta haserretu behin baten
jardun ta jardun eginagatik
ez zendun ezer esaten. (bis)

A.M. Peñagarikano: Gure munduan gaur egun bada
hamaika zu bezelako
eta gainera honek besteai
gaur errua bota franko
esanez dago "Hasarre nao ni"
zergatik esan beharko:
zergatik eta behin nere kontra
musean galdu zulako! (bis)

S. Lizaso: Sarri askotan errez galtzen da
lagun giroan distira
puxka batean iraun nuen nik
itxaropenai begira
azkenerako iritsi ginen
jasan ezin zen neurrira
arrazoia eta azken hitza
beti bereak baitira.

A.M. Peñagarikano: Lehen alkarrekin egiten genun
zahar etxera hainbat jira
orain alkarri kaso egin gabe
egi garbia hori da.
Umetxo asko gure inguruan
hor daude guri begira
esaten dute “Bi aiton hoiek
biak mutuak al dira?”. (bis)

S. Lizaso: Gizalegeko eta hiztuna
umetan ninduten hezi
eta geroztik ez naiz ibili
ni bide horren ihesi.
Arrazoiakin gertatzen dira
beti bi kasu berezi:
daukanak ez du beharrik eta
ez dunak ez du merezi. (bis)

A.M. Peñagarikano: Hau eoskorra degu etxean
ta eoskorra kanpuan
ta eoskorra ta setatia
bera agertzen dan lekuan.
Beste aldera beira jartzen da
hona etorritakuan
“Baita zuri’re” esan gutxinez
“Egun on” esandakuan. (bis)

ASTIGARRAGA (2010-07-25)

Bertsolariak: Xamoa A. Martin, E. Zabaleta, I. Gurrutxaga, M. Mujika eta J. Labaien.

Gai-emaileak: Astigarragako Gazte Asanbladako bi kide.

Santiago jaiak zirela-eta Astigarragako Gazte Asanbladak antolaturiko jaialdia. Txosnetan izan zen, arratsaldeko zazpietan.

Xamoa-A. Martin-E. Zabaleta-I. Gurrutxaga-M. Mujika-J. Labaien ♫

Gaia: Zu, Xamoa, 85 urteko amona zara. Astebururo-astebururo zure bost bilobei bazkaltzen ematen diezu, euren gurasoak poteoan dabiltzan bitartean. Nazkatuta zaude, eta oraingoa izango da bazkaltzen ematen diezun azken asteburua, ez baldin bazaituzte konbentzitzen, behintzat[11].

Neurria: Lauko handia
Doinua: *Kontu barri bat suzedidu da II*

Xamoa: Bost ilobena izanagatik
neretzat kriston saria
zatozte eta aprobetxatu
zuen azken afaria.

(11) Kanporatze jolasa egin zuten.

A. Martin: Motiborikan ez duzu baina
haserretu egin zara
bazkaririkan ez eman baina
ez zaidazu kendu paga!

E. Zabaleta: Ene amona nola bihotzez
aspaldi zaitudan maite
ni bazkaltzera etorriko naiz
zu lurpera joan arte.

I. Gurrutxaga: Neregatikan *de puta madre*
bazkaririkan ez egin
bazan garaia gurasoekin
poteatzen hasi nendin.

M. Mujika: Gaurtik aurrera amona neri
bazkaltzen eman muxu truk
bistan baitago denen artean
ondoen nik jaten dizut.

J. Labaien: Nik ez dakit superauko dudan
era hontako galera
arratsaldero etorriko naiz
kroketak meriendatzera.

Xamoa: Nahiz eta hemen ume bakoitzak
badun bere enkantua
iruditzen zait Manex degula
lehenengo kanporatua.

A. Martin: Gukin ez aita eta amakin
haserretuta bazaude
aita ta ama utzi itzazu
bat'e bazkaririk gabe.

E. Zabaleta: Amona arren bazkalaurretik
hiru-lau pintxo atera
ta hola pozik joango naiz ni
aitekin poteatzera.

I. Gurrutxaga: Bueno bazkaia ez zazu egin
banoa taberna aldera
goizeko lautan etorriko naiz
batxuri zopak jatera.

J. Labaien: Zure etxera gu ez bagara
etorri behar horren maiz
lehen argal nago ta orain igual
gose greban hasiko naiz

Xamoa: Berriro ere hasi beharko dut
gure Jokin kanporatzen
gure etxeko kondizioa
bizar hori kentzea zen.

A. Martin: Nahiz platerean hainbat kroketa
sarri ditudan ikusten
nik eskua luzatzen dut baina
Eneritzek ez dit uzten.

E. Zabaleta: Amona berriz joango naiz ni
gustora etxe aldera
kriston legatza harrapatuta
zure legatza jatera.

I. Gurrutxaga: Jokin aspaldi jakin behar zenun
danok dakigun bezala
hemen bizarra eramateko
amona nahikua dala.

Xamoa: Nahiz eta pena ematen didan
Eneritz bota dezaket
nahiz eta faltan botako'itudan
moflete polit horiek.

A. Martin: Ni ez naiz zure etxetik joango
ta bazkalduko dut bapo
nire kabuz merezita daukat
txikiena naizelako.

I. Gurrutxaga: Bueno bazkaia neri ematen
amona hasi beharko
honi alperrik emango diozu
luzitzen duenerako!

Xamoa: Bueno orduan onena nuke
nik Alaia bidaltzia
orain horixe soilik falta zait
nobioa ekartzia!

I. Gurrutxaga: Nahiz ta aurrean jarri didazun
neri babarrun platera
dagoeneko nazkatu naiz ta
goazen poteatzera!

Xamoa: Ba bai ni ere nazkatu egin naiz
ze sukalde ze afari!
Etxe osoa utziko diot
lehenengo ezkontzen denari.

Larrabetzuko bertsozale gazteak adi.

Iturria: XDZ

GORLIZ (2010-07-26)

Bertsolariak: S. Colina, A. Illaro, A. Sarriegi eta M. Telleria.

Gai-emailea: Nahikari Ayo.

A. Illaro

Gaia: Urtarriletik Erasmus programan bekadun gisa ibili zara Holandan, eta hiru bertso eskatuko dizkizut. Lehen bertsoan, kontatu behar diozu amari zer egin duzun bertan.

Neurria: Zortziko handia
Doinua: *Haizea dator ifarraldetik*

Holandaraino mugitu nintzen
beste askorekin batera
larritasuna sumatu eta
ingelesa ikastera.
Lana mordoa egin dut eta
poz-pozik nago gainera
ingles pila bat ikasi dut ta
ez naiz parrandan atera.

Gaia: Bigarrenean, Unibertsitateko tutoreari kontatu behar diozu zer egin duzun.

Ailegatu ta pentsatzen nuen
“Zer egiten dut nik hemen?”
baina klaseko maila ikusiz
animatu nintzen zuzen.
Irakasleek esan zidaten
duda barik eta ozen
“ Euskal Herriko uni hoietan
zenbat ikasten duzuen!”.

Gaia: Eta azkena, lagunei.

Bost hilabete pasatu eta
ez nator hain aurpegi alaiz
baina ajeak berreskuratu
nahiean heldu naiz garaiz.
“Zer ta parranda Holanda aldean
nola dago?” galdetu maiz
ingles gehiegi ez dut ikasi
baina parrandan irten naiz.

GETXO (ALGORTA) (2010-07-30)

Bertsolariak: On. Enbeita, A. Sarriegi, A. Arzallus, E. Lekue

Gai-emailea: Zuriñe Iarritu.

Saninazio jaietan ALBEk antolatzen dituen lau jaialdietako bat. Kasino plazan izan zen, eguerdian. Itzalik ez eta entzuten zeuden berrehunen bat lagunek plaza ertzeko zuhaitzen gerizpeak baliatu zituzten saioa jarraitzeko.

E. Lekue-A. Arzallus ♫

Gaia: Zuen hogeita hamar urteko semeak *down* sindromea dauka. Hogeita hamar urteotan alboan izan duzue, ia-ia esateko gau eta egun. Astelehen honetan, ordea, lagun eta begirale batzuekin oporretan joan zaizue. Gaur deitu du ederto batean dagola esaten.

Neurria: Zortziko handia
Doinua: *Dama askoren engainagarri*

A. Arzallus: Orain artean bizitza osoa
pasatu dugu berekin
lehen ez genuen utzi nahi eta
orain kolpetik alde egin
berak baditu gabezi batzuk
bai baina geuk ere berdin
orain artean ez baikenion
nahiko konfiantza egin.

E. Lekue: Geure altzoan eduki dogu
bera hainbeste denporan
eta ez dakit egin doguna
berarentzako nahiko dan.
Begirale ta lagun batzukaz
antza gustora dago han
gure semea heldu egin da
ta ez dakit hori nahi dodan.

A. Arzallus: Ba ni halaxe nago gustoren
triste nengoke bestela
uste genuen gure umea
betiko umea zela
eta tratatu izan dugunez
halaxe balitz bezela
orain badakit bere bidea
lasai egin lezakeela.

E. Lekue: Beraz haztea ez baita izan
guretzako lan samurra
hogeta hamar urte etxean
ez da denpora laburra!
Sentimendu bi dodaz nahastean
ez dot esango guzurra:
ondo hazi dogun ustea eta
bera galtzeko bildurra.

A. Arzallus: Bera ez dugu galduko eta
arren egon zaite lasai!
Baina badira hemen gauz batzuk
onartzen zeinen zailak ai!
Maitekorra da urte osoan
ta beti gurasoen zai.
Orain eskerrak berari eta
begiraleei ere bai.

E. Lekue: Egia da bai begiraleeri
bere eskertu beharko
bere bidea zein dan bilatzen
lagundu deutsielako.
Oindik aurrera berari eitea
horixe toketan jako
eta gu hemen eukiko gaitu
behar dauan danerako.

A. Arzallus: Baina bidea urra dezala
bere baitan berariaz
ta guk laguntza emango dugu
eskatutako hariaz.
Baina lotsatu eiten naiz orain
eta lotsatu egiaz
ekografia jasotakoan
jarri nuen aurpegiaz.

E. Lekue: Ez zaite lotsa egoera hori
inontzat ez da fazila
aurrera eitea ebatzi gendun
gure erabagi isila.
Orain hazi da eta heldu da
gure etxeko mutila
bihar dator bueltan ta harro-harro
joango gara bere bila.

VILLABONA (2010-07-30)

Bertsolariak: A. Agirreazaldegi, O. Iguaran, E. Eizagirre, On. Enbeita, U. Alberdi eta O. Bartra.

Gai-emailea: Amaia Agirre.

Santio festetako bertso-saioa izan zuten Villabonan, urtero bezala, uztailaren 30ean. Gauean izan zen, Arroa plazan; 250 entzule inguru bildu ziren.

O. Iguaran ♫

Gaia: Laster, ordubete barru, urtebete da Villabonako festek lutoa jantzi zutela.

Neurria: Hamabiko handia
Doinua: *Abokatuak deitu berri dit*

Urtebete da krespoi beltzekin
jantzi zela Villabona
urtebete da negar bihurtu
zela festa eta broma
gure ondotik urrun joan zen
maite genuen pertsona
beti lanean jarduna eta
beti ondoan egona.
Aparta eta paregabea
zinen hitz batean ona
azken taupada eman zenigun
bihotz handiko gizona. (bis)

Festak bukatu nahi zenituen
kalejirara irtenda
ta zai zegoen ertzain mordoa
ezin genezake zenba!
Soinean zuten kaskoa, porra
ta beste hainbeste prenda
zainetan sua zabaldu ohi zait
ta ezin ditut izenda.
Baina gogora ekarriz gero
zure dohaien zerrenda
amorru eta gorroto hori
irriparre bihurtzen da. (bis)

Amorru horren zati txiki bat
barrenean geratu da.
Beraz hobe det gogoratzea
sortzen zenidan lilura
zenbat momentu zure ondoan
zenbat momentu gustura!
Zure izaerak eta indarrak
nigan utzi du aingura.
Beraz zugatik emango zaie
diot begira zerura
iazko festek merezi zuten
amaiera eder hura. (bis)

A. Agirreazaldegi-U. Alberdi

Gaia: Zuek ere mila arrazoi dauzkazue elkarrekin egoteko, mila arrazoi jolasean aritzeko. Bi ume koxkor zarete, Ainhoa Saharako neska koxkorra eta Uxue neska euskalduna. Ainhoa Uxueren etxean ari da uda pasatzen, eta ur pistola batekin ari zarete jolasean.

Neurria: Zortziko handia
Doinua: *Geldirik ezin naizela egon/ Blowing in the wind*

A. Agirreazaldegi: Bi hilabetez hondar artetik
zuregana nator ihes
zuen ondoan jolasa beti
joaten baita hain errez
baina Uxue orain jolasa
alda dezagun mesedez
pistola ez zait asko gustatzen
ura botatzea ere ez.

U. Alberdi: Zure begitan orain tristura
pixka bat dizut nabari
nire asmoa oso ona zen
hori izan zazu argi:
ur pistola bat eskuan hartu
ta zuri begira adi
nik ur pixka bat bota nahi nion
desertuko loreari.

A. Agirreazaldegi: Hara! Barruan duzu gordeta
neretzako umorea
ta nik hala ere erantzuntxo bat
badut berriro gordea:
gu gutxirekin ohituta gaude
ulertu zazu ordea
urtean behingo euriteakin
hazten da hango lorea.

U. Alberdi: Txikitatikan ikasi dugu
biok zer dugun indarra
eta pistola bana eskutan
berez pasa dugu marra
gure gainean indarkeria
jasan arren barra-barra
indarkeria antzeztuz gabiltz
euskalduna sahararra.

A. Agirreazaldegi: Indarkeria gure barruko
hazi txiki bat ote da?
Horrela bada ez dezagula
berriz kanpora atera.
Belar gainean begi itxikiekin
Uxue etzango al gera?
Guk han askotan jolasten dugu
ura imajinatzera.

ALTZO (2010-08-01)

Bertsolariak: M. Lujanbio, B. Gaztelumendi, U. Alberdi, J. Maia, A. Egaña eta A. Arzallus.

Gai-emailea: Manu Olano.

Jaietan urtero antolatzen duten saioa, aurten hogeita hamargarrena. Gauean izan zen, eta bete egin zen pilotalekua; bostehunen bat lagun, guztira. Berotzea kostatu bazitzaien ere, saio polita egin zuten azkenerako.

M. Lujanbio ♫

Gaia: Gaztetan, sasoi ederra zenuenean, zeuk egin zenuen zubitxo bat, etxe aurretik igarotzen den erreka gainean. Orain, jubilatuta zaude, eta sarritan bezala, gaur ere zubi gainetik errekara begira zaude.

Neurria: Hamarreko handia
Doinua: *Lurraren pean sar nindaiteke*

Udaberria udara egin zen
gero iraila azaro
eta badakit mundu honetan
ez naiz egongo luzaro.
Neronek egin nuen zubia
nere ametsen arrago
nere denbora errekan joan da
beherago eta beherago
baina itsasora heltzen den arte
berari begira nago. (bis)

Hainbeste asmo hainbeste bide
izaten dira bizitzan
mendian sortu ta itsasora
noa erreka bailitzan.
Atzeruntzako errepaso bat
egitea komeni zan
ta pentsatzen det neronek ere
errekako uren gisan
harri batzuek urratu ditut
ez da alferrikan izan. (bis)

Bizitza bizi egin det eta
ez nago azkenaren minez
atzera beira ez nau betetzen
ezerk aldarte ozpinez
hasten den orok bere azkena
izaten dula jakinez
batzuk joan ta berriak datoz
aurrera egiteko grinez
ta datozela erreka-bide
berriagoak eginez! (bis)

Maialen Lujanbio eta Harkaitz Canoren hitzaldia Bertsozale Elkartearen egoitzan, Villabonan.

Iturria: XDZ

ADUNA (2010-08-13)

Bertsolariak: U. Alberdi, J. Soto, M. Amuriza eta B.Gazteleumendi.

Gai-emailea: Unai Elizasu.

Herriko jaietan urtero izaten den jaialdia. Plazan izan ohi da, baina euria zela eta, pilotalekuan egin behar izan zuten.

J. Soto-U. Alberdi ♫

Gaia: Atzokoa eta gaurkoa ere izar iheskorrak ikusteko egun ona omen da. Joan zarete oihanera, pagopean etzanda jarri biak, eta gora begira, izarrei begira jarri zarete.

Neurria: Kopla handia
Doinua: *Oihaneko pagoak blai*

U. Alberdi: Izar uxo hoiek nola
dauden ez baitzait axola
izar bakar bat ez dut ikusi
zuri begira nagola. (bis)

J. Soto: Ez zaite jarri tristea
hauxe da hau ezustea!
Goian izar bat ikusi dut ta
nere ondoan bestea. (bis)

U. Alberdi: Duzu distira itzela
baina dardarka sabela:
iruditzen zait hoiek bezela
ihesi joango zarela. (bis)

J. Soto: Ez da egia izango
tratatzen bainauzu ondo
ez urduritu zure ondotik
ez naiz sekula joango. (bis)

U. Alberdi: Ohitura denen antzea
desio bat eskatzea
nik desio dut nire desira
gau honetan asetzea. (bis)

J. Soto: Izarrak argitzen dira
gora, aupa eta biba!
Ez urduritu etorri zaitez
nik aseko dut desira. (bis)

U. Alberdi: Ez zara mutil ahula
altua eta mardula
iruditzen zait hatzak luzatu
ta ikutuko dituzula. (bis)

J. Soto: Ez zaigu hori komeni
bista gora ez eskeini
goikoak utzi pakean eta
zuk ikutu nazazu ni. (bis)

U. Alberdi: Etorri zara eskeko
ausarta zara. Hobeto!
Jetsi zaidazu izar txiki bat
poltsikoan gordetzeko. (bis)

J. Soto: Muxuak jaso nahi ditut
nik pila bat maite zaitut
ze izar txiki ze izar handi
ilargia hartuko dut! (bis)

U. Alberdi: Izar hoiek gorabehera
gabiltza ñoño antzera
ahaztu ditzagun behingoz izarrak
eta gu goazen gurera! (bis)

J. Soto: Berotu zara zu nonbait
ta egin behar da zerbait
lehen bost punta nituen eta
oain beste bat atera zait[12]. (bis)

U. Alberdi: Zure sei punta ta guzi
igurtzi eta igurtzi
itxi begiak eta apustu
baietz izarrak ikusi! (bis)

M. Amuriza-U. Alberdi ♫

Gaia: Bada irakiar emakume bat lapidatu egingo dutena, harrika akabatuko dutena, eta eskaera bakar bat egin du: harrikatzen duten bitartean bere semeak ez daitezela bertan egon.

Neurria: Zortziko handia
Doinua: *Haurtxo txikia negarrez dago I*

M. Amuriza: Berri hauekin munduak nola
ez du egiten dardara?
Kasu batzutan zentzua ere
galdu ote dugu jada?
Emakume bat lurperatuta
zigortua baldin bada
hura harrikatu gura duenak
merezi du harrikada.

U. Alberdi: Bera ezkonduta zegoen baina
etxetik kanpo maitea
eta itxuraz da heriotza
merezi duen kaltea.
Mundua hankaz gora jarri da
zer nahi duzu esatea?
Hiltzaile batek epaituko du
bere *infidelitatea*.

(12) Eskuin eskua zabal-zabalik zuela, jaso egin zuen.

M. Amuriza: Albistegian hori entzunda
harritzen gara zeharo
baina ezin dugu inola ere
muga hemendik igaro
ta Irakeko kode penala
guztiz okerra badago
amak ez dauka batere errurik
ta semeak gutxiago.

U. Alberdi: Estali nahian seme-alaben
begiak ta belarria
nola onartu behar dugu guk
hain egoera larria?
Nik aspaldiko esaera bat
dut honantza ekarria:
pekatutikan salbu dagonak
jaurti lehenengo harria.

M. Amuriza: Baina eskua ezkutatzen da
harria bota ondoren
eta kanpora begiratzea
gustatzen zaigu bederen
baina auzoan erreparatu
eta hara nola gauden!
Hemen berdinak gertatzen dira
harririk bota ez arren.

U. Alberdi: Arrazoi duzu ta lasaitasun
izpirikan ez dut bat'e
emakumeek jasaten dute
eta hamaika atake
eta begiak ixten ditugu
gu guziontzako kalte.
Ekin lanari han eta hemen
matxismoa amaitu arte!

BALIARRAN (2010-08-13)

Bertsolariak: M. Lujanbio, J. Maia, A. Egaña, A. Arzallus, S. Colina eta A. Sarriegi.

Gai-emailea: Amaia Agirre.

Hamabi urteren ondoren, bertso-eskola sortzearekin batera, bertso-saioa antolatu zuten herriko festetan. Gaueko hamaiketan izan zen, herriko pilotalekuan, eta ia laurehun lagun elkartu ziren.

M. Lujanbio-A. Arzallus

Gaia: Mendi edo harkaitz handi baten alde banatan zaudete. Elkar topatu nahian, zuen arma, zuen irudimen, alde banatatik hasi zarete zulatzen; elkar entzuten duzue, baina ez duzue elkar ikusten. Zu, Maialen, Euskal Herria zara, eta zu, Amets, independentzia.

Neurria: Zortziko handia
Doinua: *Ludi bizitza abesti gozoz*

M. Lujanbio: Bide ilunean abitu nintzen
ilunegia aukeran
askon ustetan beti nahiz egon
egun haundian bezperan
urte gehiegi daramatzat ja
itsu satorren tankeran
ia zalantza ere badaukat
existitzen ote zeran.

A. Arzallus: Zure ahotsa ailegatzen zait
beraz existitzen naiz bai
nahiz ta herriak maiz esan didan
“Nigana abiatu hai”
baina lurpeko askatasunik
hori inork ez luke nahi.
Ni aspalditik hementxe nago
zu noiz ailegatuko zai.

M. Lujanbio: Ta bitartean pasatzen dira
autobideak ta trena
Euskal Herrian ni zuregana
iristea da zailena
nahiz eta gure bidean egin
ohi degun ahal degun dena
bada baten bat zuloa ein ahala
lurra botatzen duena.

A. Arzallus: Bat baino askoz gehiago dira
horixe da gurutzea
hola zaila da tunel bat egin
ta biak besarkatzea
gu harkaitz baten bi alde gera
ni aurrea zu atzea
ez al da hobe harkaitza ahaztu ta
mendi puntan elkartzea?

M. Lujanbio: Arrazoi dezu ta beti gabiltz
maldan gorako obretan
beti biderik zailenetatik
ta malkar derrigorretan
ezin iritsiz nola nabilen
ametsarekin zorretan
bien bitarte kontatuidazu
zer dago alde horretan?

A. Arzallus: Alde honetan aspaldi ez du
giro onikan egiten
laino pila bat ikusten ditut
eguzkirik ez da irten
eta zeruko brisa gandua
begietatik ezin ken
hartza bezela lo nago hemen
udaberria itxoiten.

M. Lujanbio: Eta herrenkan hainbeste negu
udaberri baten truke
hemen bakoitzak bere aldera
bide-urratzen dihardute.
Zureganaino helduko gera
hori badakizu zuk'e
esku guztiek norabide bat
adosten baldin badute.

A. Arzallus: Esku guztiek egin behar dute
aztarri hemendik hortik
baina hemendikan bakarrikan ez
lan egin behar da kanpotik
ta askatasun tunel berri bat
iritsi da Kosovotik
hemen ezin bada abiatu
han egindako zulotik.

A. Sarriegi

Gaia: Behin, autoan nindoala, istorio moduko bat entzun nuen, eta halaxe dio istorioak: "Adineko bi gizon ospitalean daude, gela bereko ohe banatan. Bata ate ondoan eta bestea leihoaren ondoan. Atearen ondokoak egunero-egunero galdetzen dio besteari ea zer dagoen kanpoan, eta hark beti istorio politak kontatzen dizkio, nola uso baten atzetik dabilen ume bat, nola bikote gazte bat musuka dabilen... Atearen ondokoa inbidiatan dago eta heriotza besterik ez dio opa leihoaren ondoan dagoenari. Azkenean, hil da leihoaren ondokoa, eta atearen ondokoa leihoaren aldamenera pasatu dute, baina konturatu da leihoak patio itxi bat besterik ez duela erakusten".

Neurria: Hamaseiko handia
Doinua: *Haizea dator ifarraldetik*

Istorioa entzun degu ta
hartaz kantatu dezagun
mundu honetan guztiok gera
gauza askoren onuradun
baina etxean sarri bakarrik
egoten naiz kopetilun
inori ezin hitz eginez ta
bakardadearen lagun.
Gero kalean ikusten ditut
hainbat ta hainbat ezagun
bat bikotean zoriontsu da
besteak andrea haurdun
baina guztia daukanak ere
ziur nola zerbait nahi dun
ez daukaguna nahi degu eta
ez dakigu zer daukagun.

Baina bizitzak ematen digu
makina bat erakuspen
ez da komeni ibil gaitezen
daukaguna erakusten
eta begira jarri ezkero
besteek ze gauza dituzten
gure bihotza ere joaten da
usteltzen eta zapuzten.
Bizitzak berak jartzen dizkigu
hor nahikoa eragozpen
saiatu behar da aurre egin ta
horko pultsu horri eusten
jakin behar da nahiz ta buruak
askotan ez digun uzten
patio bati begiratzean
eguzki printzak ikusten.

Ate ondotik leiho ondora
hura joan zen bezala
orain badakit beti aurrera
begiratu behar dala.
Sarri ezkorra izatea da
nere izate naturala
ta gero gaizki pasatu ohi det
ez al da gauza normala?
Bizi osoan zorion bila
egiten da eginahala
ta badakigu horrek prezio
merkeegia ez daukala
sarri gerora ohartzen gera
denbora pasatu ahala
momentuan ez ohartu arren
zoriontsu izan gerala.

S. Colina-A. Egaña

Gaia: Zuek bikotea zarete. Zuk, Sustrai, arratsalde osoa pasatu duzu biontzat afaria prestatzen. Andoni etxera etorri denean, zuk arratsaldez une bakarti horretan piztu duzun irratia kolpe batez itzali du, telebista piztu, eta afaltzeko gogorik ez daukala esan dizu.

Neurria: Zortzikoa, berdinaren moldekoa, 6 puntuz
Doinua: *Aresoarren bandera / Aizak hi mutil mainontzi*

S. Colina: Zenbait kutixi ta premi
nahiz nahi nizkion eskeini
etxera marmar ailegatu da
ta hala komeni
sofara joan da Andoni
bazun nahiko zeremoni
ta orduan biak itzali gara
irratia ta ni. (bis)

A. Egaña: Egun osoan ahalegin
ni nere lantegian fin
orain etxera bi hankak ia
karraiatu ezin.
Zure jaki denei muzin
nik nahi nukeena Pittin:
telebistaren aurrean jarri
etzan ta lo egin. (bis)

S. Colina: Lanean zenbat adore
indar gogo ta balore!
Baina etxean aparte daude
irri ta umore
asmo eta pentsamolde
Andoni zuretzat gorde
neure beharrik ez al daukazu
lo egiteko're? (bis)

A. Egaña: Hau bizimodu tristia
hontaraino iristia!
Garai batean tigresa zinen
ni zure piztia.
Joan da desio guztia
ez da bizitza eztia
ni lokartzeko nahikoa da zu
hizketan hastia. (bis)

S. Colina: Beti eman eta eman
ta hala're beti teman
etorri eta izaten baitu
zapina aukeran
Mister Bean ala Superman
ta berdin Belen Esteban.
Egia esan ez dakit hemen
ze pintatzen dedan. (bis)

A. Egaña: Ni nago nekeak jota
ta zu belarria joka
torturarikan nik neuk ez diot
pertsonari opa.
Zoaz neberaren kontra
eta bi zerbeza bota
eta pakean utzi nazazu
Los Simpson dago-ta! (bis)

S. Colina: Barruan dudan mindura
nola azaldu mundura?
Derrepentean iyo baitzaizu
haizea burura.
Gure arteko lilura
ezerez bat bihurtu da
aspaldi hontan hartu baitezu
Homer-en[13] itxura. (bis)

A. Egaña: Garai bateko lujua
gaur egun nago lur jua
ederki asko egin diguzu
gure dibujua
zuk keja ta nik ujua
a ze biko marrajua!
Etorkizunik ez degu eta
lotara nijua. (bis)

(13) Homer Simpson.

GABIRIA (2010-08-14)

Bertsolariak: X. Paya, U. Iturriaga, I. Ibarra, M. Artola, E. Igartzabal eta B. Gaztelumendi.

Gai-emailea: Eñaut Asurabarrena.

Jaietan urtero antolatzen dute jaialdia. Gauean izan zen, saloian.

X. Paya-U. Iturriaga ♫

Gaia: Atzo Fidel Castrok laurogeita lau urte bete zituen.

Neurria: Zortziko handia
Doinua: *Haurtxo txikia negarrez dago I*

X. Paya: Fidel Castrok laroita lau urte
zorionak! Itzel! Itzel!
Bizarra dauka urdindua ta
azala du ximel-ximel.
Iraultza bizirik dago oraindik
oraindik bizi da Fidel
baina herria jada ez dabil
hark nahi duen bezain fidel.

U. Iturriaga: Baina sarritan interpretatzen
dira gauza hoiek arin
diktadore lez hartu izan da
ta horrek ematen dit min.
Denean ados ez egon arren
zenbat gauza on duen egin!
Ezinbestekoa izan da Kuba
subiraua izan dadin.

X. Paya: Subirauak beti esan nahi du
pertsona baten esklabo.
Alde hortatik ideia horrekin
horren konforme ez nago
kapitalismo handiak jada
irentsi ditu zeharo.
Haren ametsa ez ote da hil
gorputza baino lehenago?

U. Iturriaga: Jakina da Kuban ez dagola
ez jende guztia pozik
lehen munduan gehiengo dela
sinisterainoko kasik.
Baina ez nago zurekin ados
ez lasai hau esan ezik:
harena ez da amets bat izan
errealitatea baizik.

X. Paya: Ez dakit errealitate horrek
debalde zuen laguntza
baina behingoz hil behar zaizkio
arima eta gorputza.
Orduan soilik ikusiko da
zer den Kubako iraultza
herri oso baten nahia edo
ero baten amets hutsa.

U. Iturriaga: Gehiegi kutsatu ote garen
orain kantatuko nuke.
Kubako iraultzak izan baditu
bere hamaika bertute
ustelkeria ere izan da
sarri eskasiaren truke.
Fidatzeko nahiko ez al dira
berrogeita hamar urte?

M. Artola-E. Igartzabal

Gaia: Zuek biok Irizarren egindako autobus bati begira ari zarete.

Neurria: Zortziko txikia
Doinua: *Nere senarrarekin I*

M. Artola: Atten kontua einda
hainbeste otordu
elektrizista pasa
ditu mila ordu!
Ta hara autubusa
hor aurrean dugu
honek egunez soilik
biajatuko du! (bis)

E. Igartzabal: Beraz ilundutakon
hoi ibili ezin
oso gauza normala
eletrizistekin
autobus dotoreak
ohi dituzte egin
dena soluzionatuz
porra txikiakin. (bis)

M. Artola: Nahikoa egingo du
honek abitzea
eta berehalaxe
igual gelditzea.
Zure atten lana omen da
hok diseinatzea
ni dudan nago zein dun
aurre ta atzea. (bis)

E. Igartzabal: Porra txikiarekin
ze-nolako grina!
Denak *koinziditzeko*
egin ahalegina.
Horrenbeste autobus
linean egina
ta bakarra ez dago
bestean berdina! (bis)

M. Artola: Igual arrazoia du
nere ondokoak
denak ez dira-eta
berdin antxekoak
gurdi politagokin
badabiltz astoak!
Hauek izango dira
Txinako gustoak. (bis)

E. Igartzabal: Gure attek Irizarren
ezin zen bestela
nahiko bajua dago
langilen nibela.
Pentsatze't dana gaizki
aterako dela
lanen ibiliz gero
etxean bezela. (bis)

M. Artola: Igual arrazoi dezu
hobeto aparte
lanerako hartuta
horrenbeste tarte.
Hala ere ez da izango
guretzako kalte
segi zazu horrela
jubilatu arte! (bis)

E. Igartzabal: Lanari ia dute
tamaina hartuta
hil bukaeran gustora
nahikoa kobrauta.
Irizarren hainbeste
urte pasatuta
jubilatzen dienen
bik estresatuta. (bis)

DONOSTIA (2010-08-20)

Bertsolariak: J. Uria, A. Arzallus, S. Lizaso eta I. Alustiza.

Gai-emailea: Jon Zaldua.

Donostiako Aste Nagusiaren barruan antolatutako saioetako bat. Easo plazan izan zen, eguerdiko hamabi eta erdietan, laurehunen bat lagun entzuten zirela.

S. Lizaso-A. Arzallus- J. Uria-I. Alustiza

Gaia: Donostia, 2016ko Kultur Hiriburu izateko hautagaietako bat da. Bertso batean azaldu behar duzue zergatik merezi duen hori lortzea, eta beste batean zer egin behar duen gehiago hori lortu ahal izateko.

Neurria: Zortziko handia
Doinua: *Haize hegoak hurbiltzen ditu*

S. Lizaso: Aspalditikan sartua dago
hori lortzeko planean
kulturgunea Europarako
izateko afanean
eta zergatik merezi duen
garbi dago azkenean
hiri osoa ari delako
hori lortzeko lanean. (bis)

I. Alustiza: Hiri guztia dauka gaurkoan
berarekin bere alde
ta hiritarrok bultzako degu
nola beraiekin gaude
kultura aldetik aniztasuna
baina gauza bat hala're:
kulturak bultza ditzala baina
hemenguak ahaztu gabe. (bis)

A. Arzallus: Donostik kultur lidertzarako
ez du falta interesik
baina herri bat ez da osatzen
herritarrek bultza ezik
eta orduan merezi badu
nik kantatuko dut pozik
ez da Udalaren ekinagatik
donostiarrengatik baizik. (bis)

J. Uria: San Mames batek Anoeta errez
estal lezake itzalez
beraz kirolen hiriburua
Bilbo da bere azalez
Aste Nagusiz parrandak ere
han hobeak dira tamalez
beste denean Bilbo hobea da
baina kulturan igual ez. (bis)

S. Lizaso: Hainbeste gauza iragarriak
antolakuntza tarteko
egitaraua denen gustora
noski ez dute beteko.
Bakoitzak bere alea jarri
ez da izaten kalteko
hiritarreri aukera emanez
iritziak emateko. (bis)

I. Alustiza: Nik iritzi bat badaukat eta
aipatuko det seguru
hiri honetan jai herrikoiak
eta gai horren inguru
piratak eta Porrontxoekin
pasa gabe hainbat apuru
Europarentzat ez dakit baina
guretzat balioko du. (bis)

A. Arzallus: Mila aldaketa egin litezke
mila gauz berri ekarri
baina Donostik izan nahi badu
abangoardiaren herri
oso erabaki errex bat bada
emango det bere berri:
Illunbetikan zezenak kendu
ta bertsolariak jarri. (bis)

J. Uria: Bertsolariak jarrita beraz
zezen guztiak kentzeko
saioak ere nahi genituzke
hemen egun bakoitzeko.
Beldur bat badut jartzen nauena
erdi kopeta beltzeko
sei urte nahiko izango diren
falta zaiona lortzeko. (bis)

BILBO (2010-08-22)

Bertsolariak: I. Elortza, J. Maia, F. Paia eta A. Egaña.

Gai-emailea: Leire Aurrekoetxea.

Bilboko Aste Nagusiko lehenbiziko bertso-saioa. Santiago plazan izan zen, eguerdiko ordu batean. Bero egin arren, jendetza bildu zen Santiago plazara bertsoak entzutera; han elkartu ziren goizean goiz kalera irten zirenak, bezperan parrandan ibilita ere eguerdian ohetik altxatzeko nahikoa indar izan zutenak eta, nola ez, bezperako parrandatik oraindik etxeratu gabe kalean ibiltzeko indarra soberan zutenak.

I. Elortza-J. Maia-F. Paia-A. Egaña

Gaia: Eusko Jaurlaritzak lehenengo aldiz hartuko du parte *I need Spain, Espainia behar dut* izeneko kanpainan, eta zur eta lur geratu zarete zuengana jo dutenean parte hartzeko eskatuz.

Neurria: Zortziko handia
Doinua: *Pello Josepe tabernan dela*

A. Egaña:

Benetan gauza bitxia dugu
Jaurlaritza honen plana:
ahal dan modura Españarekin
indartu nahi harremana.
Baina pentsatzen jarri ezkero
zerta datoz guregana?
Guk Espainian beharrik gabe
egiten baitugu lana.

F. Paia: Historikoki España izan da
heriotz bonbardaketa
gure hizkuntza debekatu ta
gu geu zapaltzeko beta.
Lehendakaria kanpaina horri
jarri eiozu arreta
España behar izate hutsa
ezbeharra litzake-ta!

J. Maia: Bere arazoak tapatzeko du
bizirik gure problema
hemendik behera dagon krisia
ta bizi-itxaropena.
Guk Españarik ez dugu behar
ez ote da nabarmena?
Ta ez ote da España bera
gure beharra duena?

I. Elortza: Espainiaren gorazarrea
Euskadiren izenean
deituagatik gu ezin jausi
Jaurlaritzaren menean.
Basque Country gara eta *Basque State*
izango gara azkenean
ta "*I need Spain*" esango dugu
han turista garenean.

A. Egaña: Imajinatu Iturriaga
Avila aldean tira!
Lizaso berriz Guadalajaran
erdi mexikar guztira
ta Mañukorta Zaragozara
han Moncayori begira.
Kanpaina hori eginez gero
eurak damutuko dira.

F. Paia: Eta ni ere Caños de Mecan
bertso-saiotan jarduna
gure Egañak Jerezen egin
lezake saio txukuna
baina beharra ta turismoa
da bereiztu behar duguna.
Españangatik behar duguna
soilik da askatasuna.

J. Maia: Patxi Lopezen zin egitean
Gernikan Guardia Zibila
eguraldian mapan sartu da
ia Ceuta ta Melilla...
Kultur beharrik badu Españak
neregatik joan dadila
bere kulturan ikonoa den
Belen Estebanen bila.

I. Elortza: Hartu ezkero Jaurlaritzaren
eskariak daukan ganga
torerotara joango ginake
ta Bisbalekin parranda.
Tentagarria da oso baina
nahiago egia esanda
Lagan bainu bat hartu ta Aste
Nausian bokata janda.

AMEZKETA (2010-08-24)

Bertsolariak: S. Lizaso, A. Egaña, A. Mendiluze, A. Arzallus eta J. Soto.

Gai-emailea: B. Gorostidi.

San Bartolome jaiak ospatzen dituzte Amezketan, eta urtero bezala, bertso-saioa izan zuten jaietako egun nagusian. Altuna Anaiak pilotalekuan izan zen, gaueko hamar eta erdietan. Berrehunen bat lagun elkartu ziren bertsolariak entzutera.

S. Lizaso-A. Egaña-A. Mendiluze A. Arzallus-J. Soto

Gaia: Egun batek une asko izaten ditu, eta egunean zehar denok izaten ditugu une kutunak, beste ezerengatik aldatuko ez genituzkeenak. Zuek egunean zeharreko zein unerekin geratzen zarete? Zuentzat zein da eguneko unerik kutunena?

Neurria: Zortziko handia
Doinua: *Haize hegoak hurbiltzen ditu*

S. Lizaso: Hoita lau orduz kuttunena zein
sortu liteke ezbaia
gauari beti hartzen diot nik
une kuttunan usaia
alde batera utziz goizean
ohean gelditu nahia
ia unerik politena da
gosaritako garaia. (bis)

A. Egaña Gosaritako garaia digu
Xebastianek berezi-ta
neretzat ere halaxe dala
nago pentsatzen hasita:
kafesne on bat, ogi berria
etxepean erosita
egunkaria, lehen zigarroa
ta komunera bisita. (bis)

A. Mendiluze: Gu berriz jeiki eta korrika
egunez martxa jarraia
arnasa biz behin hartzen degula
ez da karrera lasaia!
Hasiera ez bereziena
da egunaren amaia
argia itzali ta beste denek
lo hartzen duten garaia. (bis)

A. Arzallus: Batzuk gogoa kumunean ta
beste batzuk otorduan
loak ametsa izaten du ta
Ametsek loa goguan
nere unerik kuttunenean
nago aingeru moduan
neure izenak eta izanak
bat egiten dun orduan. (bis)

J. Soto: Egunez tarte berezi bat dut
uzte ez dudana sekulan
komunean sartu atea itxi
jarri grifoaren mugan
hamar minutu behar izaten dut
jardun ezkero itxuran.
Oain zuen lana da asmatzea
ordun zer egiten dudan. (bis)

HONDARRIBIA (2010-08-28)

Bertsolariak: A. Mendiluze, A. Sarriegi, X. Paya eta S. Colina.

Gai-emailea: Karlos Aizpurua.

Euskara Zerbitzuak antolatu ohi duen jaialdia, Ama Guadalupekoaren jaien atarian. Santiago kalean izan zen, ilunabarreko zortzietan, laurehunen bat lagun entzuten zirela.

A. Mendiluze-X. Paya ♫

Gaia: Orain dela hamar urte ezagutu zenuten elkar, Hondarribiko jaietan, eta gaua goxo-goxo pasatu zenuten. Geroztik ez duzue elkarren berririk izan, harik eta kasualitatez, gaur, Hondarribiko jaietan, berriz topo egin arte. Elkar ikusi eta elkar ezagutu duzue.

Neurria: Zortziko handia
Doinua: *Ilun ikarak azken argia*

A. Mendiluze: Gaur hamar urte polita izan zen
badakit ta badakizu
berriz topatu ta urduri nago
hain berezia beti zu
baina ez gerala lehengo berdinak
begiek eurek abisu:
neri hamar urte pasa zaizkit ta
zuri geratu zaizkizu.

X. Paya: Ze gazte ginen eta ze jator
elkarrentzat nobedade
zu horren mutil jatorra eta
ni inoiz izateko andre.
Orduan segi nahi nuen baina
zuk esan zenidan “Bale”
zintzilik utzi genuen hura
segitzeko prest al zaude?

A. Mendiluze: Orduan gazte xamarrak ginen
bageneukan nahiko asti
baina pixka bat beldurtu nintzen
ibili behar baita azti.
Zintzilik utzi genuen hartaz
segi nahi zenuke noski
zintzilik utzi genuen hura...
zertaz zabiltza zehazki?

X. Paya: Sujetadore bat ez zen izan
metafora alegia
gogoan daukat hondartza ondoan
ze-nolako komeria!
Nire lorea eman nahi nizun
nire opari handia
orain polita izan liteke
baina ez da lehen aldia.

A. Mendiluze: Beraz pasa zen lehen aldia
lehenengo txoro aroa
baina oraindik mantentzen dezu
ordun piztu zen gogoa
ni ordea pixkat aldatu egin naiz
denbora aurrera doa:
helduago naiz, guapoagoa
ta exijenteagoa.

X. Paya: Guapoagoa, helduagoa
ai ama! *En fin Serafin*!
Hara ze gauza bizi behar diren
gaur egungo gizonekin!
Hamar urtetan ondorio bat
aterako dizut fin-fin:
denbora asko pasatu duzu
zure bi amona hoiekin.

A. Mendiluze: Guapoagoa ez banaiz zertan
zatoz orduan bertara?
Bueno ez nuke diskutitu nahi
ta erantzun gabe laga.
Arrazoi dezu gogoa dezu
ta goazen jolas hortara
sekula hanka sartu behar bada
festetan sartu behar da!

X. Paya: Eta azkenean tokatu zaigu
bioi gerria mugitzea
ez da erreza lehengo garaiak
hoiek orain astintzea.
Exijentziak bajatu zaizkit
nahi baduzu azaltzea
hamar urtetan; orain dagokit
rebajetan ibiltzea.

ATAUN (2010-09-03)

Bertsolariak: U. Muñoa, I. Ibarra, I. Gurrutxaga, A. Agirre, J. Soto eta I. Urdangarin.

Gai-emailea: Inazio Usarralde.

San Gregorio jaiak zirela-eta antolaturiko jaialdia. Pilotalekuan izan zen, gaueko hamaiketan, eta ehunen bat entzule elkartu ziren. Ohi bezala, kamioi gainetik kantatu zuten.

I. Ibarra-I. Urdangarin ♫

Gaia: Urriaren 16an jaialdi erraldoi bat egitekoa da Ordizian, herrien edo nazioen autodeterminazioaren alde. Eskoziarrak etorriko dira, herri-kirolak izango dira eskoziarren eta euskaldunen artean, haurrentzako ekitaldiak izango, kontzertuak... Zuek herri-ekimen horren bi antolatzaile zarete. Jaialdi hori bereziki zertarako aprobetxatu beharko genuke?

Neurria: Zortziko handia
Doinua: *Hamaika aldiz daukazu lehendik*

I. Ibarra:
Kontzertuak ta emanaldiak
antolatuta ederto
herri-kirol ta beste abarrekin
egitaraua konpleto.
Aukera hartu behar genduke
guztiok elkar hartzeko
geure burua ezagutu ta
besteei erakusteko.

I. Urdangarin: Antolaketan ibili eta
nahiz ta ez deun lortu bela
festa galanta prestatu degu
ezin liteke bestela.
Zertan azaldu aurpegi triste
iluna eta goibela?
Behingoz munduak ikus dezala
herri bakar bat garela.

I. Ibarra: Egia da bai ez dago zertan
beti ere jasan burla
herri bakarra aipatu dozu
jakin arrazoi duzula
lehenago ere esan izan dut
ta ez zait ahaztuko sekula
herri bakarra garela eta
disfrutatzen dakigula.

I. Urdangarin: Urte luzeetan pasa ditugu
nik ez dakit zenbat garai!
Ta zertan egon ondoko batek
eskura emateko zai?
Egin dezagun dakigun eran
festa bat eginaz alai
lehendik ere ondo dakite
nahiz ta ez duten jakin nahi.

I. Ibarra: Lehendik ere ondo dakite
potentziala badago
horrexegaitik ez gara egongo
beti inoren esklabo.
Eskoziarrak ere badira
gona bat baino gehiago
eta geu ere joan behar gara
folkloretik haratago.

I. Urdangarin: Festa ederra izango dala
benetan nago seguru
nahiz ta bidean pasa ditugun
mila ta hamaika apuru.
Gure herria eskutan hartuz
amets bakar bat helburu:
itxita dauden begi guztiak
zabaldu behar ditugu.

ALKIZA (2010-09-11)

Bertsolariak: A. Arzallus, A.M. Peñagarikano, A. Egaña, M. Lujanbio, B. Gaztelumendi eta S. Lizaso.

Gai-emailea: Amaia Agirre.

Alkizako jaietan urtero antolatzen duten jaialdia. Gaueko hamaiketan izan zen, pilotalekuan, eta ohi bezala, entzule ugari elkartu zen, hiru-rehunen bat lagun.

A. Arzallus-A.M. Peñagarikano-A. Egaña M. Lujanbio-B. Gaztelumendi-S. Lizaso

Gaia: 2001, irailak 11, asteartea. Gogoratzen al zarete egun hartan albistea jaso zenutenean non zeundeten, norekin...?

Neurria: Zortziko handia
Doinua: *Hamaika aldiz daukazu lehendik*

A. Arzallus:

Ez nintzen egon ez Nueva Yorken
ez Hendaian ez Alkizan
ikasle gisa esamin baten
Irunen gertatu nintzan.
Beraz bi irail hamaika hoiek
beti gogoan bizitzan
egun hartan nun egondu ginen
ta gaur nun ez geran izan.

A.M. Peñagarikano: Irailaren hamaika baten
jende asko zeinen larri!
Ia ahaztuta neukan nik baina
berriz burura etorri:
Egañarekin ni Erasunen
bertsotan buru-belarri
eta Retegik guri eman zigun
atentatuaren berri.

A. Egaña: Halaxe da bai egia esan du
hargatik nago gustora
Julian Retegi heldu zitzaigun
hain xuxen bion ondora
eta galdera egin genion
"Julian zenbat hildako da?"
erantzun zigun "Ez zekit ziur
baina hogeita bitik gora".

M. Lujanbio: Baserritarren eguna zan ta
Hondarrabian nun hartu
han alkandora kuadrodunez ta
permanentez inguratu.
Nahiz historia dena irauli ta
kalendaiua mugatu
hango zezen ta behiek ez zuten
kinurik ere mudatu.

B. Gaztelumendi: Bazkaldu eta etxean nengon
klasera bueltatzeko zai
eta ez nintzen begi aurrean
neukana ulertzeko gai
hamalau urte neuzkan orduan
gazte xamarra nintzan ai!
Egun hartatik ni aldatu naiz
eta mundua ere bai.

S. Lizaso: Pentsatzen jarriz oroitzapenak
hainbeste gauza dakarte
Nafarroako Oitzen nintzan
bertso-bazkarian parte
festa giroan irrati eta
telebistatik aparte
gertatu zena ez nuen jakin
etxera etorri arte.

A. Arzallus-S. Lizaso

Gaia: Lazkao Txikik esana da, politikan ez dagoela gauza politikan. Eta Edward Kennedyk esana da politikan, matematikan bezala, zuzena ez dena oker dagoela. Bistan da bi euskaldun zaretela, bi belaunaldi desberdinetakoak. Gaur bi deialdi eginda zeuden, herritarrak kalera ateratzeko, eta biak debekatu dituzte. Zu, Sebastian, azkenaldian egoera honekin etsitzen hasita zaude. Zu, Amets, alderantziz, sekula baino gogotsuago, sekula baino beroago zaude egoerari aurre egiteko.

Neurria: Zortziko handia
Doinua: *Haurtxo txikia negarrez dago I*

A. Arzallus: Gaur manifa bat zegoen Bilbon
azkenean ze tamala!
Begira zazu zer gertatu den:
hutsik hain kale zabala.
Gisa hortako debeku hori
nik uste det ona dala
esan nahi baitu Madril aldean
beldurtzen ari dirala.

S. Lizaso: Beti biharko beti biharko
pasa dira hainbat urte
ta etsipena zabalduz doa
ilusioaren truke.
Ilusioai bizirik eusten
erreza denik ez uste
ateak zabaltzea galazi
leihoak ixten dituzte.

A. Arzallus: Baina kanpoko istura hoiek
txarrak direnik ez uste
iruditzen zait geure barrua
senti litekeela aske.
Atzo Intxaurraga, Goirizelaia
Zarroa eta beste
esan zaidazu: aspaldian noiz
elkartu gera hainbeste?

S. Lizaso: Nahiz eta atzo batzuek egin
deialdiaren bezero
epaile harenak jakin eta
gauza onik ezin espero.
Lepotik ixtutzen ari dira
egunero-egunero
itolarria berezkoa da
arnasa kendu ezkero.

A. Arzallus: Baina arnasa nundik eragin?
Miatu ditut goi ta behe
geure esku dago etorkizuna
entzun zaidazu bazpa're:
manifa batek zertan behar du
legalidadea jabe?
Hurrena kalera joango gera
baimenik eskatu gabe.

S. Lizaso: Hurrengorako ikusten zaitut
itxaropentsu antzean
baina etsiak errez jotzen nau
egoeraz pentsatzean:
kalera eta baimenik gabe
geroa jarriz trantzean
beste batzuek agintzen dute
kalean eta etxean.

A. Arzallus: Baina agian gure aldera
bihur leike aulki-dantza
ta politika zenbakiek maiz
egiten dute mudantza.
Nik sinisten det sor litekeela
begiratuz aurrerantza
zure etsipena urratzeraino
helduko dan esperantza.

S. Lizaso: Nik esperantza lehen izan nuen
azken boladan akabo
begira jarri geroarentzat
argi printzarik ez dago.
Etorri aurrez zeruai beira
erne egon naiz lehenago
izar batzuek ikusten ziren
baina lainoak gehiago.

A. Arzallus-M. Lujanbio

Gaia: Maialen, Amets zure 90 urteko aitona da. Ospitalean daramatza azken bi hilabeteak, gaixorik. Elkarri eskutik helduta tertulia goxoan aritu zarete, eta agurtzerakoan hala esan dizu aitonak: "Hi, Maialen, bihar nire ezkontzako trajea ekar ezan, heriotzaren aurrean dotore egon nahi dinat eta".

Neurria: Hamarreko txikia
Doinua: *Lagundurikan danoi I*

A. Arzallus: Larogeita hamar urte
denak banan-bana
gogoratzen hastea
pentsatu ze lana!
Igarri det kandela
itzaltzen doana
traje hori ekarri
biloba laztana
dotore joan nahi det
amonarengana.

M. Lujanbio: Berde-berdeak hemen
dauzkazu lau horma
dena da oihartzuna
ta izuaren sona
barruan sartu dizu
ikara sakona.
Nik trajea ekarri
nezake bai hona
baina oaindik joan beharrik
ez dezu aitona!

A. Arzallus: Ai ilobatxo maite
Begira! Begira!
nere begi argia
itzaltzen ari da.
Pauso honekin ezin
joan urrutira
maite det bizitza ta
famali distira
joan beharrik ez det baina
deika ari dira.

M. Lujanbio: Dei egiten al dizu
heriotzak ozen?
Edo amona ai al da
"Goazen! Goazen!"?
Heriotzaz hain larri
mintzatzen da maizen
ta bera horren lasai
mintzatzeko gai zen
ez dakit tristetu edo
poztu egin naizen.

A. Arzallus: Beraz bi sentimentu
barruko txokoan
nahiz bizitza oso bat
daukadan jokoan
tristurarik ez daukat
joaterakoan
beti amets hau izan
det nere gogoan:
duintasunez bizi ta
duintasunez joan.

M. Lujanbio: Trajea jaso det bai
solapa ta mahuka
aitonan eskariak
txundituta nauka.
Trajean pipia're
denboraren aurka
amona hil zenetik
ez bizi ez taupa
bihotzaren parean
zulotxo bat dauka.

A. Arzallus: Eta ja ez banago
ni zure kerizan
zuk pentsatu "Aitona
zoriontsu hil zan".
Aholkutxo bat hartu
nere hitzen ditxan:
bizi zaitez bizitzak
merezi dun gisan
baina heriotzari
bildurrik ez izan.

M. Lujanbio: Heriotza baitator
bizitzan segidan
hori ondo ulertzen da
baserriko jiran.
Nik laister esango det
nola egia hori dan
“Bizitzan eredua
izan nun nik nigan
ta aitonak hiltzen ere
erakutsi zidan”.

A. Arzallus: Baina belztu aurretik
erabat kopeta
azken galderatxo bat
umore kolpeka:
trajea eman zaidazu
patrikak beteta
sartu xox batzuk edo
bankuko *tarjeta*
han ere tabernan bat
egongo da eta!

Erreñotzuko bertso saioa.

Iturria: XDZ

BERMEO (2010-09-12)

Bertsolariak: M. Amuriza, E. Arozena, A. Arzallus, I. Elortza, A. Egaña eta M. Lujanbio.

Gai-emailea: Bernardo Mandaluniz.

Urtero izaten dute hitzordua bertsolariek Bermeon, herriko jaietan. Igande gauean izan zen, eta hirurehunen bat lagun izan ziren herriko pilotalekuan bertsoak entzuten.

I. Elortza-E. Arozena ♫

Gaia: Igor deprimituta dabil aspaldi honetan, eta Estitxurengana joan da laguntza eske. Berak esango du ea zer sintoma dituen.

Neurria: Zortziko handia
Doinua: *Beti penetan beti penetan*

I. Elortza: Igual ez jatzu irudituko
zuri hainbesteko problema
baina alaba bat ekarri gendun
eta gero bigarrena
neurekoia naz ta nere poza
gero bihurtu da pena:
lehen neu etxeko errege nintzen
eta oin naz laugarrena.

E. Arozena: Etxean beste hiru dituzu
ta zaude era tristean
poz gehiegirik ez duzu izan
laugarrena iristean
baina denbora aurrera joango
eta ordua hustean
ez da askozez hobe izango
kabi hutsa iristean[14].

I. Elortza: Ta bertsotan be ezautua naz
ni bi edo hiru sasoi
txapeldun dio Bernardok baina
aspaldi joa hainbat goi
ta azkenengo txapelketa hortan
hamahirugarrena doi-doi
lehen Bizkaiako errege nintzen
oin Euskal Herriko bufoi.

E. Arozena: Euskal Herriko hamahirugarren
ez da edonor izaten
ta jakin behar da datorrena
behar den eran hausnartzen.
Egia da bai zu ez zaudela
bertso munduan hain konten
hurrengo baten hasi zaitezke
doinu alaiago baten.

I. Elortza: Doinu alai bat zertako hartu
ez badaukat nahiko grazi?
Nere desgrazi horren bidean
ez dot eze be ikasi
ta frakasoen frakasatua
bihurtua nago kasi
bi urteko alabai be ezin deutsat
partxisean irabazi.

(14) “Ikustean" esan nahi zuela dirudi.

E. Arozena: Zure etxea, bertso mundua
guztia duzu kartzela
kontatzen duzun dena gezurra
izan daiteke bertzela.
Nere aldetik eskatzen dizut
mejoratu zaitezela
familikoak lagun hartuta
eta ez etsai bezela.

I. Elortza: Ba pentsau neban akabatzea
betiko nire problema
ta itsasora botatzea igual
izango zala onena
eta hain justu hautatu urteko
mariarik bajuena
ta ha izan zan kaskarrekoa
Bermion hartu nabena!

E. Arozena: Zure problema denak entzunda
ni naukazu harrituta
bertsoek edo etxeko denek
nork ote du hemen kulpa?
Baina azkeneko mezua entzun
eta ongi hausnartuta
marea gora etorriko da
olatu on bat hartuta.

(13) Hide: "Jai", ingeleraz ahoskatuta.

LEZO (2010-09-15)

Bertsolariak: S. Lizaso, A. Egaña, J. Soto eta M. Amuriza.

Gai-emailea: Jon Zaldua.

Lezoko jaietan Baserritar Eguna ospatzen dute, eta egun horretan beti ekartzen dituzte bertsolariak. Eguerdian, baserritarrekin bazkaldu zuten bertsolariek, eta iluntzean, herriko plazan kantatu zuten, berrehunen bat entzuleren aurrean.

S. Lizaso-A. Egaña-J. Soto-M. Amuriza

Gaia: Arratsaldean, idi-demetan, jendea kezkatuta ikusi dut. Orain, modan jarri dira zezenen aurkako kontzentrazioak-eta, eta batzuk behintzat beldur dira idi-demak ere debekatuko ote dituzten.

Neurria: Zortziko handia
Doinua: *Kantore berri xarmant batzuek*

S. Lizaso:
Dirudienez batzuek kezka
dadukate barrenean
ez ote leiken berriz ikusi
plazan iririk lanean
beste batzuek berriz ohitura
utzi nahi dute lehenean.
Suai egurra zergatik bota
itzalita dagonean? (bis)

A. Egaña: Sua itzalita dagola dio
denak utzi nahi lehenean
baina taldeak Katalunian
hor ari dira lanean.
Idiekin zer egin behar da?
Kezka badut barrenean
ohitura zaharrak onak baitira
baina onak direnean. (bis)

J. Soto: Lehenbiziko aldiz gaur ikusi dut
eta tristura eman dit
makilan puntaz idi parea
astinduz hemendik handik
lerdea odolez hortz tartetik ta
odola bero hankatik
debekatuko balituzkete
ez dute arrazoi faltik. (bis)

M. Amuriza: Indarkeriaz baliaturik
asko ta askoren gustoak
animaliek hartzen dituzte
kolpeak eta sustoak.
Nire herrian ikusi ditut
irudi triste askoak:
harriarekin idiak eta
akuluakin astoak. (bis)

S. Lizaso: Denborak beti ekartzen ditu
gauz denak bere tokira
kritika ere ondo da baina
bakoitza bere neurrira.
Iri demakin kexaka hemen
batzuek hor ari dira
ta bitartean gozatzen dute
boxeoari begira. (bis)

A. Egaña: Gaur egunean idiak dira
Urtain genuen lehenago
lehen bertsoan aitortu det nik
deus ere ez daukat klaro
idiekin zer gertatuko da?
Denbora behar igaro.
Bat izan edo bestea izan
debekuen kontra nago. (bis)

J. Soto: Idi jabeak hala esango dit
" Ez zazu ahaztu sekula
idiekiko dut maitetasun
haundia eta ez ahula"
ta hala bada esango diot
gozo, egin gabe burla
maitatzearen oso kontzeptu
ezberdina daukagula. (bis)

M. Amuriza: Plazara irten ta ikustea
animaliaren marka
askorentzako izan daiteke
espektakulo galanta.
Idi-demarik ez dugu behar
ta zalerik ez da falta
egitekotan jar daitezela
eurek harriai tiraka. (bis)

S. Lizaso-J. Soto

Gaia: Aurtengo udan moda berri sortu da Balear uharteetan, *balkoning*a edo hoteleko balkoitik igerilekura zuzenean salto egitea. Moda horrek tentatuta, zuek *balkoning*a egitea erabaki duzue. Lehenengo batek egingo du salto eta besteak grabatu; eta gero alderantziz. Ez dakizue, ordea, zein ordenatan egin.

Neurria: Zortziko txikia
Doinua: *Kantatzera nijoa*

J. Soto: Begiratu azpian
bi ama lau nini
beldurtzea baina ez zaigu
oraindik komeni
ireki balkoia ta
ertzean ipini
kamarakin hobeto
moldatuko naiz ni. (bis)

S. Lizaso: Hobe zu zeu jartzea
balkoian gertuko
nik aurrena joateai
egin behar uko
bestela zu ez zaitu
lurrak ondo hartuko
ni saltatuta ez da
urik geldituko. (bis)

J. Soto: Nahiz ez esan nik ere
uste nun horrela
belarra utziko du
urez mela-mela
bideoa izango da
kristona itzela
bertsoa bota ezkero
airean zaudela. (bis)

S. Lizaso: Belarriak prest dauzkat
ondo zabaltzeko
ta balio bezate
frenuan antzeko.
Utzi telefonoa
kamara hartzeko
azkarregi joango naiz
ondo grabatzeko. (bis)

J. Soto: Lizasok hala egin dit
leheno berriketa
jende aurretik baitauka
zeoze gordeta
“Julio nahigo nuke
kauen la puñeta
urez beharrean balego
txanpainez beteta!". (bis)

S. Lizaso: Urak sortu daitezke
hainbeste oztopo
ta salto egitea
utzi nahi geroko
txanpainakin ein banu
nik piszinan topo
ez nuen saltatuko
ez nintzen igoko. (bis)

J. Soto: Ez zinela botako
ados naiz horretan
baina txanpainarena
esan dut brometan.
Bota zaite agudo
ona da benetan
eta hartuko zaitut
bueltan besoetan. (bis)

S. Lizaso: Nik broman esan dizut
ez nedukan planik
beraz horruntz saltatzen
zertan hartu lanik?
Zu balkoian eskinan
dudatan oraindik
ausartzen ez bazera
bultzako dizut nik. (bis)

J. Soto: Ez zeorri bota zaite
akabo bestela
gogoratu zait baina
berriz'e eskela
piszinan hil ezkero
beste asko bezela
esango dugu gizon
zintzoa zinela. (bis)

S. Lizaso: Gauzak aldatzerikan
ez nuke merezi
santua izateko
ez ninduten hezi
formala izan nintzela
esaten ez hasi
golfoan famarekin
nahiago det bizi. (bis)

J. Soto: Erabaki behar da
kaguen la ospera
den gure hasiera
edo akabera!
Ez bata ta ez beste
etorri aurrera
heldu eskutik eta
goazen batera. (bis)

S. Lizaso: Utzi eskuak eta
utzi nei pakean!
Hementxe ari ginen
biok jo ta kean
nor saltatu aurrena
eztabai betean
moxkorra pasa zaigu
bien bitartean. (bis)

IRURA (2010-09-26)

Bertsolariak: M. Lujanbio, U. Alberdi, J. Soto eta A. Sarriegi.

Gai-emailea: Aitor Mendiluze.

Azken urteetako ohiturari jarraituz, bertso-saioa antolatu zuten San Migel jaietan. San Migel plazan, arratseko zazpietan, berrehunen bat entzule aurrean zirela.

A. Sarriegi

Gaia: Udazkenean natura biluztu egiten omen da, bere barrua erakusten omen du, udaberrian soineko berria jantzi ahal izateko. Udazken honetan bada biluzten ari denik, udaberrian soineko berria janzteko.

Neurria: Hamarreko handia
Doinua: *Zure eskaerak egia esan*

Zuhaitzak galdu hostoak eta
basoan zehar orbela.
Aspaldi esan ziguten zerbait
berria bazetorrela
ikusi dugu oraingoz zer den
esan ziguten bezela
jantzia erdi erantzirik da
edo osorik bestela
ta hala ere askok esaten dute
ezer berririk ez dela. (bis)

Ikusi dugu nola urteetan
zein ta zertan geran jardun
mundu aurrean adierazi nahi
genukeelako euskaldun
pauso bat eman eta aurrean
azaldu da zenbait lagun
udaberri bat iritsiko da
bere gau ta bere egun
baina negua gogor dator ta
egurra pila dezagun. (bis)

Horretarako pazientzia
eta itxaroteko gai
izan behar dugu nahiz ta egurra
jasotzerik inork ez nahi.
Baina atzean herri oso bat
dago aro berri baten zai
eta egunak pasako dira
guk gure lanean jarrai
uda berri bat iritsiko da
udaberria ere bai. (bis)

Bertsogintza aztergai Udako Euskal Unibertsitatean.

Iturria: XDZ

URNIETA (2010-09-29)

Bertsolariak: A. Agirreazaldegi, Arkaitz Oiartzabal Xamoa, U. Alberdi eta B. Gaztelumendi.

Gai-emailea: Amaia Agirre.

A. Agirrezaldegi

Gaia: Atzo egin zenuena lorpen izugarria dela uste baldin baduzu, gaur ezer egin ez duzun seinale da. Orain arte egin duzunetik, zerekin zaude harro edo gustura?

Neurria: Hamaseiko handia
Doinua: *Haizea dator ifarraldetik*

Txikitatikan bi gurasoak
alabari so zer suma
esaten zuten "Ainhoa landu
zazu zure etorkizuna".
Bai landu ere garatu nuen
sakrifizio gaitasuna
ikasketetan ahaleginetan
sortu nuen erresuma
txapel, titulu eta lanordu
horra nere ondasuna
ta haundiegi gerau da orain
aita-amen oihartzuna.
Gezur haundi bat izan daiteke
tituluen harrotasuna
satisfazioa eman didate
baina ez zoriontasuna. (bis)

Beraz titulu guztiak dauzkat
kajoi baten gordetzeko
ahaztu nahi ditut lehengo ahalegin
esfortzu eta antzeko.
Beste bide bat daukat bizitzan
nik gehixeago lantzeko
ta ahalegina egin nahi nuke
maiteengana hurbiltzeko
goizero jeiki ta goxo-goxo
irripar bat eskeintzeko
edo lanean arrazoi gabe
inortxo ere ez mintzeko.
Beraz bidea jorratu nahi det
baina ez medailak lortzeko
ingurukoak eta neroni
goxoago bizitzeko.

Gizarte honek batzutan oker
jartzen du fokoen printza
inportantea dena eta ez dena
nahasturikan gabiltza.
Zer nahi dugun ta nola nahi dugun
jakitea da baldintza
eta barruan daukagu denok
horixe lortzeko giltza.
Beraz aurrera begiratzea
egin nahi dut nere hitza
eta barrua lantzeko bota
izerdia eta bitsa
eta berdin du atzo gauetik
oker xamar bagabiltza
zerotik ez da abitzen baina
goizero hasten da bizitza.

UREPELE (2010-10-10)

Bertsolariak: Loidisaletxe II.a, U. Alberdi eta S. Lizaso.

Gai-emailea: Joxemari Iriondo.

Garai bateko Xalbador egunaren jarraipena da azken urteotan antolatzen duten asteburua, aurten goiburu honekin: *Xalbador eta Xanpun asteburua; Herria da gorputza / hizkuntza bihotza*. Ohi bezala, igande bazkalondoan, bertso-jaialdia egin zuten herriko pilotalekuan.

U. Alberdi

Gaia: Uxue, zu, gaztea zara, umea zara oraindik. Ez zenuen ezagutu bizitzan, baina Xalbadorri zure bertsoak, Xalbador goratuz.

Neurria: Hamabiko handia
Doinua: *Arratsalde on eta muxu bat*

Ni sortzerako hura hila zen
bereizten gaitu adinak.
Berak txapela janzten zun ta nik
txupa ta galtzerdi finak.
Kalekume hontaz ze usteko zun
Urepeleko artzainak?
Xalbador eta nere bizitzak
dira guztiz desberdinak
baina halere elkartzen gaitu
pasio berdin-berdinak
bioi hizkuntzak eta bertsoak
sortu zigun maiteminak. (bis)

Hura bertsotan ezagutzeko
sortu bainintzen berandu
grabazioak aditu ditut
bertso idatziak landu
ta Xalbadorren ekarriaren
zertxobait denok daukagu
lehen esan dut izan zirenen
oihartzuntxoa dakargu
kate horretan azkenaldiko
katebegiak gara gu
ale guztiak dira inportante
kateak iraungo badu. (bis)

S. Lizaso

Gaia: Hire aipamena Xanpunentzat.

Neurria: Hamarreko handia
Doinua: *Mutil koxkor bat itsuaurreko I*

Ukaezina bertsotarako
Xanpunek zun jarioa
kantuan ez zan makala eta
hizketan oso iaioa
egiarekin adiskide ta
gezurran arerioa.
Egia esan bikoitza gendun
harek zuen balioa
aldi berean zelako bera
alaia ta serioa. (bis)

Herririk herri hainbat urtean
ibili zena kantari
ezin ukatu ematen zitun
arrazoi onak ugari
eta arrazoi hoiek berekin
beti pisua nabari.
Gogoan daukat behingoan nola
neuk entzun nion berari
lehendabizitik gizona zela
eta gero bertsolari. (bis)

Ezin ukatu bere lagunen
lagunik onena zena
bainan jendea ezagutzeko
zuen aparteko sena.
Nahiz bostekoa luzatzea dan
zenbaitentzat errezena
horretan ere Xanpun genduen
argia eta zuzena
behin bostekoa eman ezkero
eskua estutzen zuena. (bis)

Araba bertsotan, Araia.

Iturria: XDZ

GASTEIZ (2010-10-14)

Bertsolariak: M. Lujanbio, O. Perea, I. Elortza, A. Arzallus, J. Soto eta A. Mendiluze.

Gai-emailea: Idoia Beitia.

Txapeldunen saioa egiten dute urtero, urte sasoi honetan, Gasteizen. Jimmy Jazz aretoan izan zen, iluntzeko zortzietan, bostehunen bat lagun entzuten zirela. Saio berezia izan zen hasieratik beretik, bertsolari bakoitzak leku batetik kantu baitzuen agurra eta zenbait bertsoalditan entzule artetik kantatu baitzuten.

I. Elortza-M. Lujanbio-O. Perea A. Arzallus-J. Soto-A. Mendiluze. ♫

Gaia: Igor Patxi Lopez lehendakaria da. Gaur, herritar bezala, zuek bostak Ajuria Enera gonbidatuak izan zarete galderak egin eta iritziak emateko.

Neurria: Zortziko txikia
Doinua: *Haizeak bidali du*

A. Mendiluze: Aizu beti zergatik
diozu ezetza?

I. Elortza: Beste bat bilatzera
datorrena ertza!
Aizu agindu bat da
ez zazula pentsa!
Lehendakariarentzat
hori da ofentsa.

O. Perea: Herriak ote zuen
Patxi aukeratu?

I. Elortza: Ta bestela zergatik
nago horren altu?
Probokatzera zatoz
parkatu! parkatu!
Zuk be kanapeak jan
eta ez pentsatu!

J. Soto: Entenditzen al duzu
pixka bat euskera[15]?

I. Elortza: ¡*Oye mira colega*
que tengo el EGA!
Eta Nafarroatik
dator hau gainera!
Zoaz Eginon gora
haizea hartzera!

A. Arzallus: Larrosa zenbatean
salduko zenuke?

I. Elortza: Orain igual pentsatu
egin behar nuke
baina larrosak dira
plastikozko *kutre*
españolek *La Roja*
aukeratzen dute.

M. Lujanbio: Ta ze iruitzen zaizu
Egigurenena?

I. Elortza: Hemen diskrezioa
da gauza onena
guztiekin hitz egin
da egin behar dena
denok nahi dugulako
konpondu problema.

(15) Mantso-mantso kantatu zuen puntua Juliok.

ARRASATE (2010-10-24)

Bertsolariak: A. Sarriegi, S. Colina, A. Mendiluze, U. Iturriaga, A. Egaña, J. Maia, A. Arzallus eta M. Lujanbio.

Gai-emailea: Josu Goikoetxea.

Udalbiltzaren auzian auzipetuta daudenei elkartasuna adierazteko antolaturiko bertso-jaialdia Amaia antzokian izan zen, arratsaldeko seietan. Entzuleek erabat bete zuten aretoa, guztira zortziehun lagun inguru. Kanpoan haizea eta euri-giroa, barruan giro goxoa, beroa.

S. Colina-J. Maia ♫

Gaia: Adin batetik gorako emakumeek jakingo duzue mamografia bat egitea zer mingarria den. Seguruenik, gizonezko batek asmatu zuen makina hori. Ba hor dugu beste gizonezko bat, Maia, hori konpontzera etorritakoa. Azterketa bera egiten duen makina asmatu du, baina makina hau ez da mingarria, eta Osakidetzako nagusiarengana jo du. Osakidetza nagusiak, Colinak, ikusi du aurrekontua eta hitz bakarra esan du: "Garestiegia".

Neurria: Zortziko handia
Doinua: *Uso zuri bat inguratu zait I*

S. Colina: Dirudienez urte luzeetan
aritu zara obretan
guztiz ahazturik denak gaudela
bankuarekin zorretan
ez omen duzu minik sentitzen
bularra sartuta bertan
minbizia're sendatu behar
luke prezio horretan!

J. Maia: Helburu hori hartua dut nik
minbizia sendatzea
lehen pausua izaten baita
aurretik begiratzea.
Nahiz garestia izan litekeen
makina hau ordaintzea
ez da hobea min egitea
debalde ateratzea.

S. Colina: Dena azaldu beharko dizut
egokitzen den bezala
Osakidetza berez ez al da
Jaurlaritzan sukurtsala?
Ta Patxi Lopez horren asmoa
dena normaltzea dala
mamografiak min ematea
ez al da gauza normala?

J. Maia: Baina emakume ugari dago
nere itxaropenetan
minari uko egin nahiean
daude itxarongeletan
eta makinak eros daitezke
eta piloa benetan
rekortetxo bat egin ezkero
Jaurlaritzako *lunch*etan.

S. Colina: Ahalegindu naiz proposamenak
goitik beheraino aztertzen
puntu baikorrak azpimarratu
eta ezkorrak zuzentzen.
*Lunch*ak kentzea gerta liteke
errezenetan errezen
ez al dakizu hitza jateak
ez dula gosea kentzen?

J. Maia: Zu Jaurlaritzan gorantza zoaz
sistemetan urrutira
eta aukera jarrita ere
beste aldera begira.
Nik hizki batzuk bota dizkizut
baina hobe erretira:
hainbeste *mamoi* dagon lekuan
grafiak alperrik dira!

Ahoa Bete Hots jardunaldiak. Joxean Agirre, Antton Luku, Joxe Angel Irigarai eta Lorea Agirre.

Iturria: XDZ

DONOSTIA (AÑORGA) (2010-10-28)

Bertsolariak: M. Lujanbio, A. Egaña, B. Gaztelumendi eta U. Gaztelumendi.

Gai-emailea: Unai Elizasu.

Añorgako Porlanaren Museoak 10 urte bete zituen urrian. Hori dela eta, bertso-saioa egin zuten, museoaren kanpoaldean berariaz jarritako karpa baten barruan. Iluntzean izan zen, eta laurogeiren bat lagun elkartu ziren bertsolariak entzutera.

A. Egaña-B. Gaztelumendi

Gaia: Batek liburu batean idatzi omen zuen Añorga Donostia baino lehenagokoa dela, eta añorgar batzuek sortu zutela Donostia, zuek hain zuzen ere; zuek zarete errudunak, Donostia sortu izanaren errudunak. Esperantza handia bai zerbait egiteko, baina ez zaizue dena espero bezala atera.

Neurria: Zortziko handia
Doinua: *Elizan sartu ziradenian I*

A. Egaña:
Añorgakoak paraje hontan
aspertuta geunden seko
eta ideia sortu zitzaigun
itsasertzera joateko.
Pentsatu gendun "Hemen ibaia
ez litzateke kalteko"
ta ez zitzaigun gaizki atera
konpasik gabe egiteko!

B. Gaztelumendi: Egia esan irten zitzaigun
badia bat mundiala
gero Alde Zaharra ta Amarara
doan hain hiri zabala
Antiguo eta Altza're egin
genituen nola hala.
Orain uste det konpasetatik
kanpo gelditu gerala.

A. Egaña: Ta Donostian bihurtu ginen
nagusi edo etxeko
nola suertea izan genuen
toki pila bat sortzeko
baina urruti geratzen zan ta
beti nekatu antxeko
ta Añorga Txiki sortu genuen
bidean deskantsatzeko.

B. Gaztelumendi: Ta Donostia edukitzeko
ahalik eta gertuen
Errotaburun dorreak ere
nahita ipini nituen.
Orain ordea kontua gaizki
gelditu zaigu *mekauen*!
Ja ez naiz eta ondo oroitzen
Odon zeinek sortu zuen.

A. Egaña: Guk danak ondo egin genitun
hoiek geroko problemak
ingeniariak pila bat ginen
ta Añorgakoak denak
esan ziguten "Donosti aldera
joan zaitezte onenak".
Gure aldean kaxkarrak ziren
Lasarte sortu zutenak!

B. Gaztelumendi: Harrokeritan aritzerikan
ez daukagu alafede
nahiz Donostian sortu genitun
guk guk nahi adina lege
Lugaritz eta Kursaalarekin
nahiz aritu ginen trebe
orain ez degu Añorgan zine
berri bat jartzeko ere!

ARANTZA (2010-11-05)

A. Martin-M. Amuriza

Neurria: Zortziko handia
Doinua: *Zeru altuan zegoen Jaunak*

A. Martin: Gabon! Zer moduz? Protokoloak
ahaztu ta hasi gaitezen.
Aritu gara gure sabelak
betetzen eta betetzen.
Zig-zageatuz iritsi gara
errepidea geure zen
Arantzan behingoz arantzetaz gain
larrosak egon daitezen.

M. Amuriza: Gure aurrean okertzen hasi
zaigu bide arraioa
eta eskerrak izan dudala
kopiloto bat iaioa.
Afaldu dugu ta honezkero
ordua aurrera doa.
Egin dezagun denon gogoan
gelditukо den saioa!

A. Martin: Bidean tentuz etorri gara
Mirenek esan du ongi
amildegi bat ikusi eta
ia-ia gara erori
zure ondoan joanda behintzat
argi pentsatu dut hori:
karneta egun ematen zaio
ia-ia edonori.

M. Amuriza: Egia esan kopiloto lez
joan daiteke hobeto
eta Alaia adarra jotzen
zabiltza dagoeneko
nire ondoan etorri zara
kontu kontari ederto
baina hurrengoan ni neu prest nago
zure alboan etortzeko.

A. Martin: Nire ondoan joango zara
ta nire aldamenean
lasaitasuna izango duzu
ia gehien-gehienean.
Zure ondoan errezatu dut
beldurrez nik azkenean
zergatik sartzen duzu zuk *kinta*
kurbarik itxienean?

M. Amuriza: Ez nuen uste hasi orduko
horren zorrotz aritzea
baina bidean geure aldera
etorri zaigu haizea
ta hurrengo urtean honek nahiko du
Arantza holan aurkitzea
errazena da bidea inork
zabalduta jarraitzea.

A. Martin: *Benga* onartzen dut: aritu zara
Schumacher-en gisan trebe
bolanteak maiz ematen baitu
ez dakit zenbat botere.
Hemengo hauek bitxiak dira
dira munduko errege
zorabiatuta bizi baitira
alkoholikan gabe ere.

M. Amuriza: Alkoholik gabe zorabiatzen
ei dira dagoeneko
baina Alaia bueltan joan nahi
baldin baduzu hobeto
mutil mordoa daude begira
eta egia esateko
baietz prest egon Oiartzunera
zaldian eramateko.

A. Martin: Etorria naiz hala bueltatu
naitekeenan esperantzan
erromerian buka liteke
edota oheko dantzan
abilak dira gustura daude
hauek bosgarrengo martxan
zaldiak baino asto gehiago
ez ote daude Arantzan?

Neurria: Zortziko handia
Doinua: *Txoriak eta txoriburuak*

M. Amuriza: Baina adarrekin ta adar gabe
beti ez da izaten berdin
beraz hasi ta kontu honeri
behar diogunez ekin
elkartzeari atera ahal zaio
makinatxo bat etekin
hemengo behiak batzen al dira
Lesakako zezenekin? (bis)

A. Martin: Lesakan noizbait topatua naiz
Miren maitea zurekin
atera nahian hango zezenei
ahal zen hainbeste etekin
baina horrela gertatu ohi da
horixe baita San Fermin:
hitz egin asko egiten dugu
baina gero gutxi egin. (bis)

M. Amuriza: Gaua hasi ta ibiltzen gara
kaleetan berez-berez
ta etxerako ordua sarri
etortzen da oso nekez
ondo esan duzu baina Alaia
ulertu ez dadin aldrebes:
hitz egin asko, egin gutxitxo
ta gogoratu ezer ez. (bis)

A. Martin: Igual gehiegi gustatzen zaizu
parrandan ateratzea
fitxaje pare bat egin eta
maiz gaizki aukeratzea
beheko adarra beheran geratu
ta izaten da trantzea
ta halakotan ez al da hobe
ezer ez gogoratzea? (bis)

M. Amuriza: Arazo asko aurki daitezke
goizen beheko adarretan
gauean pozik eta goizean
esnatu orduko penetan
Alaia zure azalpen horrek
harritua nau benetan:
ni uste baino esperientzia
gehiago duzu horretan. (bis)

A. Martin: Porrotak hala pilatu ditut
denak banaka-banaka
nork esaten du "Asteko egun
onena da larunbata?"
beti amaitzen dugu horrela
bazter batean botata
esperientzia asko ez daukat
daukat esperientzi falta. bis)

M. Amuriza: Egia esan ez da jakiten
zer datorkigun sekula
eta batzuek izaten dute
esperientzi mardula.
Lasai Alaia nik ez nizuke
orain egin gura burla
seguru eskatzen hasi ezkero
aukera hemen baduzula. (bis)

A. Martin: Nola prestatzen dizkidazun zuk
holako kasutan planak
bihurtzen dira sarri mutilak
ekintza orduan flanak
ta aukeratzen hasi orduko
iluntzen nau panoramak
beti Mirenek kentzen baitizkit
nik gustuko ditudanak. (bis)

M. Amuriza: Ene Alaia ez dut pentsatzen
nabilenik horren errez
zuri gustatu ta nik lapurtu
egiten dizkizut ustez
lehen ere esan dut egin gutxitxo
ta gogoratu ezer ez
hemen baten bat baldin badago
aurkeztu idazu mesedez. (bis)

MAULE (2010-11-06)

Bertsolariak: A. Egaña, A. Arzallus,
A. Sarriegi eta U. Iturriaga
Musikariak: Bixente Martinez, Asier Oleaga,
Jon Piris, Julen Izarra eta Asier Ituarte.

Gai-emailea: Unai Elizasu.

Bertso-Jazz emanaldia eskaini zuten Maulen, larunbat ilunabarrean. Ehun eta hogei lagun elkartu ziren saioa jarraitzera. Aipagarria da itzultzaile bat ere izan zutela bertsoak itzultzen.

A. Egaña-A. Arzallus ♫

Gaia: Itsas bazterrean duzue etxea, eta zuen kezkak partekatuz etorri zarete Maulera; zuen eguneroko kezkak, Euskal Herriari buruzko kezkak, euskarari buruzko kezkak. Baina Maulerantz hurbildu ahala, zuen kezkak moldatuz, aldatuz joan dira.

Neurria: Zortziko handia
Doinua: *Aditu laguna itsasoak*

A. Arzallus: Pasatu Zarautz pasa Hendaia
ta bidean tirri-tarra
ta Andoni gaur gogoratu zait
euskaldunen zoritxarra
euskara triste eta kezka dut
errazu Andoni zaharra
euskaldunori eskas zaigula
itsasoaren indarra.

A. Egaña: Itsasoa da zoragarria
apar zuri arrats gorri
ez ote gera Zumaiatikan
Hendaiaraino etorri?
Baina zuk kasu egin zaiozu
aspaldiko Xalbadorri
eta ze kristo egin behar zaio
muga ez den muga horri?

A. Arzallus: Muga ahantzita bilaka gaiten
Andoni elgarren altzo
baina Hendaian ta Baionan ai
frantsesez hainbertze multzo!
Ta Donibane Garazin zenbat
artzain ta etxalde xintxo!
Ta Oskaxen gora nik sumatu dut
jendea inglesez mintzo.

A. Egaña: Halaxe da bai batzuk inglesez
ari ziren bero-bero
nunbait ditugu modernitate
antzuenaren bezero.
Etorkizunik ezin daiteke
herri honetan espero
beste guztiei beso zabalduz
geurea ahantzi ezkero.

A. Arzallus: Hara Xiberu etxe ederrez
eta inglesez jantzia!
Eta gu ere urtean bitan
lasaitzeko kontzientzia.
Pentsatzen nago Andoni ez den
gure Xibero ahantzia
gure buruko errukiaren
zazpigarren probintzia.

A. Egaña: Kontzientziaren xomorrotxoa
hasten baitzaigu lanean
geure buruaz haserretzea
gerta leike azkenean.
Xiberuraino etortzen gara
gu're turista planean
gehienez ere Larrainen gora
Tourra pasatzen denean.

A. Arzallus: Onena dugu euskaldunak jin
sartu eta ugaltzea
nahi baldin bada inglesengandik
gure herria libratzea
baina Andoni pena litaike
gaur istripuan galtzea
ta onena dugu etxerakoan
ezkerretik gidatzea.

A. Egaña: Itxaropena izan daiteke
etorkizunaren giltza
alde hortatik suma ditzaket
horrenbeste eki printza.
Tira ba Amets goazen zinera
hemen alperrik gabiltza
ta han gureak izango dira
bai doinua ta bai hitza.

U. Iturriaga-A. Sarriegi ♫

Gaia: Laborariak zarete. Zuen gurasoak ere laborariak ziren, zuen aitatxi ere laboraria zen, eta ez duzue laborari izatea beste aukerarik izan. Egunero, zuen lana bukatu eta herriko ostatuan egiten duzue zita. Ardoa hartu eta telebistari begira jartzen zarete.

Neurria: Zortzikoa, handiaren moldekoa, 5 puntuz
Doinua: *Langile baten semea naiz ni*

U. Iturriaga: Eguneroko lan astunetan
murgilduta gabiltz
zenbat alditan pentsatu dudan
"Ni beste bat banintz...".
Telebistak dagi dizdiz
nik zalantza mila aldiz
aizazu Aitor zuk ba al dakizu
non dagoen Paris?

A. Sarriegi: Goizean jeiki eguzkia irten
baino askoz lehenago
ta iluntzean ostaturako
bidean igaro.
Zure galdera arraro
xamar delakoan nago:
egunero ez al duzu ikusten?
Telebistan dago.

U. Iturriaga: Bai egunero ikusten dut nik
odola beroan
ez dut esango Sarkozy horrek
norantza naroan.
Guk lana ordu mordoan
erosleak dena doan
presidentea etorri dadin
helikopteroan.

A. Sarriegi: Gure aurreko denak bezela
hontan hasi ginen
eta lanean jarraitu dugu
bizitza hau zer den!
Pariseko galdera lehen
ta nik pentsatu dut hemen:
Unai Parisek ba ote daki
gu biok non gauden?

U. Iturriaga: Gu zakurraren ipurtzuloan
galduta gaude aizu!
Ardo batetik bestera oso
urrun naramazu.
Horditu ohi gara usu
arnoz arno pausuz pausu.
Aitor aitortu zaidazu egia
zuk maite al nauzu?

A. Sarriegi: Kontu hau utzi behar genuke
beste baterako.
Ez ote duzu zuk gaurkoz edan
Unai ardo nahiko?
Pixkat nahastu zarelako
lagun bezela bai bapo
nik asko-asko maitatzen zaitut
ez hainbesterako.

U. Iturriaga: Onartu zazu bakar-bakarrik
biok nola gauden
urte bat balitz bezala joaten
dira hemen bi oren
bakar-bakarrik gu hemen
emaztegairik ez omen
ez pentsa Carla Bruni agertuko
zaigunik ez Maulen.

A. Sarriegi: Nigatik berdin baldin baletor
huraxe Maulera
nere bizitza egina daukat
nere arabera.
Orain banoa etxera
bihar etorriko gera
bizitza nola aurrera doan
berriz ikustera. (bis)

A. Sarriegi ♫

Gaia: Sei bat hilabete daramatzu bikote berriarekin. Bi aste barru da bere urtebetetze eguna, eta ez dakizu zer oparitu.

Neurria: Hamaseiko berdina, 8 puntuz
Doinua: *Baserrian jaio nintzan / Habanera*

Balantze oso polita
da urte erdi honena
aspaldi pasatu zaidan
gauza denetan onena
neska bat ezagutu dut
politetan politena
ta beragan pentsatzen dut
egun osoan barrena.
Behin eman nion bihotza
dena beretzat nuena
eman diot irriparra
ta eman itxaropena.
Orain urtebetetzea
baina barruan ze pena!
Paperean nola bildu
eman nahi diodan dena?

Biok gabiltza gustora
hasierako liluran
gogotsu hasi baikinen
bikoteko abenturan
baina data alu hori
jarri zait orain jomugan
eta ez dakizue ondo
hori orain ze kontu dan!
Sarritan ibili ohi naiz
galdezka erdi itxuran
batipat baldin badago
triste edota tristuran
baina behar den garaian
oraintxe jarri naiz dudan
behar nukeen adina
ezagutzen ote dudan.

Behingoz zerbait pentsatzeko
hartu dezadan astia
ea naizen asmatzeko
behar den bezain aztia!
Eros nezake bitxi bat
edo gustoko janzkia
edo elkarrekin hasi
gineneko argazkia.
Baina hobe opari bat
goxoa eta eztia
ez izan arren haundia
ta dirutan garestia
muxu bat emango diot
goxotasunez bustia
horixe baita muxu bat
gauza gutxi ta guztia.

A. Arzallus ♫

Gaia: Pintorea zara, marrazkilaria. Koadroak marrazten dituzu. Esan dizute hemen inguruan badirela leku ederrak, eta hor jarri zara larrean eserita, zure koadro zuriarekin, pintzela eskuan. Egun osoz ondoan duzu hiru urteko ume bat, Maulekoa.

Neurria: Hamaseiko handia
Doinua: *Haizea dator iparraldetik*

Pentsatu nuen Xiberuara
joan behar dut erromes
hartu koadro bat hartu pintzelak
eta borondate onez.
Larraine puntan kokatu nintzen
hirian gelditu ordez
lehenik mendiak margotu ditut
punta xuriz magal berdez
gero etxean ibar artean
teilatu gorri kolorez
gero koadroa jantzi dut txoriz
ta datozen bi traktorez
eta ondoan mutil ttipi bat
begiak enetzat gordez.
Pentsatzen nago bere begiak
koadroan sartu edo ez.

Hala koadroan utzi dut hemen
koloretako aroa
arratsaldeko lainope hontan
Larraineko azaroa.
Metafora bat iduri luke
herri baten zahartzaroa.
Gero atera dut arno botila
ta egin diot tragoa.
Ze koadro hotz hits huts ote da hau?
Sartu kolore beroa!
Lau zirriborro egin dizkiot
tximista suzko lerroa
hiru irudi abstraktu galdu
eta barne bat eroa.
Nahiz ta lehengoa polita izan
hau da gaurko Xiberoa.

Kasik umeaz ere ahantzi naiz
ai ene odol beroan!
Begiratu dut eta oraino
hor dago ene ondoan.
Sumatu diot galderaño bat
bazukeela ahoan
ta erran diot “Ea mutiko!
Zer dabil zure gogoan?”
ta erantzun dit erdi lotsatan
baina hain ahots beroan
“ Aizazu gizon! Nik ere artista
izan nahi nuke geroan”.
Ba erran diot “Zatoz nerekin
ibili nere alboan
ta ikastera Maule utzirik
Parisa ez zaite joan”.

Bertsoaroa 2010.

Iturria: XDZ

ATAUN (2010-11-12)

Bertsolariak: A.M. Peñagarikano, S. Lizaso, A. Egaña, A. Arzallus, I. Urdangarin eta A. Barandiaran.

Gai-jartzailea: Bertsozale talde bat.
Gai-emailea: Jon Aizpurua.

San Martin jaietan, ostiralarekin, urtero izaten den jaialdia. Zineman izan zen, gaueko hamarretan. Bete egin zen aretoa, guztira berrehun eta hogeiren bat lagun.

S. Lizaso-A.M. Peñagarikano

Gaia: Elkarri hauxe esanez zabiltzate beti edo gehienetan: "Guk elkarri esan dizkiogunak, eta oraindik ere ez gaituk haserretu.

Neurria: Zortziko handia
Doinua: *Kantore berri xarmant batzuek*

A.M. Peñagarikano:

Hamaika aldiz neri esan didak
"Hi haiz hi txoropitua!"
hamaika aldiz hirekin natxok
bertsoetan aritua
nik'e "Buruhuandi!" deitu ohi nian
hik sarritan aditua
oaindik ez gaituk behin'e hasarretu
guk zeukagu meritua! (bis)

S. Lizaso: “Buruhaundia!” maiz esan diak
demonio loritoak!
Petralkeriak heure putzutan
sarritan dituk itoak
eta oraindik su ez dik hartu
ez Peña hire kolkoak
beti bromatan hartzen baitituk
serio esandakoak. (bis)

A.M. Peñagarikano: Etenik gabe hainbat urtetan
batera eta bestera
sarri askotan haundiak esan
baina hori ez da afera
orain haundia gero haundigoa
eta beste bat atzera
baina sobreak hartutakoan
lagunak egiten gera. (bis)

S. Lizaso: Sarri askotan petralkeriak
nahiz ta ematen dun mina
bertsotarako laguna behar
hori’re gauza jakina
azken batean denen aurrean
ematen baitu ordaina
lagun usteko onena ohi da
disimulatzen dakina. (bis)

A.M. Peñagarikano: Badakizue nolakoa dan
nire aldamenekua:
bertsolaria, oso klasista
ta azpeitiar petua
eta joandako leku haietan
betetzen daki lekua
hau eoskorra eoskorra da
baina bihotz onekua. (bis)

S. Lizaso: Zer arraiotan kolpetik jarri
horrenbeste konpromezu?
Zer arraiotan ni famatuaz
zabaldu hoinbeste mezu?
Aitortu behar faltsukeriak
beti ematen dula su.
Barkatu baina azken boladan
asko aldatu zera zu. (bis)

A.M. Peñagarikano: Gaur bezelaxe leku askotan
elkarren aldamenean
Egaña ere gurekin sarri
beti edo gehienean
eta esan det eoskorra dala
eoskorra bere planean
baina hori bai sinpatikoa
txanpaina edaten dunean. (bis)

S. Lizaso: Zalea naiz bai honen kontura
ez dut probatu bizitzan
ta bera ondo babestu ohi da
Xebastianen kerizan
kokalekuan biok ondoan
Jonek agindu dun gisan
baina aukera eduki banu
urruti jarriko nintzan. (bis)

DONIBANE LOHIZUNE (2010-11-13)

Iparraldeko txapeldunaren agurra

A. Arzallus

Neurria: Hamaseiko berdina, 8 puntuz eta 8 silabaz
Doinua: *Larogeita hamar urte*

Hizkuntzak badoaz hiltzen
eta hemen bada baño
nik ez daukat eskaintzeko
sehaska kantu bat baino.
Guraso ta andereño
ekialdeko sormen laino
ikastolak asmatzera
joan zineten plazaraino.
Sustrai ta ni joaten ginen
Hendaiatik Kanboraino
andereño haien maitasuna
gogoan dugu oraino.
Zueri esker euskarak
ta ikasle bakoitzak ño
bihotza zabalagoa du
hizkuntza handiek baino.

GETARIA (2010-11-20)

Bertsolariak: J. Labaien, U. Alberdi, A. Agirre eta B. Gaztelumendi.

Gai-emailea: Egoitz Aizpuru.

Getariako Harralde tabernan, gaueko hamar eta erdietan, berrogeita hamar bat lagun. Bertso-saio musikatua izan zen; Unai eta Imanol musikarien laguntza izan zuten berrsolariek. Bat-batean sortutako bertsoez gain, aurrez idatzitako bertso batzuk ere kantatu zituzten.

J. Labaien-U. Alberdi ♫

Gaia: Azaroak 20. Gaurko egunez zer pasatu zen bila nenbilen Interneten, eta ikusi dut 1936an, Jose Antonio Primo de Rivera fusilatua izan zela; 1975ean, Franco hil zen. Komunikabideen efemerideetan hori topatu ahal izan dut, baina beste bide batzuetatik jakin dut, ez dudalako topatu Interneten eta ohiko komunikabideetan, 1984an, Santi Brouard eraila izan zela, eta 1989an, Josu Muguruza. Diktadura bukatu zen, baina zerbaitek edo norbaitek estali gura ditu heriotza batzuk, eta beste batzuk ez.

Neurria: Zortziko handia
Doinua: *Ilun ikarak azken argia*

J. Labaien: Egun batean zehaztu ziren
gaizkia eta ongia
eta geroztik hor bizi gara
teoriak teoria
ez da berdina batzuen eta
beste batzun hilobia.
Nolako gauza moldagarria
den pertsonen memoria!

U. Alberdi: Hedabideek saltzen dituzte
notizia nahasiak
eta larritzen gaituzte gure
hilen berri eskasiak
baina ezberdin dira lurrean
erein zituzten haziak:
batzun gainean loreak daude
besteen gainean sasiak.

J. Labaien: Niretzat ere batzuek dira
besteak baino loreago
baina ez denentzat nahiz ta urteak
guztiontzako igaro.
Hedabideek saltzen digute
ni horretan ados nago
baina guregan ez ote dago
eurengan baino gehiago?

U. Alberdi: Gertatu zena desitxuratzen
badute nahiko botere
gogoratzea batzutan kalte
eta besteetan mesede.
Medikua zen Santi Brouard ta
aritu ohi zenez trebe
gure zauriak sendatzen ditu
lurpean egonda ere.

J. Labaien: Heldu liteke geure zauriak
eta dena sendatzera
horrexegatik daukagulako
bakoitzak gure papera.
Baina ez dut nahi bizitza pasa
begiratuaz atzera
kontua ez al da zer eingo dugun
Uxu hemendik aurrera?

U. Alberdi: Hedabideek mundua sortzen
dute segunduz segundu
herri batean bizi gara ta
halere gara bi mundu
baina mundua diferentea
egin liteke seguru
bizi garenok hilengandikan
ikasten baldin badugu.

Amets Arzallus 2010eko Xilabako txapeldun.

Argazkilaria: Gaizka Iroz

Iturria: XDZ

DONOSTIA (2010-11-26)

Bertsolariak: M. Lujanbio, U. Iturriaga, S. Lizaso eta B. Gaztelumendi.

Gai-emailea: Josu Goikoetxea.

Urteroko saioa Lugaritz kultur etxean.

M. Lujanbio-U. Iturriaga ♫

Gaia: Lehengo batean omenaldia egin zitzaion Santi Brouardi, duela urte batzuk "bateren batek" hil zuen gizonari. Hantxe elkartu zarete Unai, Edurne Brouard, Santiren alaba, eta Maialen, Kristina Sagarzazu, ETAk hildako Montxo Doral ertzainaren alarguna.

Neurria: Zortziko handia
Doinua: *Haurtxo txikia negarrez dago I*

U. Iturriaga: Behin honezkero hamarkada bi
aitaren faltan igaro
orain artean omenaldiak
alde bakarrak zeharo
gaur hona etorrita eman duzu
baina pauso bat harago
beste pauso bat eman ezkero
bide erdi eginda dago.

M. Lujanbio: Oraindik ere bihotz barruan
sartuta daukat arantza
baina minetik irtenbiderik
ez degu izango antza
eta bai pausotxo bat eman det
laburra bezainbat latza
orain Edurne zuk eman zazu
pausotxo bat niganantza.

U. Iturriaga: Herio beti dugu herio
izan GAL edo izan ETA
familian falta zaigun hori
ez zaigu itzuliko eta.
Zuk pauso bat nik beste pauso bat
hortan ez gaitezen neka
nik nahi dudana da ez dadila
berriro sekula gerta.

M. Lujanbio: Zure ahalegina ere eskertzen dut
ezetz ez duzu usteko
nik lanak dauzkat hemen zenbaiten
begiradari eusteko
baina bihotzak badu indarrik
zornez ta minez husteko
ta herri hontan konponbide bat
behar dela ikusteko.

U. Iturriaga: Esaten dute hortatik gertu
hurre ote gauden kasik
horrela balitz hartuko nuke
notizia hori pozik
baina orain gu biktimak gara
baina igualak ez baizik
lehen mailako eta bigarreneko
merezi ez dugunak hitzik.

M. Lujanbio: Buruak zenbat buelta eman dun
tripa buelta baten truke!
Bi emakume elkartu gera
pasaturik hainbat urte.
Gure hitzak ez du asko balio
ez behintzat zenbaitek uste.
Ai guk dakigun gizon batzuek
pauso hau emango balute!

Paiadoreak eta bertsolariak Gasteizen

Iturria: XDZ

ORIO (2010-12-06)

Bertsolariak: M. Lujanbio, A. Arzallus, A. Egaña, B. Gaztelumendi eta I. Esoain.

Gai-emailea: Unai Manterola.

San Nikolas egunarekin antolatu ohi duten jaialdia.

I. Esoain-M. Lujanbio

Gaia: Ibai, adineko zure ama ezindua, Maialen, zaintzen duzu zure etxean; eta atsedena hartzeko edo, zentro batera eraman duzu hilabete baterako, nahiko kostata. Hilabete pasatu da, joan zara amaren bila, baina ez du etxera etorri nahi.

Neurria: Zortziko handia
Doinua: *Haurtxo txikia negarrez dago I*

M. Lujanbio: Hona etorri ta arrenkura
punttu bat neukan gordeta
ahaztu nahi ninuzula pentsatuz
ta hilabetean zer gerta.
Ez dudala etxera itzuli nahi
har dezazun zure beta
etxera juanda traba besterik
ez dizut egingo eta.

I. Esoain: Bai egia da ez nagoela
beti umore alaian
baina oraindik jarraitu nahi dut
amari lagundu nahian
garbiketetan, sukaldaritzan
berdin astean ta jaian
ze faltan asko botatzen zaitut
kanpoan gauden garaian.

M. Lujanbio: Nik ere berdin zurekikoa
begitan ze malko laino!
Gehiago ezin zenuelako
etorri ginan honaino.
Estimatzen det itzuli nadin
daukazun hainbat enpeño
baina faltan sentitzea hobe
sobran sentitzea baino.

I. Esoain: Hainbeste hoztu behar al dute
bion arteko kontuak?
Bion artean erabaki behar
bion arteko hautuak.
Nei berdin zaizkit zure ezinak
sortzen dizkidan tratuak
hoiek hainbeste balio dute
ama baten aholkuak.

M. Lujanbio: Zu gazte zera ta nik badauzkat
larogeita hamar urte
hemen bizitzea onartzen det
zure bizitzaren truke.
Razionalki ai naiz hizketan
hori badakizu zuk'e
bihotzai hizketan utzi ezkero
besterik esango luke.

I. Esoain: Esan dizkizut inoiz egiak
esan dizkizut gezurrak
esan dizkizut hainbat hitz gordin
eta esan hitz xamurrak.
Nahiz ta ahulduz ta ahulduz doazen
amatxo zure hezurrak
zure berorik ez dit ematen
tximiniako egurrak.

B. Gaztelumendi-A. Egaña ♫

Gaia: Zuetako batzuk gogoratuko zarete, Orion gertatua da. Orain urte batzuk, kultur teknikaririk eta horrelakorik ez zegoenean, festa antolatzaileak bi musika talde deitu zituen, egun berean, ordu berean, toki berean, kontzertua emateko. Hemen daude Egan eta Joselu Anaiak, plazan, beren trasteak deskargatzen.

Neurria: Zortziko txikia
Doinua: *Behin batean Loiolan*

A. Egaña: Bi musika talde on
elkartuak bertan
disgustoa antzeman
liteke kopetan.
Joselu geratzea
hobe da benetan:
ondo moldatzen gera
zuen doinuetan.

B. Gaztelumendi: Baina bigoteakin
nator ni dotore
plazari ipintzeko
nahi aina kolore.
Behin batean Oriyon
hainbeste akorde!
Kopia txar bat baino
guk eginda hobe.

A. Egaña: Alperrik ez al dira
tipoan jardunak?
Xabier pasa ziren
Eganen egunak
nun dira inguruko
lehenoko lagunak?
Bi *gogó* jartzen ditu
gogorik ez dunak.

B. Gaztelumendi: Elkartu dira mila
kantu eta *kante*
lehengo garai zaharrak
daudenez aparte
gaur mila plazatatik
deitu ohi didate
zuek *estankatu*ta
gelditu zerate.

A. Egaña: Ez gera *estankatu*
benga Egan *benga*!
Igotzen ez den hura
ez da erortzen-da.
Gaztetxera joan zaitez
Xabier *leienda*!
Barkatu zahar etxea
esan nahi nuen-da!

B. Gaztelumendi: Zeinen errex dantzatu
ohi dezun mingaina
nere adinekoa
zaitugu zu baina
gaztetxera zu joan
zaite alajaina!
Han zai izango dezu
Andoni Egaña.

A. Egaña: Hiru ordu paseak
kamio gorrian
hala ere geu gaude
joan beharrian
maiz ez baitegu jotzen
behar den neurrian
ta hori ezin da egin
Beniton herrian.

B. Gaztelumendi: Beraz beldurturikan
aspaldi zaudenez
txanda utzi didazu
neri irribarrez.
Eganek kontzertua
emango du errez
eta hanka guztiak
hegan jarri baietz!

2010eko Bizkaiko Bertsolari Txapelketaren finalistak.

Argazkilaria: Joseba Barrenetxea
Iturria:XDZ

MARKINA-XEMEIN (2010-12-08)

Bertsolariak: A. Arzallus, A. Egaña, J. Maia, U. Iturriaga, M. Amuriza eta M. Lujanbio.

Gai-emailea: Josu Goikoetxea.

Abenduaren zortziarekin urtero egiten duten jaialdia. Pilotalekuan izan zen, arratsaldeko bost eta erdietan.

M. Amuriza-M. Lujanbio ♫

Gaia: Ospitale batean zaudete, ama berrien sailean, erditzeko zain, hirulau zentimetroko dilatazioarekin. Oraintxe etorri da erizaina galdetzera: "Zuetako baten batek epidurala gura du?". Maialenek "Bai, nik bai" esan du; Mirenek, ostera, esan du "Ez; nik min guztia sentitu gura dut".

Neurria: Zortziko handia
Doinua: *Nafarroako mendi gainetan*

M. Lujanbio: Derrepentean eskua altxa
ta eskatu det nik bata
buru haundia dator umea
besterikan ez zan falta!
Animalitasunik behar ez
ta ez ipini nahi marka
mina sentitutzeko gero ere
denbora izango da-ta! (bis)

M. Amuriza: Une honekin amestu dogu
Maialen biok askotan
eta nahiz eta zainetaraino
ikaratu lehenengotan
umeagatik jarraitu nahi dot
azkenera arte borrokan
bizitzako une garrantzitsuena
ez dot nahi pasatu lotan. (bis)

M. Lujanbio: Nik alperrikan minik ez det nahi
nahiz ez nagon zure aurka
irten dedila ahalik errezen
bere arnas bere taupa.
Zu karrasika horko *mekauen*
horko *ostia* horko *puta*!
Zure umea jaioko zaizu
zurekin ikaratuta. (bis)

M. Amuriza: Une hauetan ez da bape be
erraz gordetzen oreka
haserre nago minduta nago
ta izerditurik kopeta
zu ikusten zaitut liluratuta
anestesiaz beteta
eman eskua zuri ez dizu
horrek minik egingo eta! (bis)

M. Lujanbio: Estimatzen det zure babesa
eskertu zure magala
nik nahi nukeena dena errez egin
dijoana dijoala!
Baina hara hor orratz haundi bat!
Hori al da epidurala?
Pentsatzen nago igual ederra
dala *parto* naturala. (bis)

M. Amuriza: Ene Maialen ikaratu naz
neu be Tira! Tira! Tira!
Burua dogu buelta ta buelta
umea jira ta bira.
Nire gizona hortxe egon da
kristaleratik begira
eta orratza ikusi ez arren
mareatuta jausi da. (bis)

M. Lujanbio: Nere ondokoai ere ikusten
diot bixaje itzela
erdi horia erdi morea
burua nahiko epela.
Ekin daiogun ahal den ondoen
bakoitzak nahi dun bezela.
Gauz bat bakarra da inportantea:
ondo etor ditezela! (bis)

M. Amuriza: Hau da edozein emakumezkok
nahi lukeen egoera.
Behin honezkero ahalegintzea
hain latza izango ete da?
Benga Maialen arnasa hartu
ta egin dezagun aurrera.
Hurrengo astean parkera joango
gara biok ospatzera. (bis)

A. Egaña-J. Maia ♫

Gaia: Urteetan gora, oso gora, egin duten bi lagun zarete. Aspaldion, kalean baino elizan egiten duzue gehiago topo. Zuen ezagun, zuen lagun pilo bat desagertu da azkenaldian, eta ez dago asterik hileta elizkizunik ez daukazuenik. Jon, gero eta estuago, gero eta larriago zaude. Andoni, ostera, trankil eta sendo ikusten duzu.

Neurria: Zortziko handia
Doinua: *Zeru altuan zegoen Jaunak*

J. Maia: Ai Antoñito hobeto duzu
espabilatzea garaiz!
Garai batean atzeko filan
eseri izan gara maiz
ta panorama hau ikusita
ez lagun eta ez apaiz
azkenaldian badaezpada
lehenengo filan jartzen naiz.

A. Egaña: Larogeiraino iriste omen da
hamar pertsonatik hiru
larogeirako gutxi falta guk
hargatik nabil seguru
Joxe hiltzea Martin joatea
ez da guretzat apuru
estadistikan ikuspegitik
aukera gehio ditugu.

J. Maia: Estadistikak alperrik dira
zimelduz doa arbola
gurutze haundi bat dugu aurrean
Bibliako parabola.
Hankak dardarka ipintzen zaizkit
ez dakit nola kontsola
iruditzen zait Jesukristo ja
neri begira dagola.

A. Egaña: Ene Juanito ez zazu pentsa
horrenbeste disparate!
Ai Jesukristok ze aurpegi dun
ze itxura ze betarte!
Bera begira egonagatik
Joanito lasaitu zaite
ni ez naiz joango bere ahotik
"Hator! Hator!" entzun arte.

J. Maia: "Hator! Hator!"an zai zaude beraz
hori ez da nobedade
ja balantzaka jarriak daude
elizako lau zutabe
"Hator! Hator!"a arriskuz dator
izan zaite horren jabe
kantua ia entzun leike ta
gaztainak erreta daude.

A. Egaña: Ze pesimista zauden laguna
hauxe da hau desastrea!
Herio laister helduko dela
hori da zure ustea.
Gainera haundi-haundia zera
zeinen detaile tristea!
Onena dezu zure neurriko
kaja egiten hastea!

J. Maia: Kaja eginda daukagu ia
pinuak ere aparta
ta seme-alabak herentziaren
folio bati tiraka.
Gu bakarrikan gaude elizan
gure txapel ta abarka
ta Jangoikuak nahi izanda're
nun aukeratu ez dauka.

A. Egaña: Badaezpada're ixkutatzen naiz
elizako horman kontra
meza ez zaigu bukatu baina
joateak ez dit inporta.
Orain irten da Mari Felixa
kinu bat nahi diot bota
ta zu joan zaitez Pepitarekin
alargunduta dago-ta!

J. Maia ♫

Gaia: Egunotan haizeak gogor astindu ditu bazterrak, eta herri honetan luzaroan ibili gara haize kontran, kostata aurrera egiten. Esan liteke haizeak norabidez aldatu behar duela, baina eguraldia, ai! Oso kapritxosoa da askotan. Haize kontra ibili eta gero, ez ote da sasoia haize alde ibiltzeko?

Neurria: Hamabiko handia / Hamaseiko handia
Doinua: *Haizea dator ifarraldetik*

Urte amaiera bihurtu zaigu
ia esperantza aro
haizea dabil nunbait aldatzen
ez da lehen bezain arraro.
Haizean aurka hainbeste urte
ta mende dira igaro
aldaketa hau sinisten ere
zaila dugula zeharo
baina haizea aldatu leike
guk uste baino lehenago.
Horretarako denok batera
putz egin beharra dago.

Urteak dira hor gabiltzala
orain gora orain behera
haizea bezain aldakorra da
herri honen ibilera.
Udaberriak kukua dakar
ta neguak hegabera
ipar haizeak goza lezake
gure barruko minbera.
Haizea zinez gu ote gara?
Hori da nere galdera.
Gure eskutan ote daukagu
haizearen izakera?
Jarri beharko genuke behingoz
norabidean batera
gure patua aldatu ez dedin
haizearen arabera.

Belar zaharren eramaile da
haizearen anabasa
hartzen diogu azkenaldian
itxaropenaren traza
baina ezin da une haundi hau
albotik begira pasa
nazio baten eskubidea
inoiz ez baita jolasa.
Asko gera ta indarra dugu
ta hori da gure baza
alde batera utzi dezagun
bidezidor zaharren basa.
Nere begien aurrean dago
bete-beterikan plaza.
Hau haizea den ez dakit baina
hauxe da gure arnasa.

2010eko Iparraldeko Bertso Eskolen topaketak.

Argazkilaria: Karlos Aizpurua
Iturria: XDZ

ZUMARRAGA (2010-12-11)

Bertsolariak: U. Iturriaga, M. Lujanbio, A. Egaña eta A. Arzallus.

Gai-emailea: Gorka Ojanguren.

Abenduan urtero egiten duten saioa, Luzio Gabiriaren omenez.

U. Iturriaga-M. Lujanbio-A. Egaña-A. Arzallus

Gaia: Urte bukaera da, eta, beraz, balorazioak egiteko garaia. Mila saiotan ikusten zaituztegu, baina gaur jakin nahiko genuke nolakoa den zuen egunerokotasuna; hau da, zuen egun normal bat nolakoa den.

Neurria: Zortziko handia
Doinua: *Zeru altuan zegoen Jaunak*

A. Arzallus:
Nola ez naizen ofizialki
lanbide baten jabea
jendeak zerbait enkargatzeko
badu bizio grabea
gaur bilera bat gaur bazkari bat
fuertea zein xuabea
nere egunik normalena da
normaltasunik gabea.

A. Egaña: Neroni ere Ametsen gisa
bizi naiz aspaldin tira!
“Amarengana joango naiz gaur”
maiz erabakia di-da
hurrena lotan geratuko naiz
hurrena buelta mendira...
Egun normalik ez daukat bat’e
denak desberdinak dira.

M. Lujanbio: Letu Berria beiratu e-maila
atondu etxeko jarduna
gaur Tolosara bihar Laudiora
gertura edo urruna.
Egunero da zerbait berria
bere alde ona duna
baina batzutan faltan hartzen da
egunerokotasuna.

U. Iturriaga: Ba ni ostera zazpitan jeiki
eta goizeko zortzitan
ordenagailu aurrean lana
hau zabaldu eta klik han
hirurak arte gero piszinan
ordubete igeritan
hiru artalde zenbatu ditut
goizaldeko ordu bitan.

A. Arzallus: Ni ere inoiz despistatuta
jeiki naiz seirak aldera
“Eta orduan ze egiten duzu?”
da jendearen galdera
ba maiz leihotik begiratzen det
irripar txikiz gainera
egunsentitan jendea zeinen
gustora doan lanera.

A. Egaña: Berrogeita hamar urteen jiran
lagun mordo bat bagaude
hainbeste urtetan egin naiz hainbat
koadrilla majoren jabe
ni txintxoa naiz izatez oso
txintxoa naiz ta hala're
seietan sarri oheratzen naiz
ni neu konturatu gabe.

M. Lujanbio: Uda osoa pasatzen degu
aurrera eta atzera
hamaiketako abitu eta
goizeko lautan etxera.
Gero urria ailegatzean
deskantsurakoa bera
mundu guzia lanen hasita
gu're hasi eiten gera.

U. Iturriaga: Lehengo bertsoa ez dut kantatu
parre egin zenezaten
eguneroko nire bizitza
halaxe baita izaten.
Gero astean pare bat batzar
ta bi saio ezin dira ken
jende guztiak esan diezagun
"Ze ondo bizi zareten!".

U. Iturriaga-M. Lujanbio-A. Egaña-A. Arzallus

Gaia: Astebete da ia Xabier Lete joan zitzaigula. Berak idatzitako zenbait abestiren hasiera emango dizuegu gai gisa, bertso bana kantatzeko.

Lehenengoa Maialenentzat: "Amaren bularra, haurraren janari/ haurraren negarra beti hunkigarri".

Neurria: Zortziko handia
Doinua: *Haurtxo txikia negarrez dago I*

M. Lujanbio: Aman bularra ta haurtxo txikia
hari ikasi diogu
ze kantu eta ze transmisio
eta ze irudi modu!
Isilik dagonan balioaz
hezitu gintun gero gu
ze isilik dagonaren hitzak
gero gehio balio du.

Bigarrena, Unairentzat: "Langile baten semea naiz/ aita bezala langile".

Neurria: Hamabiko handia
Doinua: *Haizea dator ifarraldetik*

U. Iturriaga Lehenago esan ditudanekin
*redundantzia*n beharbada
langile baten semea naiz ni
ta neu langile naiz jada.
Gainera ez dut besterik gura
konforme nago ta hara!
Amorratzen nau begiratzeak
sarri telebistetara
nola badauden hiru-lau *pijo*
igota goiko mailara
soilik pozten nau noizbait joateak
beraien hiletetara.

Amets, zuretzat: "Ni naiz erreka zikinen iturri garbiak aurkitu nahi dituen poeta tristea".

Neurria: Zortziko handia
Doinua: *Haurtxo txikia negarrez dago I*

A. Arzallus: Poeta tristea nola zoan
eguneroko gudura
iturri garbi bat hartu eta
begiratuz sorburura
iturri garbi erreka zikin
nunbait bada kutsadura
poetak aurkitu ote zuen
nork zikintzen zuen ura?

Eta Andoni, zuretzat: “Aurrean papera ta / atzean papera / periodikoa leituz / ilustratzen gera”.

Neurria: Hamarreko handia
Doinua: *Hil da Canovas fuera Canovas*

A. Egaña: Hirurogeita hamargarrengo
hamarkadako moldea
Diario Vasco, *La Voz de España*
zer-nolako uholdea!
Egin ta *Deia* iritsi ziren
esperantza bat gordea
Egunkaria heldu zen gero
*Berria*ren kolorea
komunak berdin-berdinak dira
ta prentsa askoz hobea.

AEBko eta Euskal Herriko bertsolariak kantuan, San Franciscon.

Argazkilaria: Nere Luanbio
Iturria: XDZ

ARRASATE (2010-12-22)

Bertsolariak: Mañukorta, I. Lazkano, U. Alberdi, M. Amuriza eta J. Enbeita.

Gai-emailea: Asier Ibaibarriaga.

Santamasetan urtero antolatzen duten saioa.

Mañukorta-U. Alberdi

Gaia: Zu, Uxue, taberna edo jatetxe bateko zerbitzaria izango zara, eta hor dago Mañu, afaltzen, bakarrik. Kontua eskatu dizu. Kontuarekin batera mahaia jaso, eta ezpainzapian bere telefonoa utzi dizu.

Neurria: Seiko txikia
Doinua: *Bertsuak jarri dizkat*

Mañukorta: Serbitzaile jatorrak
hainbeste meritu
jan ta eranez hementxe
beitu eta beitu
hor dezu urrutizkina
lehenbailehen deitu. (bis)

U. Alberdi: Sorpresa bat hartu dut
platerak batzean
telefono txiki bat
paperan ertzean
kamarera bat behar
al dezu etxean? (bis)
Mañukorta: Holako kamarerak

ez dabiltza nunahi
irripar gozo horrekin
gozo eta alai
kamarera behar det
andra bat ere bai. (bis)

U. Alberdi: Nahiz ta horrek berez ez dun
Mañu ezer txarrik
nik behintzat gaur ez daukat
konpaini beharrik
bezeroak nahi ditut
tabernan bakarrik. (bis)

Mañukorta: Berezoak tabernan
nik ezin ukatu
afaria eiten da
hasi ta bukatu
neu ere hemen naukazu
nahi ba'zu probatu. (bis)

U. Alberdi: Nik ez dizut emango
bedeinkazioa
eta ez dut aseko
zure desioa
baina emango dizut
konbersazioa. (bis)

Mañukorta: Ai zer neska polita
liraina ta bero!
Aukera hau ez degu
biok egunero
igual gustauko zera
probatu ezkero. (bis)

U. Alberdi: Behar det serbilleta
eta bi *babero*
itxuraz jarriko nau
Mañuk bero-bero
igual ez det kontauko
probatu ezkero. (bis)
Mañukorta: Gorpuz ederrak badu

hainbeste etekin
hemen jardun ondoren
ekin eta ekin
igual biziko gerade
biok alkarrekin. (bis)

U. Alberdi: Neskatila gazteai
hartu dio usai
bera’re garai baten
izango zan galai
berak gaztea nahi du
baina nik ere bai. bis)

Mañukorta: Egia esan eta
egin dit galdera
hiruroita zazpi urte
urteak aurrera
baina oindik gazte nago
gerritikan behera. (bis)

U. Alberdi: Txispatuz joaten baitzait
ardotik ardora
azkenean galtzen du
gizonak ganora
ta nik zentzuna daukat
lepotikan gora. (bis)

Mañukorta: Errazoi ederra ere
esan dezu kasi
ta mutilzaharrak beti
ematen du itsusi.
Lagun polit bat hartu
ondo-ondo bizi! (bis)

U. Alberdi: Nahiz ta ez degun ingo
beraz biok txortan
ondo bukau behar da
Mañu holakotan
zure zai egongo naiz
bihar leku hontan. (bis)

LARRABETZU (2010-12-25)

Bertsolariak: A. Arzallus, A. Sarriegi, A. Estiballes eta Fredi Paia.

Gai-emailea: Etxahun Lekue.

Gaztetxean aspaldidanik egin ohi duten bertso-saioa. Abenduaren 25ean izaten da beti.

F. Paia ♫

Gaia: Aurten, ez ekartzearren, Olentzerok ikatzik ere ez dizu ekarri.

Neurria: Hamarreko handia
Doinua: *Lurraren pean sar nindaiteke*

Zazpi urtegaz gaba osoa
itzartuta egon nintzan lez
nire lehenengo gaupasa egin
neban Olentzero gauez
zapatak ondo-ondo garbitu
gogo eta miresmenez
ta hutsunea gaurko opari
arbola azpiko babes.
Olentzerongan ez dot sinisten
ta antza berak niregan be ez. (bis)

Baina guztia bizitza honetan
da gure barne lilura
zein begiakaz begiratzen dan
bihotz barrutik mundura.
Opari ezak sortuko eban
inorengan arrenkura
baina ni nago benetan pozik
hutsune horren kontura:
opari ederra da Olentzero
Oteizaren eskultura. (bis)

Baina joan da eguna eta
nun da opari maitea?
Alternatiba da Meltxorreri
etxean itxarotea
Baltasar bota zuten lanetik
nolako su eta kea!
Ta posibla da igual Gasparrek
ikatzen bat ekartea.
Erabaki dot urte honetan
monarkiko egitea. (bis)

Bertso Udalekuak, Orio.

Iturria: XDZ

DURANGO (2010-12-30)

Bertsolariak: J. Maia, A. Arzallus, M. Lujanbio eta Abarkas.

Gai-emailea: Unai Iturriaga.

Durangoko Plateruenan urtero egiten duten jaialdia, *Urteko azken bertso-saioa* izenarekin.

J. Maia- A. Arzallus- M. Lujanbio- Abarkas

Gaia: Ohitura izaten da urtearen amaieran urtearen errepaso bat egitea, baina neu ere bertsolaria izan naiz, eta badakit hori urtero tokatzen dela, eta ez zaigula gustatzen. Jakin gurako nuke zein den urte guztian zehar gehien errepikatu duzuen gezurra.

Neurria: Zortziko handia
Doinua: *Zazpi ahizparen gai den oihala*

J. Maia: Urte haseran zenbat promesa
eztarri honen antzeko[16]
ustez indartsu hasten direnak
urratuta bukatzeko.
Nik esan nuen prest nengoela
erretzeari uzteko
baina oraindik egun bat badaukat
promesa hori betetzeko.

(16) Eztarria marrantatu zitzaion eta eztula egin behar izan zuen puntuaren hasieran.

A. Arzallus: Ni ez naiz oso mutil puntuala
ta beti horren beldurra
maiz kontatzen dut “Kontrol bat zegon
muga ez zegoen xamurra”.
Pentsatu nere euskalduntasun
izatean iruzurra:
Poliziari egia eta
adiskideei gezurra.

M. Lujanbio: Bi mila eta bederatzia
urte bat erreparatu
abenduaren hamahiru ezkero
ze eromen zenbat datu!
“Ta txapelaren pisua ze muz?”
ez dit ez gutxik galdatu!
Ta nik “A ba txapela ba normal
ez da ezer ere aldatu”.

Abarkas: Txapelketa bat izan dut aurten
ta bertara naiz aurkeztu
gure ustetan ondo gengozan
preparatuta ta prestu
saio aurretik galdera bera
“Zaude nerbio ta estu?”
ta nik ezetza esaten nien
nahiz ta nik bere ez sinestu.

BAT-BATEKO SARIKETAK

BETERRIKO TXAPELKETAREN FINALA

VILLABONA (2010-02-13)

Bertsolariak: U. Muñoa, A. Lizarralde,
I. Apalategi (Sorgin-Orratzak),
H. Etxeberria Ministro, J. Martin eta
I. Gurrutxaga (Mandeuliak).

Gai-emailea: Amaia Agirre.

Villabonako Irrintzi elkartean izan zen, afalondoan. Bi ordu inguruko saioa eskaini zuten bertsolariek. Laurogeiren bat entzule, eta aretoa goraino beterik. Ohi bezala, bi taldeek agur bereziak kantatu zituzten, mozorrotuta.

I. Gurrutxaga-A. Lizarralde

Gaia: Zuek biok tren geltokian, banku banatan, eserita zaudeten bi lagun zarete. Trenen joan-etorriei begira zaudete biok. Zuk, Iñaki, datozen trenei begiratzen diezu, eta zuk, Ander, doazen trenei.

Neurria: Hamarreko txikia
Doinua: *Lagundurikan danoi I*

I. Gurrutxaga: Dena aldatu zen hiru
urte badirela
ta geroztik bankua
dago hain epela.
Trenak joan ta etorri
honela horrela
nik badakit maitea
itzuliko dela
maiatzean enarak
datozen bezela.

A. Lizarralde: Biyok jarri gaituzte
ez elkarren kontra
bizitzan badaude-ta
holako hainbat mota.
Nora ote goazen
ez diyo inporta
maitia juan zela
ta toki askota
neria ere hola
joateko dago-ta!

I. Gurrutxaga: Ze inbidia elkar
maite dezuenak!
Nere bihotza berriz
hartu zuen penak.
Izen-abizen ditu
daukadan kondenak
baina betiko ezin du
iraun etsipenak
esperantza izena du
helduko den trenak.

A. Lizarralde: Esperantza eduki
ezazu hurbila
beti iristen baita
umil ta isila.
Trenak ere badoaz
hemendikan pila
ta ni haitako baten
azkar sar nadila
juan behar dut baino
ez dagonan bila.

I. Gurrutxaga: Ez dagoenan bila
hara nola doan
ametsak egitea
nola degun doan.
Ni bertan egongo naiz
zertan urrun joan?
Orainean bezala
seguru geroan
etorkizunaren zain
*apeadero*an.

A. Lizarralde: Zazpi urte bakarrik
daramatzat aurten
lanera ia ez nau
inork eramaten
eta etxean ez da
ni besterik jaten.
Nik'e aldegin nahi dut
tren bakarti baten
eta itzuli nahi dut
beste bat izaten.

ABRA SARIA

GETXO (ALGORTA) (2010-02-27)

Bertsolariak: E. Samaniego, A. Iturriotz, A. Labaka, J. Uria, S. Alkaiza eta P. Ormazabal.

Gai-emailea: Miren Loizaga.

Algortako Kultur Etxean izan zen, arratsaldeko zazpietan; berrogeiren bat entzule.

A. Labaka-J. Uria

Gaia: Afaltzera joan zarete elkarrekin. Bapo afaldu duzue, ordu erdi pasatu da, baina zerbitzariak ez dizue kontua ekarri oraindik.

Neurria: Zortziko handia
Doinua: *Eguna pasa nekean eta / Andre txarraren bentajak*

A. Labaka: Afari ona jarri digute
ta afaldu degu txukun
orain kasurik ez egin eta
ni ez nago kopetilun.
Mahai inguruan tonto moduan
jarrita gaude bi lagun
gure dirurik ez dute behar
ta alde egin dezagun. (bis)

J. Uria: Bai egia da eduki dugu
guk antza zorte itzela
ederto janda espagetiak
eta geroko berdela.
Ekarri duzun eskoteari
begira jarriz horrela
seguru nago barrako zaharrak
gonbidatu gaituela. (bis)

A. Labaka: Bai egia da barrako hori
neri begira ari da
baina goazen ta tabernetan
osatu dezagun jira
pagatu gabe alde eginda
juan gaitezen urrutira
alper-alperrik ari delako
nere eskoteai begira. (bis)

J. Uria: Zuri begira dagoela-ta
ez dezagun egin drama
zuk betidanik eduki duzu
neska ederraren fama.
Orain hemendik joan nahi duzu
lasaitu Ane laztana!
Itxaron pixkat eska ditzagun
kafea ta patxarana. (bis)

A. Labaka: Ideia ona izanda hori
ta ni ere ados nago
patxarana hartu eta bertsotan
jardun gaitezke luzaro
baina ideia bat det buruan
eta oso argi dago:
gaurtik aurrera hau egin eta
krisi guztiak akabo. (bis)

J. Uria: Oso polita izan da beraz
gure gaurko gertaera
ez zetorrenez nahiz ta denbora
azkar joan den aurrera
asmatu dugu pelikula bat
ta zaharraren papera
baina badator kontuarekin
eta kartera atera. (bis)

J. Uria ♫

Gaia: *Asperdura* sentsazioa sentiarazi behar diozu entzuleari bertso batekin.

Neurria: Hamaseiko berdina, 8 puntuz eta 8 silabaz
Doinua: *Baserrian jaio nintzan / Habanera*

Nahiz ta saioa badoan
bere pausuan aurrera
egin beharko dizuet
nik kartzelatik harrera.
Pazientea izango naiz
hori da nire jarrera
denborak ez du axola
behintzat nire arabera.
Beraz denbora badoa
bertso erdia bete da
oraindik asko falta da
baina hainbeste ez keba!
Notizia berri bat dut
zuek denontzat gainera:
bakarka botako ditut
beste hiru habanera[17].

(17) Ohi baino mantsoago kantatu zuen bertso hau Jone Uriak.

V. ERNIARRAITZ SARIKETAREN FINALA

AZPEITIA (2010-03-12)

Bertsolariak: B. Iguaran, U. Gaztelumendi, N. Zinkunegi, M. Velarde, A. Azpiroz eta A. Martin.

Gai-emailea: Jokin Uranga.

Azpeitiko gaztetxean izan zen, gauean. Antolatzaileek aipatu zutenez, sariketa hau gero eta arrakastatsuagoa ari da izaten, eta horren erakusgarri da saioa entzutera elkartu zen entzule mordoa.

A. Azpiroz-M. Velarde

Gaia: Urte askotan izan duzue bikote-harremana. Orain Asierrek uztea erabaki du, eta Maialenek ezin du onartu.

Neurria: Hamarreko txikia
Doinua: *Agur sagar beltzeran*

A. Azpiroz: Gaurtik aurrera gera
gu bikote ohiak
pasatu diralako
lehengo sasoiak.
Ohe kontuan ginan
gu biok lehoiak
astintzen genituen
sofa eta ohiak
ta orain bihurtu gera
rutinan morroiak.

M. Velarde: Sinistu nahiko nuke
diotsut serio
rutinan omen gaude
ze erremedio!
Elkarrekin pasata
lau kalendario
lehen lagun eta orain
elkar arerio...
Buruak baietz baina
bihotzak ezetz dio.

A. Azpiroz: Nun da garai bateko
neskatxa ausarta?
Herriko politena
ohean aparta
ta ez dezu onartu nahi
jesus hau da marka!
Arrazoia hauxe da
esatea barka:
begietan ez dezu
lehengo txinparta.

M. Velarde: Txinparta joaten zaizu
hogei segunduan
ta berdina pasatzen
ohe inguruan
nik maitasuna nuen
nire helburuan
baina aldatu zaizu
azkenengo orduan:
sexua bakarrikan
daukazu buruan.

A. Azpiroz: Sentimentuak ere
badauzkat ta aizu
ta zuk burua altxa
eta ez egon kexu.
Zure bizitzarekin
jarrai dezakezu
oraindikan benetan
polita zaude zu
ta ni baino hobe bat
bilatuko dezu.

M. Velarde: Sentimentuak ditu
zeinen romantiko!
Sentimentuak aspaldi
utzita mutiko.
Maitasuna betiko
ez du ikusiko
azpikoa egiten da
ximeldu ta kito
ta ni ez naiz zure zain
betiko jarriko.

A. Martin ♫

Gaia: Gaur ere ez duzu zure etxean lorik egingo.

Neurria: Hamarreko handia
Doinua: *Azken arnasa eman nahi nuke*

Nire mutila ez zen batekin
oheratu egin nintzen
orain bi bihotz hautsi ez gara
etxe batean kabitzen.
Zuk barkamena eman zenidan
eta ez dut konprenitzen
gure harremana bizi ezean
batera ez dakit bizitzen
nire etxean egonagatik
ez naiz etxean sentitzen.

Hanka sartzeko eskubidea
ematen digu bizitzak
eta nik sartu dudan aldiak
ez dira horren murritzak.
Ezberdin dira zure keinuak
nahiz berdinak izan hitzak
zuk barkatzea hautatu zendun
jarri ondoren baldintzak
ta orain ez dakit non galdu diren
zure bihotzeko giltzak.

Berriro ere etxetik kanpo
egin berri dut ihesi
zu ikusita sentitzen ditut
begi-ninitan bi gezi
eraiki dira hainbeste horma
hainbeste muga ta hesi
zuk barkamena emanagatik
sentiaraziz berezi.
Horretxek juxtu erakusten dit
ez zaitudala merezi.

Bertso Udalekuak, Irañeta.

Iturria: XDZ

HERNANDORENA SARIKETAREN FINALA

MUSKILDI (2010-04-10)

Bertsolariak: A. Karrika, E. Arzallus, M. Irigoien, I. Mendiguren, X. Cazaubon eta A. Labaka.

Gai-emailea: Joanes Etxebarria.

Muskildiko Posopesenean jokatu zen Hernandorena sariketaren finala, larunbat arratsean, ehun lagun inguru entzuten zirela.

M. Irigoien-A. Labaka ♫

Gaia: Bi kazetari zarete. Zuk, Maiana, uste duzu beharrezkoa dela gertakariaren lekura joatea; Anek, berriz, bulegotik mugitu gabe egiten du lan.

Neurria: Hamarreko txikia
Doinua: *Espainian behera*

M. Irigoien:
Ane egun ditugu
biek bi iritzi
nirea emaiteko
eguna da iritsi:
ni hara joaiten naiz
hori ez da bitxi
bertakoena ere
nahi baitut bizi
zu zure xokoan egon
ta begiak itxi. (bis)

A. Labaka: Kazetarion lana
deskribaezina
begiak ixte hori
ezin imajina
dena albiste txarra
ta gerra zikina
sentitu gabe bertan
sentitzen den mina
bulegotikan egin
leike lan berdina. (bis)

M. Irigoien: Tokitara badua
betitik Maiana
joan den hilabetean
Haitira joana
han dena ikusi dut
ta ez dut errana
zuk ordinagailuan
bai berriak asma
bulegoan egoitea
ez da zure lana. (bis)

A. Labaka: Haitikoa aipatu
dezu zuk horrela
badakizu ni horren
jakitun naizela:
hainbeste bihotz hautsi
hainbeste eskela
ikusi det han hilak
biltzen zituztela
ta sentitu naiz hantxe
banengo bezela. (bis)

M. Irigoien: Bulegoan egonez
zuk denbora galtzen
zertarako ez zira
lekura joaiten?
Dena ikusten duzu
zuk untsa ikusten
bainan hau jakin zazu
Ane egun hemen:
hitzek sekula ez dute
egia erakusten. (bis)

A. Labaka: Ba ni nere hitzekin
nago aldarte lasaiz.
Munduan zergatikan
dago hainbeste gaitz?
Dena delako gerra
tsunami ta ekaitz
hegazkin bat hartuta
ibilita garaiz
berri onak badaude
bertaratukonaiz. (bis)

OSINALDE SARIA

GABIRIA (2010-05-08)

Bertsolariak: O. Barroso, J. Agirre, M. Artola, A. Mujika, H. Iruretagoiena eta E. Igartzabal.

Gai-emailea: Jokin Murua.

Ohi bezala, bertsozale asko inguratu zen Osinalde Elkartera, bertsolari gazteen jarduna entzuteko asmoz. Mikel Artola alegiarrak irabazi zuen sari nagusia, Endika Igartzabalek eraman zuen entzuleen saria, eta Hodei Iruretagoienarentzat izan zen bertso onenaren saria.

E. Igartzabal-M. Artola

Gaia: Zuek zaldia eta jockeya zarete, Mikel zaldia eta Endika jockeya. Iaz lasterketa dezente irabazi zenituzten, baina aurten bat bera ere ez.

Neurria: Zortziko txikia
Doinua: *Nere senarrarekin I*

E. Igartzabal: Askotan pentsatu det
zaldi hau saltzea
nei ez baitzait gustatzen
sekula galtzea.
Nahiz ta earrak dauzken
aurre ta atzea
ehun kilo eamateko'
re kapaz ez zea. (bis)

M. Artola: Lehen gu beti iristen
ginenez aurrena
orain bihurtu zera
erabat gizena
zaldi baten gainean
horra hor zezena!
Bistan dago zeinek dun
biotan problema. (bis)

E. Igartzabal: Zaldi kaxkarra eta
gainera *txulo*a
seitun joango zera
nere ikuilua
o bestela korrika
azkar baten alua
nik ateratzen badet
nere akuilua! (bis)

M. Artola: Gainera akuilua
hau da komeria!
Nagusi kaxkarra det
hau da mixeria!
Nik aterako omen det
abaila haundia
aizu korri iteko
zuk dezu premia! (bis)

E. Igartzabal: Zaldi hobe batekin
nengoke konpleto
karrerak irabaziz
askoz'e hobeto.
Enpleatuko zaitut
egia esateko
zuk'e balioko'zu
Gabirin jateko! (bis)

M. Artola: Bere galtzetan ere
ezin da kabitu
jate kontu horretan
ondo du kunplitu
ta oraindik ez bada
ondo entenditu:
nere pentsuak ere
berak jaten ditu. (bis)

H. Iruretagoiena ♫

Gaia: Atzo ezagutu eta asko gustatu zitzaizun lagun baten telefono zenbakia, prakekin batera, amak garbigailuan sartu du.

Neurria: Hamarreko handia
Doinua: *Zure eskaerak egia esan*

Pare bat trago batera hartuz
hasi genuen jokoa
hitz egin, dantza pixka bat eta
zuek pentsa gerokoa.
Ederki asko pasatu nuen
zen neska polit askoa.
Paper hautsia ikusi eta
ulertua det gakoa:
despiste batek ximel dezake
hainbeste kostatakoa. (bis)

Baina gaur non den ezin asmatu
nahiz atzo ibili bapo.
Buruan bueltan dabilkit orain
ene! Baina zertarako?
Ahaztu egin behar mundu honetan
beste mila daudelako
ta konfiantza pixkat behar da
hurrengo saiotarako.
Amak guapoa naizela dio
sinistu egin beharko! (bis)

PLAZATIK GAZTETXERA SARIKETAREN FINALA

MUTRIKU (2010-06-05)

Bertsolariak: A. Azpiroz, A. Lizarralde, A. Labaka, M. Artola, O. Barroso eta B. Iguaran.

Gai-emailea: Ana Etxaburu.

Ohi bezala, Mutrikuko gaztetxean jokatu zen Plazatik Gaztetxera txapelketaren IX. finala. Bazkalostean izan zen saioa. Antolatzaileek uste baino jende gutxiago gerturatu bazen ere, giro polita sortu zen.

A. Labaka-A. Lizarralde

Gaia: Ane, arrandegira sartu zara, eta bertako andreak buelta eman bezain laster, Anderrek aterki barrura sartu du arrain bat.

Neurria: Zortziko txikia
Doinua: *Dama gazte xarmant bat*

A. Labaka: Harrituta nengoen
albotik begira
ta nere ondoko hau
gustora ari da
oraintxe legatz hori
sartu aterkira
Ander bisigu on bat
har zazu sikira! (bis)

A. Lizarralde: Baina aterkian ez zait
gehiago kabitzen
ta zail da urrutitik
honaino hurbiltzen.
Gazte garaian ia
itsu egon nintzen
ta antxua ta legatzik
ez dut desberdintzen. (bis)

A. Labaka: Askotan egin ote
dezu zuk berdina?
Ez baitezu eraman
pagatu adina.
Ez dezula bereizten
hoien imajina
orduan zu zaitugu
bisigu haundina. (bis)

A. Lizarralde: Bisiguak sarritan
harrapatzen ditut
parranda girun behintzat
joaten dira batzuk.
Mingaina're txuluan
izan ezkero zuk
burua ta hezurrak
emango dizkizut. (bis)

A. Labaka: Nik ez nuke egin nahi
gauza hoien jabe.
Plan bat badaukat eta
ez nabil hain grabe:
saltzaileari dena
kontatu bazpa're
horrela ni joango naiz
bat'e pagau gabe. (bis)

A. Lizarralde: Zu're nere moduan
oso *lista* zera
ta iristen bagera
akordu batera
nik gonbituko dizut
arraian platera
probatzera etorri
pare bat astera. (bis)

O. Barroso ♫

Gaia: Urtebete daramazue lanean Saharara bidaia solidario bat egiteko. Gaur, zure lagunik onena bertako dirua lapurtzen harrapatu duzu.

Neurria: Hamalauko txikia
Doinua: *Kantuz sortu naiz eta*

Lagunak nola duen
sosa lapurtua
ta ni neure penetan
hor nago urtua
kolpetik aldatu da
gu bion kontua
alperrik da aitzaki
lausozko kantua.
Zure etxe ondoan
BBK bankua
hara hurbildu zaite
ongi prestatua
munduan badago-ta
nori lapurtua!

Nahiz eta zaren ama
on baten alaba
nere etxean ez zazu
berriz jo aldaba.
Lehen egiten genuen
irri ta algara
baina hainbesteraino
aldatu al gara?
Zu lagun izatea
baita nere traba
miseriaz beterik
daukagu Sahara
ta zure mixeria
handiagoa da.

Bertso Eguna.

Argazkilaria: Galder Izagirre
Iturria: XDZ

LIZARDI SARIAREN FINALA
ZARAUTZ (2010-09-03)

Bertsolariak: M. Goiogana, X. Murua, J. Uria, A. Labaka, A. Azpiroz eta A. Barandiaran.

Zarauzko Zinema pilotalekuan jokatu zen Lizardi sariaren finala. Hirurehunen bat entzule elkartu ziren, eta saio polita egin zuten sei bertsolariek. Finalaren aurretik, bi saio jokatu ziren, afalosteko giroan, finalerako txartelak banatzeko.

J. Uria-A. Barandiaran ♫

Gaia: Jone eta Aitzol bi konpositore edo musikagile zarete. Jonek kanta tristeak baino ez ditu sortzen, eta kanta alaiak nola sortzen diren galdezka joan da Aitzolengana.

Neurria: Hamarreko txikia
Doinua: *Antton eta Maria*

J. Uria:
Musika konposatzen
horrenbeste urte
onartzen dut duzula
nahikoa bertute.
Aholku eske nator
lore horren truke
"Zuretzat ilargia
lapurtuko nuke"
zuk hori alai nola
esango zenuke? (bis)

A. Barandiaran: Beraz hartu nahi nauzu
zure itsumutila
kanta alaiak sortzeko
det ideia pila.
Hil-kanpai dirudizu
ze aurpegi zurbila!
Ilargia esan dezu
gauza borobila
jarri bere lekuan
patata tortilla. (bis)

J. Uria: Hori da hobekuntza
hoberik balego
zure konsejuekin
nago erdi ero
ta hobekuntzekin jarriz
pozik eta bero
hobekuntzarik ba al
nezake espero
sudur gorri batekin
kantatu ezkero? (bis)

A. Barandiaran: Orain zu animatzen
ze estuasunak!
Baina nola alaitu
grazirik ez dunak?
Utzi gitarrak eta
zure esku leunak
ez dulako balio
ai nere lagunak
sudur gorriak eta
kopeta ilunak! (bis)

J. Uria: Nahiz ta pozik nengoen
jira eta bira
ta tortillarenari
gura nion tira
ez dut balio eta
hala da aski da!
Pirritx eta Porrotxen
CDari begira
ideia hori ere
badago eginda. (bis)

A. Barandiaran: Mikel Urdangarin ta
Xabier Lete hara!
Bota ditzagun azkar
zakarrontzitara!
Gure mundua nahiko
tristea ez da ba!
Lasai! Bide onetik
ibiliko zara
zugan irriparre bat
sortzen baldin bada. (bis)

BERTSOKO SARIKETAREN FINALA
ASKARTZA (2010-11-26)

Bertsolariak: J. Uria, J. Soto, A. Mujika,
A. Solozabal, O. Barroso eta A. Azpiroz.

Gai-emailea: Manex Agirre.

A. Mujika-A. Solozabal ♫

Gaia: Zuen bion alabak futbolean jokatzen du talde batean. Taldeko neska bakarra da. Txapelketa bat jokatzen hasi behar du taldeak, baina antolatzaileek esan dizuete ezingo dutela finala jokatu, taldean neska bat dagoelako. Zer egin erabakitzen ari zarete.

Neurria: Zortziko handia
Doinua: *Goizian goizik jeiki ninduzun I*

A. Mujika:
Bi guraso ta alaba txiki
bat dugu ta da bakarra
ez dut jasan nahi arratsaldero
etxean bere negarra.
Sartu taldean ta finalean
dauka azaldu beharra
ezkutatuaz ez da erakusten
emakumeen indarra.

A. Solozabal: Azaroaren hogeita bosta
da politikan zutabe
guztiek uste dute emakumeen
egoera dela grabe
baina orain zer egin behar den
Ainhoa nahi nuke galde
gola sartu nahi digutelako
baina defentsarik gabe.

A. Mujika: Zergatik ezin dira aritu
elkarrekin buruz buru?
Arauak jarriz inposaketa
ez al daukate helburu?
Joan ezean bide txarrean
sartuko gara seguru
ume mokoen jolasa ere
joko bihurtzen badugu.

A. Solozabal: Beraiek haien sermoia bota
ta guk esaten dugu "Amen!"
gero genero bereizketarik
gizarte honetan ez omen...
Baina zaila da hau aldatzea
egun batean nabarmen
partida hontan ez dakit aizu
jokoz kanpo ez al gauden.

A. Mujika: Nik ere uste dut jokoz kanpo ta
erdi koloka gaudela
erabakiak hartu ta bazter
utziaz beti bezela
baina mundua gu gara eta
hau aldatu leike bela.
Kasu honetan taldeko haurrek
erabaki dezatela.

A. Solozabal: Hortxe dabiltza bi talde eta
hamaika ume buruz buru
erabakior izan daitezke
azkenengo hainbat segundu.
Ez jokatzea nire iritzia
horretaz nago seguru
hiru puntu ez lortu arren guk
partida irabazi dugu.

XENPELAR SARIKETAREN FINALA
ERRENTERIA (2010-12-08)

Bertsolariak: A. Rezola, H. Casabal, J. Soto, A. Barandiaran, A. Martin eta O. Barroso.

Gai-emailea: Mikel Lersundi.

A. Rezola-H. Casabal ♫

Gaia: Bi gazte lodi zarete. Dieta egiten hasi zarete, eta zu, Agin, kilo asko galtzen ari zara. Zuk, Aritz, aldiz, ez duzu pisurik galtzen.

Neurria: Zortziko txikia
Doinua: *Nere senarrarekin I*

A. Rezola:
Hasieran genuen
neke eta pereza
kiluak galtzia ez
dalako erreza.
Nahiz begetalak izan
hau da aldrebesa!
Noiztik da dietakua
zortzi hanburgesa? (bis)

H. Casabal:
Zertarako purea?
Zertarako zopa?
Zertako oliua
kutxaretan bota?
Hanburgesa ona da
gainera kiloka
bestela letxugarik
ez nuke jango-ta! (bis)

A. Rezola: Oinalka bat jaten du
goizero-goizero
gutxiyo izaterik
ez nuen espero.
“Kirola egingo det”
esan zidan gero
baino Aritz ez zaite
jarri ba *portero*! (bis)

H. Casabal: *Portero*a normalen
da nahiko trankila
baina Agin futbolean
ez denez abila
hoi kilometro sorta
hori esprint pila
bandara joatean
baloiaren bila! (bis)

A. Rezola: Medikua bera’re
guztiz errenditu
baino nik ez det zuek
adina meritu
nola flakatu naizen
arren entenditu:
nere partiak ere
berak jaten ditu. (bis)

H. Casabal: Bik gutxi jetsi baino
hobe batek asko
media inoiz ez da
eta kalterako
nerea neretzat ta
zurea neretzako
eta zergatik? Lagun
ona naizelako. (bis)

SAIOEN AURKIBIDEA

Data	Herria	Bertsolariak	or.
2010-01-05	OÑATI	M. Lujanbio, A. Egaña, B. Gaztelumendi, U. Alberdi, A. Arzallus eta A. Mendiluze.	69
2010-01-29	ABADIÑO	M. Lujanbio eta J. Maia.	75
2010-01-30	DONOSTIA	A. Arzallus, X. Silveira, U. Alberdi, J. Sorozabal, J. Maia, I. Gurrutxaga, I. Elortza, M. Lujanbio, P. Etxeberria, T. Garmendia eta I. Zubeldia.	78
2010-02-13	BAIONA	A. Sarriegi, M. Lujanbio, U. Iturriaga, A. Egaña, A. Arzallus, J. Maia, A. Mendiluze eta S. Colina.	80
2010-02-19	ANDOAIN	A. Mendiluze, A.M. Peñagarikano, B. Gaztelumendi, S. Colina, A. Sarriegi eta I. Alustiza.	83
2010-02-20	LEZO B.	Gaztelumendi, J. M. Irazu, S. Colina eta A. Arzallus.	86
2010-02-21	USURBIL	A. Agirreazaldegi, A. Arzallus, A. Egaña eta M. Amuriza.	90
2010-02-28	GERNIKA	U. Iturriaga, S. Colina, A. Sarriegi, A. Arzallus, J. Maia eta A. Mendiluze.	95
2010-03-19	IGORRE	A. Arzallus, On. Enbeita, S. Colina, U. Iturriaga, A. Egaña eta J. Maia.	98
2010-03-20	LESAKA	J. Soto	101
2010-03-28	TOLOSA	U. Alberdi, A. Arzallus, S. Colina, A. Egaña, U. Iturriaga, J. Maia, A. Mendiluze eta A. Sarriegi.	102
2010-04-09	ZUMAIA	J. Maia, M. Lujanbio, A. Arzallus, A. Egaña, M. Amuriza eta J. Soto.	108
2010-04-11	ZEGAMA	U. Iturriaga, A. Mendiluze, A. Egaña, A. Arzallus, I. Zubeldia, A. Sarriegi, S. Colina eta M. Lujanbio.	114
2010-04-17	MENDEXA	J. Uria, I. Zubeldia, A. Mendiluze, S. Colina, A. Arzallus eta M. Lujanbio.	117
2010-04-18	MALLABIA	M. Lujanbio, M. Amuriza, B. Ugartetxea, A. Egaña, J. Agirre eta A. Arzallus.	119
2010-04-21	LEIOA	A. Arzallus, B. Gaztelumendi, A. Egaña, X. Paya eta M. Lujanbio.	123

2010-04-23	OIARTZUN A.	Martin, A. Goikoetxea, Arkaitz Oiartzabal Xamoa, A. Errazkin, J. Mitxelena eta H. Casabal	125
2010-04-23	AZPEITIA M.	Lujanbio, S. Colina, A. Egaña, S. Lizaso, J. Uranga eta H. Etxeberria "Ministro".	127
2010-05-07	BASAURI U.	Iturriaga, J. Maia, S. Colina, A. Egaña, M. Lujanbio eta A. Arzallus.	131
2010-05-08	AZKOITIA	A. Arzallus, A. Egaña, J. Maia eta M. Lujanbio.	134
2010-05-15	ZIZURKIL	A. Arzallus, U. Iturriaga, U. Alberdi, X. Paya, J. Maia eta A. Agirre.	137
2010-05-21	LEKEITIO	S. Colina, A. Egaña, A. Arzallus, X. Galletebeitia, A. Arrizubieta eta M. Amuriza.	140
2010-05-23	DONOSTIA	A. Arzallus, J. Maia, J. Agirre, A. Sarriegi, M. Amuriza, B. Gaztelumendi eta S. Colina.	144
2010-06-11	SORALUZE	A. Arzallus, A. Egaña, J. Maia eta M. Lujanbio.	146
2010-06-13	HERNANI EREÑOTZU	M. Lujanbio, M. Amuriza, J. Maia, A. Egaña, A. Sarriegi eta J. Agirre.	149
2010-06-24	ANDOAIN	A.M. Peñagarikano, I. Apalategi, A. Mendiluze, S. Lizaso, U. Muñoa eta A. Lizarralde.	154
2010-07-03	USURBIL	I. Zubeldia, J. Maia, A. Arzallus, I. Elortza B. Gaztelumendi eta J. Uria.	159
2010-07-13	IRUÑEA	J. Maia, U. Alberdi, E, Arozena, E. Lazkoz, A. Egaña eta S. Alkaiza.	161
2010-07-15	ALEGIA	M. Lujanbio, A. Mendiluze, J.M. Irazu eta U. Agirre.	163
2010-07-24	AIA	S. Lizaso, A. Egaña, A.M. Peñagarikano, M. Lujanbio eta A. Arzallus.	166
2010-07-25	ASTIGARRAGA	Xamoa A. Martin, E. Zabaleta, I. Gurrutxaga, M. Mujika eta J. Labaien.	172
2010-07-26	GORLIZ	S. Colina, A. Illaro, A. Sarriegi eta M. Telleria.	176

2010-07-30	GETXO ALGORTA	On. Enbeita, A. Sarriegi, A. Arzallus, E. Lekue	178
2010-07-30	VILLABONA	A. Agirreazaldegi, O. Iguaran, E. Eizagirre, On. Enbeita, U. Alberdi eta O. Bartra.	181
2010-08-01	ALTZO	M. Lujanbio, B. Gaztelumendi, U. Alberdi, J. Maia, A. Egaña eta A. Arzallus.	184
2010-08-13	ADUNA	U. Alberdi, J. Soto, M. Amuriza eta B.Gazteleumendi.	186
2010-08-13	BALIARRAN	M. Lujanbio, J. Maia, A. Egaña, A. Arzallus, S. Colina eta A. Sarriegi.	190
2010-08-14	GABIRIA	X. Paya, U. Iturriaga, I. Ibarra, M. Artola, E. Igartzabal eta B. Gaztelumendi.	197
2010-08-20	DONOSTIA	J. Uria, A. Arzallus, S. Lizaso eta I. Alustiza.	201
2010-08-22	BILBO	I. Elortza, J. Maia, F. Paia eta A. Egaña.	204
2010-08-24	AMEZKETA	S. Lizaso, A. Egaña, A. Mendiluze, A. Arzallus eta J. Soto.	207
2010-08-28	HONDARRIBIA	A. Mendiluze, A. Sarriegi, X. Paya eta S. Colina.	209
2010-09-03	ATAUN	U. Muñoa, Ibarra, I. Gurrutxaga, A. Agirre, J. Soto eta I. Urdangarin.	212
2010-09-11	ALKIZA	A. Arzallus, A.M. Peñagarikano, A. Egaña, M. Lujanbio, B. Gaztelumendi eta S. Lizaso.	214
2010-09-12	BERMEO	M. Amuriza, E. Arozena, A. Arzallus, I. Elortza, A. Egaña eta M. Lujanbio.	222
2010-09-15	LEZO	S. Lizaso, A. Egaña, J. Soto eta M. Amuriza.	225
2010-09-26	IRURA	M. Lujanbio, U. Alberdi, J. Soto eta A. Sarriegi.	231
2010-09-29	URNIETA	A. Agirreazaldegi, Arkaitz Oiartzabal Xamoa, U. Alberdi eta B. Gaztelumendi.	233
2010-10-10	UREPELE	Loidisaletxe II.a, U. Alberdi eta S. Lizaso.	235
2010-10-14	GASTEIZ	M. Lujanbio, O. Perea, I. Elortza, A. Arzallus, J. Soto eta A. Mendiluze.	238

2010-10-24	ARRASATE A.	Sarriegi, S. Colina, A. Mendiluze, U. Iturriaga, A. Egaña, J. Maia, A. Arzallus eta M. Lujanbio.	240
2010-10-28	DONOSTIA AÑORGA	M. Lujanbio, A. Egaña, B. Gaztelumendi eta U. Gaztelumendi.	243
2010-11-05	ARANTZA A.	Martin-M. Amuriza	245
2010-11-06	MAULE	A. Egaña, A. Arzallus, A. Sarriegi eta U. Iturriaga	250
2010-11-12	ATAUN A.M.	Peñagarikano, S. Lizaso, A. Egaña, A. Arzallus, I. Urdangarin eta A. Barandiaran.	259
2010-11-13	DONIBANE LOHIZUNE	A. Arzallus	262
2010-11-20	GETARIA	J. Labaien, U. Alberdi, A. Agirre eta B. Gaztelumendi.	263
2010-11-26	DONOSTIA	M. Lujanbio, U. Iturriaga, S. Lizaso eta B. Gaztelumendi.	266
2010-12-06	ORIO M.	Lujanbio, A. Arzallus, A. Egaña, B. Gaztelumendi eta I. Esoain.	269
2010-12-08	MARKINA-XEMEIN	A. Arzallus, A. Egaña, J. Maia, U. Iturriaga, M. Amuriza eta M. Lujanbio.	274
2010-12-11	ZUMARRAGA	U. Iturriaga, M. Lujanbio, A. Egaña eta A. Arzallus.	281
2010-12-22	ARRASATE	Mañukorta, I. Lazkano, U. Alberdi, M. Amuriza eta J. Enbeita.	286
2010-12-25	LARRABETZU	A. Arzallus, A. Sarriegi, A. Estiballes eta Fredi Paia.	289
2010-12-30	DURANGO J.	Maia, A. Arzallus, M. Lujanbio eta Abarkas.	291

Bat-bateko sariketak

Data	herria	bertsolariak	or.
2010-02-13	VILLABONA	U. Muñoa, A. Lizarralde, I. Apalategi Sorgin-Orratzak, H. Etxeberria *Ministro*, J. Martin eta I. Gurrutxaga Mandeuliak.	295
2010-02-27	ALGORTA	E. Samaniego, A. Iturrioz, A. Labaka, J. Uria, S. Alkaiza eta P. Ormazabal.	298
2010-03-12	AZPEITIA	B. Iguaran, U. Gaztelumendi, N. Zinkunegi, M. Velarde, A. Azpiroz eta A. Martin.	301
2010-04-10	MUSKILDI	A.Karrika, E. Arzallus, M. Irigoien, I. Mendiguren, X. Cazaubon eta A. Labaka.	305
2010-05-08	GABIRIA	O. Barroso, J. Agirre, M. Artola, A. Mujika, H. Iruretagoiena eta E. Igartzabal.	308
2010-06-05	MUTRIKU	A. Azpiroz, A. Lizarralde, A. Labaka, M. Artola, O. Barroso eta B. Iguaran.	311
2010-09-03	ZARAUTZ	M. Goiogana, X. Murua, J. Uria, A. Labaka, A. Azpiroz eta A. Barandiaran.	315
2010-11-26	ASKARTZA	J. Uria, J. Soto, A. Mujika, A. Solozabal, O. Barroso eta A. Azpiroz.	318
2010-12-08	ERRENTERIA	A. Rezola, H. Casabal, J. Soto, A. Barandiaran, A. Martin eta O. Barroso.	320

ENTZUNGARRI DAUDEN BERTSO HAUTATUAK

KDan eta http://bdb.bertsozale.com

Plazaz plaza

2010-01-05	OÑATI	A. Arzallus, Aitor Mendiluze.
2010-01-29	ABADIÑO	M. Lujanbio .
2010-02-13	BAIONA	A. Arzallus
2010-02-19	ANDOAIN	A. Mendiluze
2010-02-21	USURBIL	A. Agirreazaldegi, A. Egaña
2010-02-28	GERNIKA	U. Iturriaga, S. Colina
2010-03-19	IGORRE	On. Enbeita, U. Iturriaga
2010-03-28	TOLOSA	A. Egaña, A. Mendiluze
2010-03-28	TOLOSA	U. Alberdi
2010-04-09	ZUMAIA	A. Egaña, M. Amuriza
2010-04-09	ZUMAIA	M. Amuriza eta J. Soto.
2010-04-11	ZEGAMA	U. Iturriaga, A Egaña
2010-04-18	MALLABIA	B. Ugartetxea, J. Agirre.
2010-04-18	MALLABIA	A. Arzallus.
2010-04-21	LEIOA	X. Paya.
2010-04-23	AZPEITIA.	J. Uranga
2010-05-07	BASAURI U.	Iturriaga, J. Maia
2010-05-15	ZIZURKIL	J. Maia eta A. Agirre.
2010-05-21	LEKEITIO	S. Colina, A. Egaña
2010-06-11	SORALUZE	A. Egaña, J. Maia
2010-06-11	SORALUZE	M. Lujanbio.
2010-07-15	ALEGIA	M. Lujanbio, A. Mendiluze, J.M. Irazu eta U. Agirre.
2010-07-25	ASTIGARRAGA	Xamoa A. Martin, E. Zabaleta, I. Gurrutxaga, M. Mujika eta J. Labaien.
2010-07-30	GETXO ALGORTA	A. Arzallus, E. Lekue
2010-07-30	VILLABONA	O. Iguaran
2010-08-01	ALTZO	M. Lujanbio
2010-08-13	ADUNA	U. Alberdi, J. Soto
2010-08-13	ADUNA	U. Alberdi, M. Amuriza
2010-08-14	GABIRIA	X. Paya, U. Iturriaga
2010-08-28	HONDARRIBIA	A. Mendiluze, X. Paya

2010-09-03	ATAUN	Ibarra, I. Urdangarin.
2010-09-12	BERMEO	E. Arozena, I. Elortza.
2010-10-14	GASTEIZ	M. Amuriza, E. Arozena, A. Arzallus, I. Elortza, A. Egaña eta M. Lujanbio.
2010-10-24	ARRASATE.	S. Colina, J. Maia
2010-11-06	MAULE	A. Egaña, A. Arzallus
2010-11-06	MAULE	A. Sarriegi eta U. Iturriaga
2010-11-06	MAULE	A. Sarriegi
2010-11-06	MAULE	A. Arzallus
2010-11-20	GETARIA	J. Labaien, U. Alberdi
2010-11-26	DONOSTIA	M. Lujanbio, U. Iturriaga
2010-12-06	ORIO	A. Egaña, B. Gaztelumendi
2010-12-08	MARKINA-XEMEIN	M. Amuriza eta M. Lujanbio.
2010-12-08	MARKINA-XEMEIN	A. Egaña, J. Maia
2010-12-08	MARKINA-XEMEIN	J. Maia.
2010-12-25	LARRABETZU	Fredi Paia.

Bat-bateko sariketak

2010-02-27	GETXO ALGORTA	J. Uria
2010-03-12	AZPEITIA	A. Martin.
2010-04-10	MUSKILDI A.	M. Irigoien, A. Labaka.
2010-05-08	GABIRIA O.	H. Iruretagoiena
2010-06-05	MUTRIKU	O. Barroso
2010-09-03	ZARAUTZ	J. Uria, A. Barandiaran.
2010-11-26	ASKARTZA	A. Mujika, A. Solozabal
2010-12-08	ERRENTERIA	Rezola, A. Casabal, H.

BERTSOLARIEN AURKIBIDEA

Abarkas . . . . . .291(BI)
Agirre, A. . . . . .137(BI)
Agirre, J. . . . . 119(BI)
Agirre, U . . . . . .163(BI)
Agirreazaldegi, A . . . . . .90(BI),93(BI),182(BI),233(B)
Alberdi, U. 106(B),182(BI),186(BI),188(BI),235(B),263(BI),286(BI)
Alustiza, I. . . . . .201(BI)
Amuriza, M. . . . . .90(BI),108(BI),111(BI),188(BI),
225(BI),245(GL),274(BI)
Apalategi, I. . . . . .154(BI)
Arozena, E. . . . . .161(B),222(BI)
Artola, M. . . . . .199(BI),308(BI)
Arzallus, A. . . . . .69(BI),82(B),86(BI),90(BI),122(B),131(B),
159(BI),166(BI),178(BI),190(BI),201(BI),
207(BI),214(BI),216(BI),218(BI),
238(PE),250(BI),256(B),262(H),
281(BI),283(H),291(BI)
Azpiroz, A. . . . . .301(BI)
Barandiaran, A. . . . . .315(BI)
Barroso, O. . . . . .313(B)
Casabal, H. . . . . .320(BI)
Colina, S. . . . . .80(BI),86(BI),95(BI),97(B),117(BI),
140(P),194(BI),240(BI)
Egaña, A. . . . . .72(BI),90(BI),93(BI),102(BI),104(BI),
108(BI),114(BI),127(BI),140(P),
146(BI),166(BI),194(BI),204(BI),
207(BI),214(BI),225(BI),243(BI),
250(BI),271(BI),276(BI),281(BI),283(H)
Elortza, I. . . . . .159(BI),204(BI),222(BI),238(PE)
Enbeita, On. . . . . .98(BI)
Esoain, I. . . . . .269(BI)
Gaztelumendi, B. . . . . .86(BI),144(B),214(BI),243(BI),271(BI)
Goikoetxea, A. . . . . .125(BI)
Gurrutxaga, I. . . . . .172(BI),295(BI)
Ibarra, I. . . . . .212(BI)
Igarzabal, E. . . . . .199(BI),308(BI)

Iguaran, O. . . . . .181(B)
Illaro, A. . . . . .176(B)
Irazu, J.M. . . . . .86(BI),163(BI)
Irigoien, M. . . . . .305(BI)
Iruretagoiena, H. . . . . .310(B)
Iturriaga, U. . . . . .95(BI),98(BI),102(BI),114(BI),132(BI),
197(BI),252(BI),266(BI),281(BI),283(H)
Labaien, J. . . . . .172(BI),263(BI)
Labaka, A. . . . . .295(BI),305(BI),311(BI)
Lekue, E. . . . . .178(BI)
Lizarralde, A. . . . . .295(BI),311(BI)
Lizaso, S. . . . . .156(BI),166(BI),169(BI),201(BI),
207(BI),214(BI),216(BI),225(BI),
227(BI),236(B),259(BI)
Lujanbio, M. . . . . .72(BI),75(BI),79(B),80(BI),148(B),
149(B),150(BI),163(BI),166(BI),
184(B),190(BI),214(BI),218(BI),
238(PE),266(BI),269(BI),274(BI),
281(BI),283(H),291(BI)
Maia, J. . . . . .75(BI),102(BI),132(BI),137(BI),
146(BI),150(BI),204(BI),240(BI),
276(BI),279(B)
Mañukorta . . . . . .286(BI)
Martin, A. . . . . .125(BI),172(BI),245(GL),303(B)
Mendiluze, A. . . . . .69(BI),84(B),102(BI),104(BI),154(BI),
163(BI),207(BI),209(BI),238(PE)
Ministro . . . . . .127(BI)
Mujika, A. . . . . .318(BI)
Mujika, M. . . . . .172(BI)
Paia, F. . . . . .204(BI),289(B)
Paya, X. . . . . .123(B),197(BI),209(BI)
Peñagarikano, A.M. . . . . .156(BI),166(BI),169(BI),214(BI),259(BI)
Perea, O. . . . . .238(PE)
Rezola, A. . . . . .320(BI)
Sarriegi, A. . . . . .134(BI),192(B),231(B),252(BI),255(B)
Solozabal, A. . . . . .318(BI)

Soto, J. . . . . .101(H),111(BI),134(BI),186(BI),
207(BI),225(BI),227(BI),238(PE)
Ugartetxea, B. . . . . .119(BI)
Uranga, J. . . . . .129(B)
Urdangarin, I. . . . . .212(BI)
Uria, J. . . . . .117(BI),201(BI),298(BI),300(B),315(BI)
Velarde, M. . . . . .301(BI)
Xamoa . . . . . .172(BI)
Zabaleta, E. . . . . .172(BI)

IKURRAK:
(B): Gaia emanda bakarka egindako saioa.
(BI): Gaia emanda binaka -edo talde handiagoan- egindako saioa.
(P): Puntutan egindako saioa.
(PE): Lehen edo azken puntua emanda egindako saioa.
(H): Gainerako ariketak
(GL): Gai librean egindako saioa.

Izen eta izengoitien deskribapena

Zerrenda hau, liburuan agertzen diren izen laburdura eta izengoitiei dagokio.

Liburuan	Izen deiturak	Herria
Abarkas	Eneko Abasolo Txabarri	Iurreta
Agirre, A.	Amaia Agirre Arrastoa	Villabona
Agirre, J.	Joxe Agirre Esnal	Azpeitia
Agirre, U.	Unai Agirre Goia	Hernani
Agirreazaladegi, A.	Ainhoa Agirreazaldegi Rekondo	Elgeta
Alberdi, U.	Uxue Alberdi Estibaritz	Elgoibar
Alustiza, I	Iker Alustiza Lasa	Donostia
Amuriza, M.	Miren Amuriza Plaza	Berriz
Arozena, E.	Estitxu Arozena Albizu	Lesaka
Artola, M.	Mikel Artola Izagirre	Alegia
Arzallus, A.	Amets Arzallus Antia	Hendaia
Azpiroz, A.	Asier Azpiroz Iztueta	Zubieta
Barandairan, A.	Aitzol Barandiaran Munduate	Ataun
Barroso, O.	Odei Barroso Gomila	Urruña
Casabal, H.	Haritz Casabal Pikabea	Pasaia
Colina, S.	Sustrai Colina Akordarrementeria	Urruña
Egaña, A.	Andoni Egaña Makazaga	Zarautz
Elortza, I.	Igor Elortza Aranoa	Durango
Enbeita, On.	Onintza Enbeita Maguregi	Muxika
Esoain, I.	Ibai Esoain Arruti	Orio
Gaztelumendi, B.	Beñat Gaztelumendi Arandia	Donostia
Goikoetxea, A.	Arkaitz Gikoetxea Arriola	Oiartzun
Gurrutxaga, I.	Iñaki Gurrutxaga Zubimendi	Orio
Ibarra, I.	Iratxe Ibarra Foruria	Markina-Xemein
Igartzabal, E.	Endika Igartzabal Murua	Gabiria
Iguaran, O.	Oihana Iguaran Amondarain	Villabona

Liburuan	Izen deiturak	Herria
Illaro, A.	Arrate Illaro Etxebarria	Getxo
Irazu, J.M.	Jexux Mari Irazu Muñoa	Larraul
Irigoien, M.	Maiana Irigoien	Baiona
Iruretagoiena, H.	Hodei Iruretagoiena Albizu	Zarautz
Iturriaga, U.	Unai Iturriaga Zuaza-Artaza	Durango
Labaien, J.	Jokin Labaien Iraeta	Arrasate
Labaka, A.	Ane Labaka Mayoz	Lasarte
Lekue, E.	Etxahun Lekue Etxebarria	Larrabetzu
Lizarralde, A.	Ander Lizarralde Jimeno	Oiartzun
Lizaso, S.	Sebastian Lizaso Iraola	Azpeitia
Lujanbio, M.	Maialen Lujanbio Zugasti	Hernani
Maia, J.	Jon Maia Soria	Zumaia
Mañukorta	Gregorio Larrañaga Mandiola	Markin-Xemein
Martin, A.	Alaia Martin Etxebeste	Oiartzun
Mendiluze, A.	Aitor Mendiluze Gonzalez	Andoain
Ministro	Haritz Etxeberria Bereziartua	Azpeitia
Mujika, A.	Ainhoa Mujika Mendia	Beasain
Mujika, M.	Manex Mujika Amunarriz	Donostia
Paia, F.	Alfredo Paia Ruiz “Fredi”	Algorta (Getxo)
Paya, X.	Xabier Paya Ruiz	Algorta (Getxo)
Peñagarikano, A.M.	Anjel Mari Peñagarikano	Anoeta
Perea, O.	Oihane Perea Perez de Mendiola	Gasteiz
Rezola, A.	Agin Rezola Laburu	Astigarraga
Sarriegi, A.	Aitor Sarriegi Galparsoro	Beasain
Solozabal, A.	Ander Solozabal Kortabarria	Gasteiz
Soto, J.	Julio Soto Ezkurdia	Iruñea
Ugartetxea, B.	Beñat Ugartetxea Ostolaza	Mallabia
Uranga, J.	Jokin Uranga Isuskiza	Azpeitia
Urdangarin, I.	Iban Urdangarin Lardizabal	Ataun
Uria, J.	Jone Uria Albizuri	Getxo
Velarde, M.	Maialen Velarde Mujika	Zumaia
Xamoa	Arkaitz Oiartzabal Agirre	Oiartzun
Zabaleta, E.	Eneritz Zabaleta Apaolaza	Baiona

Bapatean 2010

euskal herriko
bertsozale
elkartea

Bapatean 2010